




Euskadiko Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de la Juventud
de Euskadi

Bakerako

Heziketari buruzko
2. euskal liburua



Argitaratzailea: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Http:// www.egk.org

Bilbao, Autonomia, 44. C. P. 48010
Tel. 94 443 61 43 Faxe 94 444 81 71
bilbao@egk.org

Donostia, Andia, 11, Principal. C. P. 20004
Tel. 943 42 97 67 Faxe 943 42 98 37
donosti@egk.org

Arduraduna: Leire Caridad
EGKren bakerako Heziketaren arduraduna

Lantaldea:
Kontzientzi Eragozpen, Intsumisio eta Bakerako
Heziketarako Komisia
KEM-MOC
EKEA-AOC
KAKITZAT

Diru laguntza:



1999. urtea

Aurkibidea

1.- Nazioarteko desordena

1.1.- Militarismoa	9
1.2.- Gerra hotza	9
1.3.- Nazioarteko eskenatoki berria	9
1.4.- Orden militarra	10
1.5.- Gerra gatazkarik gabeko mundua posiblea da	18

2.- 98 Indizea

2.1.- Defentsaren konzeptua	21
2.2.- Estatuaren defentsa ereduak	24
2.3.- Disidentzia armatua	40
2.4.- Alternativa social antimilitarista	41

3.- Desobedientzia zibila

3.1.- Desobedientzia zibila	51
3.2.- Desobedientzia antimilitarista	54
3.3.- Desobedientzia zibileko beste borroka batzuk	58

4.- Bake Hezkuntza

4.1.- Sarrera	63
4.2.- Institutuzioak eta nagusia den pentsamoldea	63
4.3.- Aurretik jarritako ordenari sumisioak izateko hezkuntza	64
4.4.- Desobedientzarako hezkuntzaren beharra	66
4.5.- Bake ta gatazkarako heritzea	66
4.6.- Desobedientzian heitzeko orientabideak	67
4.7.- Bibliografia	70

5.- Euskal Herriko gatazka

Euskal Herriko gatazka	73
Perspektiba politiko berriak	75
Ikuspegi antimilitarista	75

Sarrera gisa

Eskuartearen daukazuen liburu hau "Bake Heziketarako Euskal Liburua" bilduma didaktikoaren bigarren atala da. Lehenengo liburuan astialditik, hau da hezkuntza ez-formaletik, jorratzen bazen bake heziketa, bigarren honetan antimilitarismoaren esparrutik bakea zelan lantzen duten eskaini nahi izan dizuegu.

Euskal Herrian antimilitarismoa osasuntsu dago, azken urteotan hainbat aurrerapen lortu izan direlarik. Ziur aski, gure gizartearen, aipagarriena eta ezagunena derrigorrezko zerbitzu militararekin bukatzea izan da. Baina Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik, dudarik gabe, euskal gizartearen lortutako sentsibilizazio maila jotzen dugu lorpen garrantzitsuena bezala. Antimilitaristen "borroka" ereduak, bortizkeriarik gabekoa eta irudimenean sustatua, gure gizartearen barne-barnean eragin du.

Lortutako aurrerapenak eta egindako bidea luzea bada ere, oraindik egiteke dagoena ez da lan makala. Lortutako koroe txikietan ezin gara lokartu. Gizartearen ematen diren etengabeko aldaketei aurre egiteko gai izan behar gara. Berritxo ere irudimenaren bidea jorratu beharko dugu, telekomunikabideen aroan gal ez gaitezen.

Antimilitaristen ikuspegitik bake hezkuntza aztertzeraz bultzatu gaituzten arrazoiak hamaika dira. Lehenengo liburuan gizabanakoen gatazkak agertzen ziren, talde txikien gatazkak, eta hoientzako ebazpenak. Bigarren honetan esparru haundiagoko gatazketaz, era kritiko batean, aritzen gara. Gatazken aurrean (bortitzak izanik ala ez) erabiltzen den ebazpen tresnarik erabiliena guda eta bortizkeria zergaitik den galderari erantzuten saiatuz.

Besterik ez, liburua irakurtzeko gonbitea luzatu nahi dizuegu, eta benetan mundua BAKEAN, bake osoan, nahi baduzu gizartearen parte hartzekoa ere. Dagoeneko hitzetik ekintzetara abiatzeko garai baita.

Área de Educación para la Paz
Bake Heziketarako arloa
EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA

Bilboko talde Antimilitarista (KEM-MOC)

BAKEAREN ETXEA ITURRIBIDE 12-1na. TFNOA.94-415 37 72* FAX 4790383*
E-mail betxea@lander.es

KEM-MOC 1977.urtean sortzen da, mugimendu politiko, radikal eta alternatibo bezala, non bere lan espezifikoa antimilitarismoaren aldeko lana den, beste borroka iraultzaileen garapen orokorrarekiko ere solidarikoki parte hartzen duelarik.

KEM-MOC radikala da militarismoaren sustraiak apurtzeari dagokionean. Modu berean bere planteamendu, aktibitate eta alternatiba desberdinak, militarismoaren eragileen aurkako lanean radikalitasuna jarraitu behar dute.

KEM-MOC alternatiboa da, egitura ekonomikoaren eta bere produkzio moduen eraldaketa bilatzen du, arlo ideologiko zein kulturalean. Alternatibak desmilitarizatutako espazioak dira, non gastu militarren ordez Eragozpen Fiskala, militar akademien ordez Bake Heziketa, arma industrien ordez Eragozpen Laborala, jostailu belikoen ordez jostailu kooperatiboak, agresio militarren ordez erresistentzia ez biolentia...etab. aurkitu ditzakegu.

Antimilitarismoa egitura militarrei (estatala, europarra, OTAN), honek bultzatzen dituen baloreei (autoritarismo, errepresio, biolentzia, jerarkizazioa, matxismoa, elitismoa...), armamentoen karrerari eta honek suposatzen dituen inplikazio sozialei aurre egiteko planteamendu iraultzailea da. Azken batean sistema ekonomiko, politiko eta ideologiko dominatzaileen aurka, zeinak bere azken gotorlekua eta zabaltzeko bide garrantzitsuena jendearen mobilizazioan eta gerraterako prestaketarako errekurtsioen bilkeran aurkitzen duen.

KEM-MOC-ek borrokatzeko erabiltzen duen estrategia ezbiolentia da, hau sistema bihurtzeko modu aktibo bezala ulertuta. Borrokarako erabiltzen diren bitartekariak, poterearen kontzentrazioa apurtzen eta lana oinarritik bultzatzen ahaleginduko dira. Erabiliko diren estrategia eta bitartekariak, lortu nahi diren helburuekiko koherenteak izango dira beti.

Kritiketan, militarismoak betetzen duen papelaren desenmaskamenduan, mobilizazioetan, protestetan eta beraien inposizioarekiko desobedientzi zibilean, hau da, egingo diren ekintza zuzen guztiak, beti izango dira partehartzaileak eta ez-baztertzaileak, hauek borrokatzeko oinarri-bideak izanik.

KEM-MOC-ek helburu militarra edo zibilak dituen mota guztietako konskripzioak (Estatuak inposatutako derigorrezko zerbitzua) gaitzesten ditu eta bere abolizio ados bultzatzen du kanpaina desberdinen bidez, 1979an? Intsumisioa eta 1996an? Intsumisioa kuarteletan, besteak beste.

KEM-MOC talde autonomo desberdinez osatuta dago, funtzionatzeko modua asanblearioa da, ez dago jerarkiarik eta erabakiak adostasunez hartzea bultzatzen da. IRG (Internazional de Residentes a la Guerra) barruan dagoelarik.

Militarismoaren aurrean alternatiba, herri batek beharrezko dituen eta hiritar gehienek esku dauden beharrezkoen (giza eta pertsonen eskubideak, sistema sozial justua, bizi kalitatea, heziketa librea izateko eskubidea, patriarkalismoa gainditu, inguruarekiko errespetua) defentza datza.

Euskadiko Kontzientzi Eragozleen Alkartea
Asociación de Objetores/as de Conciencia de Euskadi
AOC-EKEA

Euskadiko Kontzientzia Eragozleen Elkartea- Asociación de Objetores/as de Conciencia (AOC-EKEA), 1988. urtean, kontzientzia eragozpenaren bidetik bakea lantzeko asmoarekin sortzen da. Horretarako taldeak, bere sorreratik, Ipar-Hego politika, Armen industria eta Kontzientzia Eragozleei eman beharreko babesaren inguruko hainbat lan, batzar eta ekintza publiko garatzen ditu. Geroago, eta Kontzientzia Eragozpenak jasan duen garapenaren ondorioz, Eragozpen Fiskala (EF) eta Bake Heziketa bezalako beste gai batzuk lantzen hasi gara.

Sortu ginen momentutik, eta gutxi gorabehera gure ideiak hedatzen dituzten erakunde eta elkarte desberdinekin, dokumentu, plataforma eta ekintza desberdinen sortze eta zainketan elkarlanean bultzatu dugu. Ekintza guzti hauen azken helburua, kontzientziario soziala lortu eta bakea eragozten duten injustizia sozialak salatzeko da. Honez gain baita, desmilitarizazioa bultzatu eta aberastasunen banaketaren inguruan jarraitzen diren politika ekonomiko eta justizia sozialaren inguruan erreflexio eta azterketa sorrarazteko kimuak bultzatu dugu. Modu honetan, gizarte osoarentzat, bai lehenengo, bigarren, hirugarren zein laugarren munduarentzat aldaketa ekonomiko, sozial eta politiko justu eta solidarioagoa eragingo duen mugimenduen korronte bat sortarazi nahi dugu. Azken finean, gure asmo eta gogoia, gizarte eta pertsona bakoitzean, esparru orokorra zein bakarra lantzea dira.

Erizpide hauek jarraituz, MOC eta KAKITZAT-ekin elkarlanean egindako ondorengo lan hau aurkeztu nahi dizuegu. Lan honen bidez, bake heziketa eta honen inguruko eztabaida kreatibo bat sortarazi eta ikuspegi berri bat plazaratu nahi dugu.

AOC-EKEA

Kakitzat-Euskal Herriko Koordinakunde antimilitarista

Kakitzat, Hego Euskal Herriko talde antimilitarista desberdinak osatutako koordinadora da. Berez, taldearen sorrera Gipuzkoan ematen da, 80.hamarkadaren erdialdean, OTAN-en aurkako eta objezioaren aldeko lehen mugimenduen inguruan sortzen da eta Insumisio estrategiarekin koordinadora antimilitarista bezala eratzen da.

Nahiz eta bultzatzen den estrategia insumisioaren ondorioz, herri eta auzo desberdinetan talde insumisio bezala ezagutu, berez taldeak antimilitaristak dira. Insumisioa gai garrantzitsua eta lan esfortsu handiena exigitzen digu, baina horrek ez du esan nahi lan bakarra denik. Taldeen lana, desobedientzia estrategiaren inguruan informazioa, azalpena, eragin eta ematen diren errepresio egoeraren aurrean salaketa bultzatzean datza. Ekintza guzti hauek, soldaduzkaren aurkako eduki asko dute, baina ejerzito eta militarismoaren gaiak ezagutzea ezinbestekoa da gure strategiaren arrazoiak azaltzeko. Guzti honez gain, antimilitarismoaren inguruko beste arlo batzuk ere lantzen ditugu: desmilitarizazio soziala, gastu militarra eta gerrateetan ematen diren inbertsioen salaketa, besteak beste.

Kakitzaten ideiek gehien bat, taldeek beraien ingurunean erabiltzen dituzten dinamika desberdinak kondizionatzen dituzte, ia talde guztiak bere izena izateaz gain Kakitzat bezala agertzen dira. Pluralitatea eta ideien desberdinen kontrastea oinarritzko eta ezinbestekoa da Kakitzat-entzat, ideien garapen bat eman dadin. Erabiltzen dugun estrategia ez-biolentzia da eta gure ideiak era honetan zabaldu behar direla uste dugu.

Gure oinarritzko gogoeta gizarte desmilitarizatu bat lortzean eta ejerzitoaren aurkako ideia azpimarratzean datza. Militarismoak, ados ez gauden zenbait balore eta faktore bultzatzen ditu: obediencia itsua, sumisioa, sexismoa, homofobia, jerarkiak, pentsamendu bakarra eta batez ere biolentzia fisikoaren bidez desberdintasun sozial eta politikoen mantentzea, gutxi batzuen mesedetan.

Helburu utopikoa izateak, ez du esan nahi helburu errealik ez dugunik, besteak beste, kontzientzi antimilitarista eta kritikoaren zabalkuntza gaur egungo gizarte eta munduko aspektu militarrekiko. Mugimenduari esker lortutako derrigorrezko soldaduzkaren desagertzea bezalako aurrera pausu txikiak egingo dute posible gizarte desmilitarizatuaren lorpena.

Koordinadora antimilitarista honek azken baten, ejerzito eta militarismoaren gabeko mundu baten alde lan egiten du. Azken batean, ezer ez da aldatzen aldatu behar dela ez bada pentsatzen.

1go atala



1.- Militarismoa

Gerra betiereko elementua izan da Historiako bilakaeran. Potere esferetatik gerra ekintza politikoaren jarraipen gisa erabili da, oso ezaguna den lelo baten plasmaketaren bitartez: "Bakea nahi baduzu, presta ezazu gerra". Baieztapen honen atzean, pertsonen, komunitateen edo Estaturen arteko menpekotasun harremanen emaitzak diren oso interes desberdinak izkutatatu dira. Horren ondorioa borondate menperatzaile horien inposaketa izan da, sarraski eta txikizioaren bitartez. Honek guztiak gerraren instituzionalizatzea ekarri du. Estatuak aurrekontu publikoetatik diru mordoak erabili dituzte haien indar militarra handitzeko, eta gaur zaila izango litzateke haien egitura zentralak prozesu hau kontutan hartu gabe ulertzea. Horregatik gerraren prestakuntzaren ekintza, MILITARISMOA, zamarik handienetakoa izan da giza harremanen eboluzioan. Estatu arteko erlazioetan maxima hauek beti egon dira indarrean, ustez berak ebitatzeko sortuak ziren nazioarteko egiturek gelditu ez dutelarik. Estatuaren interesak giza eskubideen gainean egon dira, eta konponketa belikoak erantzunbide pazifikoa garaitu du. Indar militarra nazioarteko harremanen gakoa izan da, ta birrarmatzea konstantea izan da munduan eragina lortu nahi izan duten herrialde guztien aldetik. Bere adierazpenik larriena Bigarren Mundu Gerraren ostean helduko da, Historian inoiz lehenago ezagutu ez zen munduaren bi bloke armatutako banaketarekin.

2.- Gerra hotza

Estatu sistema bipolarra militarizazioaren aurregabeko garapenerako eskenatoki ideala izan zen. Bi superpotentzien suntsipen gaitasuna imajinatu ezinezko punturaino heldu zen. Beren potentzial militarri esker herrialde guztiak bildu zituzten haien inguruan ta mundu osoan zehar zabaltu zuten beren sare militarra: Arma laguntzak, inbertsioak, atzerriko lurraldeetako base edota tropen presentzia... azken finean, konplexu militar-ekonomiko handien garapena. Dinamika honek zerikusi handia izan zuen Hirugarren Munduko herri askok potere militar handi baten konfiguraziora jo zezaten, alineamendua eta herri bakoitzeko klase nagusien laguntza bilatu zelarik. Egoeran honen ondorioak oraindik ere ordaintzen dira gerra zibil, zorpetze, estatu kolpe edo erregimen autoritarioen sorketaren bitartez.

Bi superpotentzia nuklearren suntsipen gaitasuna ustegabeko neurrira heldu zen. Entramatu hori mantentzeko babes ideologikoa, bi gizarte eredu desberdinen arteko enfrentamenduan oinarriturik (kapitalista ta sozialista deiturikoak), maila jasanezinera heldu zen propagandaren bidez. Eragin handienetarikoa jasan zuen eskenatokia Europakoa izan zen, orduan esistitzen ziren bi Aliantza militarrek, NATOk zein Barsobiako Itunak, bertan finkatu baitzituzten beren estrategia nagusiak.

Hala ta guztiz ere, "euritako nuklearra" zabaltzearekin mugimendu bakezaleak oso erantzun indartsua izan zuen Mendebaldeko Europan, horren kontrako iritzi publikoa mugiarazi zuelarik, horrela argi utziaz kontinente horretako herrialdeak EEBBen estrategien menpean zeudela eremu militarrean.

Gerra hotza amaitu zen arte, ia mende erdiak iraun zuen karrera armamentistiko ero honek.

3.- Nazioarteko eskenatoki berria

Historiaren bilakaerari jarraituaz, norbaitek pentsa zezakeen Gerra Hotza deiturikoaren amaierak bake denboraldi iraunkor berria ekarri duela. Hau ez da batere horrela gertatu; indar militarrek ez dio utzi Estatu arteko ta Estatu barruko harremanetan pisu handia izateari. Gaur egunean nagusitzen dena zera da: munduko potentzia militar-ekonomikorik handienak, EEBBek, komandaturako bloke baten guztizko menperakuntza. Nazioarteko orden berriarentzat militarismoa oraindik ere delako bera mantentzeko zutabe nagusietako bat. Zalantzarik gabe, Estatu gutxi batzuen gehienek gaineko aginte harremanak ezingo litzateke mantendu oinarri hau kenduko balitzaio. Hortik, "nazioarteko ordena"z baino, "nazioarteko desordena"z hitz egiten dugu Estatu arteko erlazioen militarizazio jarraiaeren lehenengo ondorio bezala. Praktika derrigorzaleen bidezko erlazioak desordena inpliziturik daraman egonkortasun irudi aparentean oinarritzen dira.

Bloke sobietarraren desagertzea, 80etako hamarkadaren amaieran, egoera guztiz berria sortu du. Munduko bipolaritatearen desagertzea dinamika militarista berriak agertarazten ditu; egoera desberdina izan arren, haiek ez dute galtzen beren pisu espezifiko nazioarteko harremanetan.


Eskenatoki berri honen pautak nagusiak azalduko ditugu gainerik:

- 1) Mendebaldeko blokearen guztizko nagusitasuna (Estatu aberatsak, EEBBak haien buruan). Orden Berri honen betebeharrak Mendebaldetik kopiatutako eredu "demokratiko"en oposizioarik gabeko inposaketan oinarrituta daude, mantentzen badira ere egitura estatal bortxazaleak, desberdintasun sozial sakonak, eta merkatu ekonomiaaren hedapena ekonomi sistema nagusiaren paperan.
- 2) Munduko eragin ta dominazio ereduak, nazioarteko merkatu ekonomia status pribilegiatuaren bilaketan oinarriturik daude. Hortik hiru bloke komertzial handiren eraketa: Europar Batasuna, Iparramerika eta Japonia-Asiaren Ekialdea, guztiek beren eragin gunearen barruko zein kanpoko esplotakuntza areagotzeko helburua dutelarik; aipatutako azkenaren eredu "mirakuloso"ari buruz zalantza handiak sortu badira ere, Asiaren Hegoekialdeko herri batzuen 1997ko kolapso ekonomikoaren ostean.
- 3) Ekialdearen etsai handiaren desagertzea munduko gatazkei aurre egiteko ikuspen desberdina ekarri du. Teoriaz, orden berria onartzen duten herrialde guztiak nazioarteko segurtasunaren partaideak dira, eta interbentzioak Nazioarteko Komunitatearen esku geratzen dira. Praktikan, oraindik ere Pentagonoa eta NATO dira komunitate horren artikulazioaren proposamenak diseinatzen diren lekuak. NBEa, bere

- aldetik, orden irxura mantendu nahi den leku zehatzei buruzko erabaki horien ejekutatzaile ta legitimatzaile bihurtzen da.
- 4) Gatazkak, salbuespenak salbu, Hirugarren Munduan baino ez dira gertatuko. Estatu aberats eta pobreen arteko zatiketa areagotzen da (Ipar-Hegoa ardatzean), eta azkenek ekonomi merkatu pautu austero ta neoliberalak jarraitu behar dituzte, G7-k, zazpi potentzia handien gehi Mundu Bankua ta FMI-ren bilketak, diru laguntzen murrizketa edo etenen mehatxuen bidez diseinatzen duten moduan. Horren ondorioz, pribatizazio politika antisozialak burutzen dira, pobrezia zama arintzen laguntzen ez dutenak. Beste alde batetik, munduko bipolarizazioaren amaierak kolonizazio garaitik eratorririko gatazkak ebitatzeko balio zuten efekto disuasorioak desagertarazi ditu, gune hauek gaurko egunean lehertzen ari diren edo laster lehertuko diren "polborin" antzekoak direlarik.
 - 5) Lehengo Bloke sobietarra mila puxkatan zatituta dago. Merkatu ekonomiaren aldeko apostua egin ondoren, bertan zeuden herrialderik prosperoenek, Polonia, Hungria ta Txekiar Errepublika, NATO-n 1999ko amaieran sartzea onartua izan dadin lortu dute, eta oso posible da laster beste batzuk ere sartzea. Zabalkuntza honen arriskurik handienetakoa Ekialdeko beste herrialdeen isolaketa da, bigarren mailako europar bihurtuko liratekeela; eta horien barruan Errusia bera egongo litzateke, potentzia militar garrantzitsua baina Mendebaldearekiko menpekotasun handia, panorama ekonomiko zein politiko katastrofikoak eta aurrikusi ezinezko etorkizuna pairatzen dituen.
 - 6) Lehengo garaiko abiadurarik izan ez bazuen ere, disuasio nuklearrak jarraitzen du oraingo nazioarteko ordena bereizten eta baldintzatzen duten elementu nagusietako bat izaten. START-1 eta START-2 desarmatze itunek iritzi publikoaren arma nuklearrekiko zorabioa baretu arren, 5 Estatu Nuklear handiek, EEBBak, Errusia, Erresuma Batua, Frantzia eta Txina, XXI mendeko eskema nuklearra diseinatzen dute oraindik ere. Gaur egunean, doktrina militar nuklearrek jarraitzen dute arma atomikoak justifikatzen, "gatazka erregionalak" neutralizatzeko atxakiaz. Arrisku nuklearrak Estatu arteko erlazioak are gehiago militarizatzear gain, potere handiagoa ematen die militarrei gatazka horien jarraipenerako.
 - 7) Nazioarteko ikuspegiak lehengo mintzaldi legitimatzaileak aldatzera eraman du. Interbentzio berriak justifikatzen dituzten argumentuak Mendebaldeko munduan nagusitzen diren balore eta praktikak (demokrazia errepresentatiboa, merkatu askea, giza eskubideak) dira. Lehen baino gutxiago bada ere, jarraitu egiten da etsaiak sortzen eta mitifikatzen (Gadafi edo Saddam Hussein efektuak, islamismo erradikala edo etnia abertzaletasuna). Diskurtso hauen hedapena ez da indar berberaz bizitzen Estatu potetsuen biztanlegoetan, eta honek indarraren erabileraren justifikazioa eragozten du, batez ere herrialde bera ukitzen ez badu. Bestalde, 1991ko Golkoko Gerra eta 1998 hasierako Iraken kontrako erasoak jakinarazi digute nolakoak izan daitezkeen etorkizunean gerrak legitimatzeko asmoz eginiko manipulazio informatibo eta irudi kanpainak.
 - 8) Nazioarteko eskenatoki berrian ez da abaztu behar "barruko etsaiaren" figura, Estatu teknologikoki aurreratuek kontrol sozial zehatzaren bidez neutralizatu nahi dutena. Gizarte informatizatuaren "subertsibo" edo "okertua" den guztiaaren polizi kontrolak zerikusi handia dauka Estatuaren edozein ekintza sozial, politiko edo kulturalen zentralizazio informatikoarekin.
 - 9) Honi gehitu behar zaio Estatu aberatsen kezka handienetako bat: Hirugarren Munduko populazioaren Mendebaldeko migrazioak, gose, mixeria, diktadura ta gerretatik ihesean. Honen Aurrean estatuen praktikak atzeritartasun lege murrizkorren inplantaketa edo uholde hori gelditzeko polizien lan errepresiboaren koordinaketan (Interpol, Schengen) eta baita ere tropa edo diplomatikoen bidalketan (Albania, Zeuta eta Melilla) oinarritzen dira.

4.- Orden militarra

Bitxia da ikustea sistema ekonomiko kapitalistaren egonkortasuna arriskuan jartzen zuen bloke sobietarraren desagertzearen ostean,



Mendebaldeko blokea bateratzen zuten loturak apurtu egiten direla, Europa, EEBBak eta Japoniaren arteko konpetentzia ekonomiko, teknologiko eta komertzial gogorrari bide eginez. Nazioarteko merkatuetan hedatzeak irabaztea dakar, eta hedapen hori heltzen deneko herrien egonkortasun politikoa ezinbesteko baldintza da horretarako. Hemen lortzen du bere garrantzia indar militarrek, potentzia militarren paperak Hirugarren Munduko dinamikak kontrolatzen laguntzen duelako. Herrialde hauetako gatazkak kontrolatzen dira gune horietan interesak dituzten Estatu aberatsen botere militarren indar disuasorioen bidez.

Hortik uler daiteke zein garrantzitsu den EEBBentzat bere indar militarra areagotzea munduan beren poterea mantentzeko. Eta are gehiago oraingo egoeran, bere abantaila ez baitatza bere produkzio egituran, bere ahalmen militar handian baizik. Bitartean beste blokeak ezin dira arztean geratu indar militar handia lortzeko lasterketa honetan. Hezkunde militar autonomorako asmoa Europar Batasunaren hurrengo urteetarako helbururik nagusienetakoa da. UEO-ren NATO-ren barruko zutabe paperaren indartzea mende honetako apostu militarrik garrantzitsuenak dira. Japoniaren kasuan, azken urteetan bizi izandako birrarmatze prozesua geldituta gera daiteke 90etako hamarkadaren azkenean pairatzen ari den ziurgabetasun ekonomiko dela eta.

Joera lokal hauek ez zaizkio kontrajartzen nazioarteko segurtasun bateratua diseinatzeko beharizanari. Aldiz, ahalmen militarrek kontzepzio



horren diseinuaren potere maila neurtzen du. Bertan NATOk protagonismo handia lortzen du oraingo nazioarteko ordenean afer militarrek kontrolatzen dituen erakunde bezala. Egitura horrek munduko desberdintasun politikoen eta gaurko harreman ekonomikoen kontrako "segurtasun gerriko" bezala balio duten pautu militaristak markatzen ditu. Gerra Hotzean NATOk Europarako arrisku sobietarraren aurkako babes eta disuasio funtzioa gainditzien bazuen, gizarte eredu zehatz baten superpotentzia militar bihurtuaz, gaurko egunean paper hori oraindik indartuago dago. Ta arlo honetan lider argia dago, EEBBak, eta aspirante batzuk, UEO, zein bide jarraitu behar duten (potentzia militar handia eratzekeoa -Euroarmada- edo EEBBetakoa) erabakitzeko arazo handiak dituztenak.

Zentzu honetan Mendebaldearen hegemonia militarrek ez du inolako arriskurik, propagandak bestelakoa esaten badu ere. Potentzia handiek beren menperakuntzaren kuestionatze saialdi guztiak gelditzen dituzte. Arlo nuklearrean 1995an egin zuten, Ez-Ugalketa Nuklearrarekiko Hitzarmena prorrogatuz, potentzia handien (EEBBak, Frantzia, Erresuma Batua, Errusia eta Txina) hegemonia nuklearra sendotu zenean, horrela Hirugarren Munduko herrialdeei arma nuklearrak lortzeko bideak itxiaz. Promes bakarrik armamentu nuklearraren murrizte hipotetikoa eta helburu zibiletarako teknologia nuklearraren transferentzia izan ziren. Beste arlo militar batzuetan, NBEaren Segurtasun Kontseiluan duten beto ahalmenak munduko segurtasunaren benetako diseinatzaileak izatea bermatzen die.

Hala ere, Nazioarteko Orden berriaren globalitatearen egonkortasunak komunitate osoaren parte hartzea eskatzen du, Hirugarren Munduko herrialdeak barne. Azken urteetan ikusi ditugu nola integratzen ziren Hegoaldeko herrietako armadak nazioarteko misioetan, beti EEBB gendarme handiaren begiradapean. Nazioarteko komunitatearen partehartzearekin legitimitate handiagoa lortzen dute nazioarteko ekintzek, eta gastu militarrek banatu egiten dira.

Dena den, planteiamendu teoriko hau eragozpen asko pairatzen ari da. Adibiderik argiena NBEak azken urteetan sofritzen ari den krisi gogorra da, batez ere ekonomikoa dena (EEBBak zordun nagusia izanik). Potentzia handiek ez dute konfidantza handirik erakusten segurtasun kontuak nazioarteko komunitatearen esku uzteko orduan. NBEaren ikuspen instrumentalista da Estatu aberatsen jardueratik eratorritzen dena. Adibide bat 1998 hasierko Golkoko krisian izan dugu; EEBBek hasitako nazioarteko eskuhartze militarreko legitimazio bila, NBEaren Segurtasun Kontseiluaren ebazpen bat erabiltzen zen, 7 urte horietan gertatutako aldaketa guztiak gora behera.

Honela, Nazioarteko Orden berriak bere lehenengo kontraesanak sofritzen ditu. Beren helburu globalak munduko edozein gatazkatan


interesatzera mugitzen ditu, eskusartze "humanitario"en bidez -Ruanda, Somalia, Bosnia- edo zuzenean militarrengatik, aberastasunaren alde - Golkoko gerra-; baina Estatuaren interesak misio hauetako izaera globala baino lehenago daude. Lehenengoaren inguruan, goseteak edo sarraskiak ezabatu nahi antza dituzten Eskuhartzeko Humanitarioek, barruko arloan ejerzituen paper berriaren esistentzia legitimatzen du, eta kanpoko arloan, nazioarteko komunitatearen identifikazioa sortzen du, bere izaera "solidario" eta "eskuabala"rengatik. Bigarren puntuaren inguruan, nazioarteko eskuhartzek sistema internazionalaren interesaren eta Estatuaren arteko koordinazio arazo handiak sortzen ditu. Teoriz denek nahi dituzte lehenengoak ordezkatu, baina askotan bigarrenak dira inposatzen direnak. Etsai handiaren faltan, Estatuak konpetitu egin behar dute. EEBBtarako Golkoko azken krisian bere "mundu polizia"ren paperaren egiazaketa zena, Frantzia edo Errusiarentzat gune horretan dituzten interes ekonomiko handietarako eragozpena zen. Laku Handien gerran argi geratu da hutu eta tutsi etnien arteko sarrakien bortiztasunaren atzean bi mundu potentziaren babesa zegoen (Frantzia eta EEBBak) Afrikako haien eragin gunea mantentzeko.

Baina Mendebaldean, batez ere Somaliakoa bezalako eskuhartzeko batzuen esperientzia txarraren ostean, zalantza handiak sortzen dira horiek egiteko orduan. Nazioarteko Polizi paperak EEBBak munduko edozein gatazkako begiratzailer bezala jokatzera behartzen ditu; dena den, hasten ari da baloratzen gatazketan parte hartzeko beharrezina bakarrik Nazioarteko Segurtasuna mehatxatzen dutenean edo zuzenean beren interesak ukitzen dituztenean. 1997ko Pentagonoaren informe batek mundu arrisku nagusi bezala ikusten zituen "Gatazka erregionalak ekar ditzaketen nazionalismo erradikalak, arma kimiko edo biologikoak erabiltzen dituzten eraso terroristak, eta sare informatikoetako delitu eta sabotaiak". Txosten berak 2010 urterarte iraun dezakeen "pauza estrategikoa" ireki dela kontsideratzen du, zeinean herrialde batek ere ezin izango duen EEBBen papera desafiitzea. Ez dirudi datozen urteotan Nazioarteko Orden berria politika eskuhartzailer sortzen dituzten kontraesanetatik hain erraz irten ahal izango denik. Pobrezia eta bazterketarantzko joera geldiezinak Hirugarren Munduko gune askotako gatazka giroaren indartzea ekartzen du, eta herri eskuhartzailer biziaren oposaketak, are gehiago austeritate ekonomiko handiko garaian, gehiago eragozten du proiektu hori.


Baina ziur gaude Nazioarteko Segurtasunaren kontzeptio honek ez duela Militarismoaren indarra gelditu, mundu ordenamenduaren babes nagusietakoa izan dadin nahikoa indartu baizik. Horrela erakusten dute bere adierazpiderik esanguratsuenek:

4.a) Gastu militarrek eta Indar Armatuaren Modernizazioa

Munduan azken urteotan ematen ari den gastu militarren murrizketa lotsagarria dela esan daiteke. Datu batzuek honen kontrako iritzia ematen



dutela esan zitekeen: 1987tik 1992ra, iturri militarren arabera, munduko gastu militarrek 120.000 milioi dolarretan murriztu ziren; EEBBtan 1992 eta 1995 artean %21 murriztu zen, eta 1997an 1996koa baino %6 gutxiagokoa izan da; azkenik, Errusian 1992an %30 baxuagoa izan



zen. Pakete honetan ezin dugu Estatu Espainola sartu, indar armatuak berritzeko eta Europako mailara eramateko asmoz datozen bost urteetan bilioi erdi pezetatan handitu nahi baitu bere aurrekontu militarra.

Baina kontutan hartzen badugu munduko gobernuak 868.000 milioi dolar gastatzen dutela urte bakoitzean 27 milioi soldadu duten indar militarrek mantentzeko, gastu militarra munduko aurrekontu osoen %12ra heltzen dela, EEBBek defentsa gastuetan bilioi laurden dolar erabiltzen duela (1980an baino %20 gehiago), edo 1987tik eman den gastu militarren murrizketaren %80a Barsobiako Itunaren kide ohien mozketa drastikoengatik gertatu zela, murrizketa horrek txantxetako ematen du. Gainera etorkizunean proiektu militar erraldoiak aurrikusten dira, hala nola Eurofighter delakoa, Europako herri batzuen artean burutuko dutena (Estatu Espainola barne), eta 8 bilioi pezetatan baloratuta dagoena.

Agerian utzi behar da murrizketa honek pertsonal gastu, soldata, karga sozial, eguneratze edo mantenimendu kredituen jeitsiera ari dela afektatzen batez ere, arma sistemen garapen edo erosketaren alde, ekipamendu kredituen bitartez.

Hirugarren Munduan, murrizketak askoz txikiagoak izan dira, urteko %2koak gutxi gora behera, 221.000 milioi dolar destinatuz indar armatueta, horrek suposatzen dituen kalte sozialekin, eta bertan armak esportatzen dituzten herriak mesedetuenak izan direlarik, ikusiko dugunez.

Aurrekontuetako murrizketak ez du baretu lasterketa armamentistikoaren berritzea. Azken urteotan desarmatze nuklearrerako (START II) edo armamendu arrunta mugatzeko (1990) akordioak egin badira ere, Mendebaldeko potentzia handiek arma desberdinen ekoizpena jo dute, ez hain ugariak baina sofistikatuagoak. Norabide aldaketa ematen ari da arlo horretan, industria aeronautiko, espazial eta elektronikoen alde (arma "inteligenteak", laserra, logistika, etab.). Golkoko Gerraren eskapateak gerra modernoaren adibide argia izanzen, suntsipen masiborako teknologia altuko arma ez nuklearren bitartez, bikrima irakiar kopuru itzela baina aliatuen oso baja gutxi izatea lortu zutenak. Arma nuklearrei

El coste de la guerra

Operaciones de mantenimiento de la paz de Naciones Unidas

En millones de pesetas	Comienzo de operaciones	Coste hasta 1997-98	Presupuesto 1998-99
• Organización para supervisar la tregua (Oriente Próximo)	1948	79.800	4.050
• Fuerza en Chipre	1964	139.200	6.750
• Retirada de la fuerza de observación (Israel)	1974	107.400	5.250
• Fuerzas en Líbano	1978	423.900	21.450
• Misión de observación Irak - Kuwait	1991	62.250	7.800
• Misión en Bosnia-Herzegovina	1995	46.200	28.500
• Misión de observación en Angola	1997	20.250	6.900
• Misión en la República Centroafricana	1998	3.450	4.350

Conflictos

En miles de millones de Pta	Coste	Millones de Pta
• I Guerra Mundial	427.500	• Misiles y bombas: 47.500
• II Guerra Mundial	600.000	• Operaciones de apoyo aéreo: 50.000
• Guerra de Corea	51.000	• Pérdida de aviones: 7.425
• Guerra del canal de Suez	1.950	• Fuerzas de la OTAN: 7.500
• Guerra de Vietnam	108.000	• Operación humanitaria: 27.500
• Guerra de los 6 días, países árabes - Israel	150	• Total calculado hasta el momento: 156.425
• Guerra Yom Kippur	3.150	
• Guerra de Afganistán	17.400	
• Guerra Irán - Irak	22.500	
• Guerra de las Malvinas	750	
• Guerra del Golfo	15.300	

A. N. / EL PAÍS

buruz, EEBBak eta Errusia datorren mendera 10.000 arma atomikorekin helduko direla kalkulatu da, eta antzeko kopurua erreserban, desmantelatzeko. EEBBetan prezio handiko arma nuklear "kirurgiko" en belaunaldi berria lantzen ari da, "kalte kolateral" gutxi eragingo dituztenak. Hirugarren Munduko herri erasotzaileen misil nuklear edo arma biologiko edo kimikoen erabilera saihesteko erabili direnak. Modernizazio prozesu honetan, Indar Armatu berriztapenak protagonismo berezia hartzen du. Datozen ejerzitoek profesional izatera jotzen dute; gainera erakunde kideak izango dira -NATO, Euroarmada, NBE- eta ahalmen operatibo ta teknologiko handia dute, batez ere arlo aeronabalean. Modernizazio honek efektiboen murrizketa eta berrestrukturatze estrategiko garrantzitsua daramatza. Haietan Ekintza Arineko Indarrak nagusitzen dira, desegonkortasun gune zehatzetan esku hartzeko prest, oraingo munduko gatazken ezaugarrien arabera. Espezializaziorako joera honek gizarte zibilaren edozein gaitzespen edo kritikatik aldentzen ditu. Eskuhartze militarren biktimek ez dute eskandalu sozialik eragiten, behintzat gatazkaren iraupena asko luzatzen ez bada. Eskuhartzeek, humanitarioek edo militarrek, nazioarteko erakunde baten prismaz ikusita, gizartearen deslegitimatuak izateko eragozpen gehiago sortzen dute. Kontuan hartu behar da ere egoera berri honetan ejerzitoen herrialde baten barrurako funtzioak ia desagertzen direla, polizi indarrek ordezkartzen dituztelarik, arbuio gutxiago sufritzen dutenak, baina gero ta gehiago militarizatzen direnak, eta biztanlegoaren guztizko kontrola izateko prest daudenak.

4.b) Konplexu militar-industrial

Gaur egunean nabaria da gastu militar txit altuen eta indar armatu gogorren ondorioak ezin direla soilki etorri mundu perspektibetik edo estatuen interesetatik. Beste mediazio batzuk daude gastu horien diseinuan. Haien erabilerrari begira, Indar Armatuak; haien ekoizpenari begira, industria militarra. Militarrek armamendu sistemen inguruan antolatzen dira, gerraurreko egitasmoak diseinatu ta ahalik eta arrisku eta etsai kopuru handiagoa seinaltatu behar dutela, beren egoera indartuta gera dadin. Industria militarrek gobernuak presionatuko ditu proiektu militar gehiago egin dezaten, horrela etekin handiagoak lortzeko.


Askotan, industria armamentistikoaren benetako kostea kalkulatu nahi denean, ez da kontuaren funtsa heldu; industria horren alboko gastuek koste handiagoak sortzen dituztelako propioi militarren direnak baino. Hor daude instalazio edo material militarren desmantelamenduaren gastuak, ingurugiroa ukitzen dutenei buruz ez hitz egiteko, askotan atzerazinezko ondorioak dituztenak.

Momentu honetan, birmoldaketa prozesu logikoa pairatu arren, arma ekoizpenak jarraitzen du edozein herrialdeko interbentzio industri sektorerik inportanteenetakoa izaten. Arlo honetan enpresa estatubatuarren potentziala erraldoia da. Beren merkatu kuota 55.000 milioi dolarrekoa da, munduko hamar defentsa enpresa handienetik zazpi herri horretakoak izanik. Izan ere, enpresa hauen eragin maila EEBBetako gobernuaren armen salerosketan susmaezina da. Azken adibidean, Clintonek Latinoamerikako herrialde batzuen EEBBetako hegazkin militarren salmentaren debekua altxarazi egin du, ta hor zeirukusi handia izan du senatore ta kongresista batzuei enpresa militarretatik heldutako dirutzak. Europako gobernuak ere ez dira atzean geratu. Gerra Hotzaren amaieratik ez dira ia gutxitu bere defentsarako teknologi

eskaerak, batez ere osagai elektroniko eta informaziozkoa zuten prezio sistema konplexuen inguruan.

Industria honen birmoldaketa garrantzitsua, enpresen fusio ta kontzentrazioarako joera oso indartuan oinarritzen ari da. Europako industriak azkenean erabaki du bere indarrak batzea, enpresa estatubatuarrek sektore horren monopolioa lortzea saihesteko, ta herri bakoitzeko enpresa nagusiak lehenengo pausua ematen ari dira industria bakarraren eraketan. Estatu Batuetan, enpresen fusio prozesuak oso urrats arina darama. 1989an sektorearen 10 enpresek Pentagonoaren urteko kontratuen %29a lortzen bazuten, orain proportzio hori %40ra heldu da, ta 2000 urtean %50koa izatera hel daiteke.

Sektorearen birmoldaketaren beste ondorioa lanpostu murrizketa garrantzitsua da. Frantzia bakarrik, 1995 ta 1997 artean 50.000 inguru lanpostu galdu dira. Estatu espainolean, murrizketa prozesurik inportanteena 1987 ta 1995 urteen artean sofritu da, sektorearen %65a ukitu



duena; hau da, 35.639 lanpostutik 13.000era pasatu da.

Enpresa hauek bizi izan duten zalantza aldi honen ostean, beste urrezko aro bat bizitzen hasten direla ematen du. Etorkizunerako, ejerzitoak modernizatzeko egitasmoak dedikatutako milioietako kontratuak iragartzen dira. Adibide argia da EEBBetako datorren gudu hegazkina, 2008 urterako lanean egon daitekeena, 93 bilioi pezetako zifra erabiltzen dituen, atzerrietako salmentak barne. Estatu espainolaren kasuan defentsa industriak aurrekorik gabeko aroa bizitzen ari da. Datozen 10 urteetan 2 bilioi pezetako inbertsioa egingo dela kalkulatu da. Hiru programak, Eurofighter edo Europako gudu hegazkinak, F-100 Fragatak eta Leopard tankeak, 1.4 bilioi pezeta suposatuko dute, 100.000 milioi urtean. Ez da harritzekoa gogoratzen den armamenduko esfortzurik inportanteena kontsideratzea. Hori bai, Defentsa ministeritzaren aurrekontuan ia ez da nabaritzen, Eredue Alemanari jarraituaz, armamendu gastu hauek Industria ministeritzaren barruan daudelako, honen aurrekontua %131.3 handituta ikusi delarik. Defentsa ordaintzen hasiko da lehenengo tanke edo abioia lortzen duenean.

Industria hauetako ongialdi honen lehenengo ondorioa sektorearen poterearen hazkuntza da, gobernuaren inbertsioetarako presio handiagoa

suposatzen duena, eta horrela defentsa aurrekontuen handipena, lehen aipatu bezala, beste sektore batzuetara desbideratu arren. Konplexu militar-industrial gastu militarren iraupean indar faktiko bihurtzen da, eta espainola bezalako gobernuak inbertsioak gehitzearen aldeko apostua egiten dute, beste arlo batzuetan azken urteetan sofritutako murrizketa presupuestariak gora behera. Argi dago dinamika honetan kalte gehien hartzen dutenak beharizan sozialei dedikaturako aurrekontu partidak direla.

4.c) Munduko arma komertzioa

Munduko arma komertzioa militarismoaren alderik mingarrienetakoa da. Armamendu esportapenak arau etiko guztiak apurtzen ditu, eta sekretismo eta zinismoetan babestuta, mundu ordenaren aurpegiak krudelena erakusten ditu.

Bi dira komertzio kontrolaezin honek sortzen dituen ondorio nagusiak:

4.c.1) Herrialde esportatzaileen eta beren sektore industrial-militarraren erekin ugariak

4.c.2) Hirugarren Munduko herrialdeen militarizapen eta zorpetze sakona

4.c.1) Herrialde esportatzaileak


Argi dago mesede gehien hartzen dutenak potentzia handiak direla. Gaurko egunean, gutxi gora behera, herri azpigaratuarako arma salmenten %90a Estatu industrializatuetatik doa. 1994 urtean, munduko arma arrunten saltzaile nagusiak hauek izan ziren: EEBak %55, Alemania %14.6, Erresuma Batua %7.3, Txina %5.5, Errusia %3.9, eta Frantzia %3.2. Zifra hauetatik Errusiako datua engainagarria da, bere industria militarren birmoldaketa eta pribatizazio prozesu zail baten ostean bere lekua berreskuratzea erabaki duelako, 3.000 milioi dolarreko balioko armak esportatuz, aurreko urtean baino %80 gehiago.

Salmenta murrizketa prozesua bere akordioak berak errespetatzen ez dituen konpetentzia desbokuak lagunduko du. Munduan dauden

La OTAN se amplía

Tres países ex comunistas ingresarán formalmente hoy en la Organización del Tratado del Atlántico Norte (OTAN).

■ Los miembros de la Alianza



■ El poder de la Organización

Pais	Gasto en defensa 1997 (%)	Fuerzas Armadas 1998
EE UU	3,4%	1.518.000
Turquía	4,2%	833.000
Francia	3,0%	449.000
Italia	1,9%	402.000
Alemania	1,6%	333.000
R. Unido	2,8%	216.000
Polonia	2,3%	207.000**
Grecia	4,6%	202.000
España	1,4%	189.000
Portugal	2,6%	75.000
Canadá	1,3%	61.000
Rep. Checa	2,2%	58.000**
Holanda	1,9%	57.000
Hungría	1,4%	43.400**
Bélgica	1,6%	43.000
Noruega	2,3%	33.000
Dinamarca	1,7%	25.000
Luxemburgo	0,8%	1.000
Islandia	n/d	n/d
Total	2,2%	4.745.400

* Como porcentaje del PIB, 1997

** A 4 de marzo de 1999

Fuente: OTAN.

EL PAÍS / REUTERS

GASTOS INESPERADOS

La crisis de los Balcanes (En millones de dólares)

Fuente: Fondo Monetario Internacional

Concepto	Duración del conflicto	
	Hasta finales de año	Hasta mitad de año
Necesidades de financiación exterior (*)	1.826	807
Impacto sobre el PIB (%) (*)	-5	-1.5
Necesidades de financiación para ayuda humanitaria (*)	311	139
Impacto sobre la balanza de pagos (*)	1.515	608
Impacto sobre déficit presupuestario (*)	652	308
Número de refugiados	649.000	262.000

(*) Albania, Bosnia, Croacia, Macedonia y Rumania (excluidos Hungría y Yugoslavia por no pertenecer al RAI)

El coste de la guerra (En millones de euros)

Fuente: Comisión Europea

Concepto	Duración del conflicto	
	Cuatro meses	Nueve meses
Ayuda humanitaria	315	722
Deficit público (*)	278	688
Deficit exterior (*)	602	1.369
Reconstrucción (*)	2.310	3.240

(*) Albania, Bosnia, Croacia, Macedonia, Rumania y Bulgaria

El dinero de la OTAN

Aportación al presupuesto (%)

Fuente: OTAN



sektore komertzialen artean deskontrolatu, ilun eta krudelena da hau. Dauden arauak lotsarik gabe saihesten dira (hala nola OSCEkoak, 1993an, arma arrunten transferentziak arautzen dituztenak, edo 1991 ta 1992an Europako Kontseiluak diktaturako erizpideak, Estatuak herri hartzailearen giza-eskubide egoera, edo gunearen egonkortasuna kontuan hartzea behartzen dituztenak). Adibiderik argiena Ekialde Erdian dugu, Golkoko Gerraren ostean plazaratu ziren armamendu salmentaren kontrol proposamen zehatzen ostean, bake mundiala arriskuan jartzen duen berrarmatze prozesua bizi delarik. Beste kasu mingarri bat Afrikako herrietan dugu, leku batzuetan erdietsitako bortiztasuna burrukan zeuden talde etnikoen armatze prozesuaren ondorioa izan baita.

Estatu espainola lerro honetan mantentzen da; 1992 eta 1992 artean material militarren esportazioak %29an igo ziren, 62.000etik 80.000 milioi pztara. Herri hartzaileak, beste batzuen artean, hauek izan ziren: Turkia, Maroko, Thailandia, Iran, Hego Korea... oinarritzko giza eskubideak errespetatzen direla esatea zaila diren lekuak. Ezin da ere ahaztu EAE eta Nafarroan, Gobernu zein Diputazioek azken urteetan mina salmentari edo gaurko egunean arma industriaren finantziarioari beren babes osoa eman dietela.

4.c.2) Hirugarren Munduko herrialdeak

Arma komertzio izugarri honen bigarren ondorioa Hirugarren Munduan bizi diren militarizazio prozesuak dira. Arma inportazioetako inbertsioak industria baino askoz arinago igo ziren. Gero ta armamendu sofistikatuagoaren erosketak, eta ejerzito erraldoien mantenimenduak, osasun, hezkuntza edo ekonomi garapenean gero ta gutxiago gastatzera darama. Gastu militarrek hezkuntza edo osasun gastuak bikoizteak dituzte, munduan 900 milioi analfabeto egon arren, edo sendatzeko errazak diren gaixotasunengatik 2 milioi ume hil arren. Aldiz, gastu militar erraldoi hauek herri askotan indar armatuek duten potere handia ekartzen dute.

Komertzio hau Estatu aberatsekiko menpekotasuna areagotzen du. Inportazioen zatirik handiena ekipamendu militarra izango da, etengabeko kreditu

eskaerak sortzen dituen, horrela jadanik altua zen zorpetzea handituz. Zor hau, kredituen presioagatik, FMI eta Mundu Bankua ekonomien zuzendari bihurtzen dira, herrialdeak hartzen dituen edozein erabaki edo konpromizearen gakoa direlarik. Potentzia handiek, gainera, "Garapenerako Laguntza Fondoak" erabiltzen dituzte haien aurpegiak garbitzeko, baina hauetatik gehienak joan ta etorriko ibilbidea daukate, eta beste gauza batzuen artean, arma komertzioa indartzeko balio dute.

Hirugarren Munduko gune handien militarizazio hazkorra, batez ere arma komertzioak bultzatua, gatazka eta gerrak biziagotzen ditu, munduan oraintxe esistitzen diren 44 gatazka armatuen mantenimendurako lagungarri delarik. Gatazka horien %80a Hirugarren Munduan kokatzen dira. 1996an bakarrik, egoera belikoei Afrikako 53 herrietatik 14 ukitu zituzten, 8 milioi pertsona errefuxiatu eta lekualdatu bihurtuaz. Tamalez, arma komertzioaren ondorioa ikusten ez den aldea da; estatu handien pobreenganako portaera isladatzen dena "exhibizio humanitarioak" besterik ez dira.

5.-GERRA GATAZKARIK GABEKO MUNDUA POSIBLEA DA.

Helburu nagusia kapitalaren pilaketa duten korporazio transnazionalen markatzen duten pausuan ibiltzen den nazioarteko ordenetik, menpekotasun eta desberdintasun harremanak baino ezin dira eratorri.

Egoera honetan, gerra gizakien izaeraren parte dela eta horregatik ebitaezina dela adierazten duen premiarekin konformatuko bagina, gutxi lagunduko genioke munduaren bakeari. Baina, aldiz, gerrak sortzen dituzten faktoreak munduan esistitzen diren desberdintasunak direla uste badugu, edo gizartearen militarizazioak status desberdinak mantentzeko erabiltzen direla pentsatzen badugu, orduan lan eremu itzela izango dugu bakea eraikitzeko.

Gaurko egunean estatuen desmilitarizazio prozesuak, barrura zein kanpora begirakoak, bake oinarri finkoak lortzeko sine qua non baldintza dira. Herrialde batzuek egunean militarizatzeko milaka milioi pezeta eskaintzen dituzten bitartean, edo urtean 20.000 milioi dolar mugitzen duen arma komertzioaren negozioarekin, bakeaz hitz egitea nahiko zentzugabea ematen du. Historiak erakutsi du inposatutako bakeak ez duela ezertarako balio. Mendeetan zehar gerraren prestakuntza bakea eraikitzeko modua izan zitekeela teorizatu da, eta horren ondorioa milaka gerra eta milioika biktimak izan dira. Munduko bakearen mantenimenduaren printzipio nagusia segurtasun militarra izan behar delako diskurtsoaren degradazio moralak ekarri duen bakarra militarismoak mesedetutakoen poza izan da, hauek konplexu militar-industrialak, nazioarteko konpainiak edo munduaren indar politikorik handienak izan direlarik. Populazioak, normalean, dinamika lazarri honen ondorioak pairatu besterik ez du egin.

Arazoi hauengatik guztiengatik, bakezko mundua eraikitzeko lehenengo eskaera nazioarteko harremanetan armen indar bortxatzailea izan behar da. Egoera horretara heltzeko bi ezinbesteko alderdi dago:

- 1) industria militarra arlo zibilera bideratzea.
- 2) arma komertzioa debekatu eta jazartzea.
- 1) Ekoizpen militarra arlo zibilera bideratzearen inguruan, birmoldaketa horren gastuak (pertsonalaren formazio eta birkalifikazioaren edo aparailu teknikoaren moldaketarenak) finantziatzen laguntzen duen borondate politiko argia behar da. Horretarako politika ekonomikoen beste kontzeptio bat behar da, enpresak Estatuaren eskaerak eta arma komertzioak bermatzen duten errentabilitate arinaren politikatik aldentu daitezkeen. Zentzu honetan, estatuen enpresa militarren saneamendu eta salmenta politikek ez dakarte sektorearen moldaketa, bere berrindartzea baizik. Inbertsio pribatu arriskugarri asko ematen ez den garaian, industria militarren diru errazak, espekulazio bidezkoa, austeritate egoera iraunkor eta hazkuntza guztiz militarizatura garamatza.
- 2) Arma komertzioa bere ondorio lazarriengatik debekatzeko ezinbestekoa da gaur bakea bilatzeko. Ez da nahikoa, betetzen ez bada ere, giza eskubideak errespetatzen ez dituzten herrietara bidaltzeko debekua. Esperientziak esaten digu armamendua dagoen edozein herritan sor daitezkeela gatazkak, ta baita ere gerraren horrorea aurkitzea posiblea dela edozein erregimen politikotan.

Gatazkari gabeko nazioarteko eskenatoki bat eraikitzeko bigarren ezinbesteko eskaera Ipar eta Hegoaren arteko esplotaketa harremanen deuseztapena litzateke. Potentzia handientzat Hirugarren Munduko herriak lehengaiz hornitzeko biltegiak eta energi zein lan-esku merkearen iturriak diren bitartean haien antisia konsumistak betetzeko edo Kapital handiaren gosea asetzeko, bakeaz hitz egitea utopia izango da. Mendebaldearen eredu konsumistak herri pobreen hustuketara dakar. Munduko kontsumoaren %80a herri garatuek betetzen badute, Hegoko herriak aberatsen beharrianak betetzeko asmoz eginda dauden eredu ekonomikoetara egokitzea behartuak dira. NBEaren Idazkari Nagusiak, Kofi Aman, Segurtasun Kontseiluaren eskariz egindako txostenean, nahiz eta izen edo errudun zehatzik ez aipatu, Afrikan petrolio eta beste lehengai batzuegatiko gatazken iraupenean atzerriko interesek erru handia daukatela aitortzen da.

Panorama etsigarri honen aurrean, beharrezkoa da harreman komertzial justuetan inplikatzeko eta Hirugarren Munduaren aldeko laguntza tranparik gabe bultzatzea, estatuen aurrekontuen portzentaiak askoz gehiago igoz eta laguntza GKE(ONG) eta beste talde sozial batzueei partehartze eta erabakitze potentzia ematen zaien biztanlegoak kontrolatutako mekanismoen bidez kanalizatuz.

Munduaren bakerako perspektiba honetan, nazioarteko komunitatearen lege markuaren sorrerak oraingoak duen izaera ez demokratiko eta mugigaitza ganditu beharko luke. Hau, esistitzen diren Estatuaren potentzia oinarriturik, herrien determinazio askearen ukatzaile eta ekonomia globalak baldintzatuz, nazioarteko harremanen kontzeptioak gatazken ugalketara darama.

Nazioarteko bakeranzko irtenbideak bilatzea gatazken benetako arrazoieta sakondu gabe, eta segurtasun kolektiboa besterik ez indartuz, bakea eraikitzeko alferrikako arikera da. NBEa, Segurtasun Kontseiluaren beto eskubideekin, potentzia handien interesen ejekututzailea da. Historian zehar anbiguetatea izan da bere erabakietako ezaugarri nabariena. Gerra Hotzean bi blokeen polarizazioak alferrikako bihurtzen zituen bere bakerako helburuak; orain, Mendebaldearen potentzia bere jarraibideak betetzera darama. Bere funtzioak gaurko nazioarteko ordenean


berkokatzeko dituen arazoak gaitututa ere, bere ezigaitasuna nabaria litzateke ez balie zuzenean aurre egingo nazioarteko komunitatean sortzen diren arazoek kauei. Ez da nahikoa gaitutzea gatazkak lehian dauden aldeak presionatzeko indar bortxatzaileak sortuz, edo gerrak biztanlegoan sortzen dituen ondorio lazarrienak gelditzen saiatuz. NBEaren erreforma berrien iragarpenak ekitntza militarren agilizazioan sakontzen dira, batez ere bake indarrak edo beste korpu eragileak zabaltzeko orduan, horrela sakoneko kontuak saihesten direlarik.

Inork ez du ukatzen eskuhartze humanitarioen beharra, irudi garbiketa ez diren bitartean, jakina. Izan ere, gatazka askotan gerrak eragindako nekeak lehian dauden aldeak Nazio Batuen mediazioa onartzera daramatza. Gerra zibil batzuen konplexutasunak, bestalde, nahikoa pesimismoa sortzen du irtenbideen bilaketan. Hala ere, helburu humanitarioa gatazkako herrietako biztanlego zibilari begirakoa izan behar da, "gerraren jaunak" aberasteko balio izan gabe.

Baina gatazken konponbidean eraginkorra izateko, nazioarteko erakunde batek, demokratiko ta berdinzalea izateaz gain, munduan desmilitarizazio eta desarmatze prozesuak sortzeko potentzia beharko luke. Horretarako gatazken sorreran militarismoak daukan garrantzia aitortu beharko litzateke. Beraz, arma komertzioaren debekua edo ejerzitoen desagerpenerako joera beharrezko baldintzak izango lirateke. Ekonomi arloan, bere eskuhartze askotan Estatu aberatsen interesen kontra joan beharko lirateke, potentzia ekonomiko handien zerbitzuan dagoen ekonomi internazionalizatuaren eredu gaitutuz, eta Hirugarren Mundua paralizatzen eta Estatu handien menpe mantentzen duen kanpo zorraren deuseztapenerako bide egokiak emanez. Gaur egunean Nazio Batuen Erakundeak paper hori betetzen duela errealtatetik ihes egitea da.

Planteiamendu hauetatik, ez da zaila ziurtatzea munduko bakerako bideak oraindik eragozpen handiak aurkituko dituela. Ez dago epe luzean gatazkak edo tensioak bide militarrek erabili gabe konponduko direlako garantiarik. Eta beste arazo bat egongo da: armen suntsidura ahalmenak gero ta laztago bihurtuko ditu datozen gerrak.

Bakearen eraikierak mentalitate eta egituren aldaketa eskatzen du. Bake ez bortxatua, pertsonen eta nazioarteko komunitateko kideen



harremanen berdintasun ta askatasunean oinarritua da. Militarismoak injustizia egoera horiek estaltzeko baino ez du balio. Horregatik praktika antimilitaristatik (Alternatiba Sozial Antimilitarista) hasi ahal dugu oraingo nazioarteko ordenaren zentzua kuestionatu ta aldarazten. Praktikak asko izan daitezke:

- Topaketa ofizialak salatzen Foro alternatiboak
- Gerra eta militarismoaren kontrako erresistentzia eta desobedientzia zibilerrako taldeak
- Desertore ta errefuxiatuei laguntzeko ekitntzak
- Zerga eragozpena
- Helburu sozial eta humanitarioak dituzten misioen buruketara
- Egitura handien aurreko antolaketa horizontala
- GKE eta beste talde sozial batzuen ekitntzen indartzea
- Ingurugiroaren aldeko aktibismoa
- Bake hezkuntzari buruzko eztabaida sakona

Ekitntza mota hauek edo beste batzuk, gizarte zibiletik eginak, ezinbestekoak dira Mundu ordenaren gaurko fisionomia aldatzeko. Historiak erakusten digu gerraren makinaria gelditzeko biderik eragileena gobernuen edozein ekitntza belikoren kontrako biztanlegoaren arbuio frontala dela.

1.- DEFENTSAREN KONTZEPTUA

1-1-Topikoak:

Gastu militarrek hain erraldoiak izan eta arlo horrek gizartearen horrenbesteko eragina eduki arren, horri buruzko desinformazioa handia da. Defentsa gaietan "arituak" direnentzat egia ukaezina da Defentsaz ikuspuntu militarretik baino ezin dela hitz egin eta hortik kanpo dagoen guztia utopia hutsa dela. Horrela militaristaz besteko errealitatek ez dagoelako irudia zabaldu nahi dute.

Esfera altuetatik ere, gaurko Defentsa ereduaren edozein aldaketari sutsuki eta printzipioz uko egiten diote. Horrela NATOtik irteteko aukera guztiak ezesten dira (berdin BAI bota zutenentzat nola EZ bota zutenentzat), Barsobiako Itunaren desagertetaren ostean bere zentzua galdu badu ere. Oaintsura arte pentsaezintzat ematen zen zerbitzu militarra deusestatzea, gazteriak kontzientzia eragozpena eta insumisioaren aldeko apostua gero ta indartsuago egiten zuen arren. Orain ere ez da posiblea ikusten gastu militarren jeitsiera progresiboa, eta are gutxiago ejerzito profesionalari ezetz esatea.

1-2- Defentsa Eredu ta Alternatiba.

Harrigarria (eta kezagarria) da aurkitzea Defentsa militarren eredu desberdinak Defentsa "alternatibak" bezala sailkatu, konparatzen diren ereduak Estatu espainolak oraintxe daukan eruditik benetako alternatiba bat izateko beste aldentzen diren ala ez aztertu gabe.

Defentsa, norbanakoak eta herriak "mehatxu" bezala ulertzen dutenetik defendatzeko balio duten edozein estrategia eta bitartekoen multzo da, mantentzen, garatzen ta egituratzen duen ideologia politiko, ekonomiko ta sozial zehatz batekin koherentzia dagoena. Printzipioz Defentsa hau ez da zertan militarra izan behar, baina tradizio kultural eta oraingo interes politikoengatik horrela ikusarazi nahi digute. Eta beraz Defentsa, gizartearen defentsa baino, Estatuaren defentsa gertatzen da; eta "mehatxuak" pribilegiatuaren egoera ukitzen dutenak baino ez dira, gizartea orokorrean kontutan hartu gabe.

Guk, oster, alternatiboaz hitz egiten dugunean, eraiki behar den kontzepzio politiko partehartzaile, ekonomiko ta sozialaz hitz egin nahi dugu, naturarekin orekan, pertsona arteko, herri arteko ta norbanakoarekiko errespetu ta justizi harremanetan eta elkartasunean oinarritutako elkarbizitza eskatzen duena.

1-3-Azterketarako parametroak:

Seguruaski kontsideratuak izateko duin izango diren beste parametro asko egongo diren arren, edozein Defentsa ereduren azterketa konparatiborako jarraian aipatuko ditugunak baliogarriak izan daitezkeela uste dugu:

1.3.1- ZER DEFENDATU?

Estatuen mugak, patriak eta bere sinboloak defendatzen dira? Edo aldiz, gizartea defendatzen da?

Guretzat inportanteagoa da giza balioak, eskubideen eta askatasunen ihardupen librea, eta besteekin eta naturarekin elkartasunezko garapen ekonomikoa defendatzea, hala nola multinazionalen, espekulatzaileen, kolonizazio kulturalaren edo komunikabideen erasoetatik defendatzea. Azken finean, gizateriaren benetako etsaien kontrako defentsa: gosea, esplotaketa, insolidaritatea, desberdintsuna, gerra, potere eta baliabideen banaketa injustua, eta abar.

Jarraian datorrena analisi bera da, baina asmo desestabilizatzailek egotzi ezin zaion erakundea den NBGParen eskutik:

"Segurtasun kontzeptua modu estuan interpretatu da denbora luzeegiaz: lurraldearen kanpo erasoaren kontrako defentsa bezala, edo kanpo politikaren bidezko interes nazionalen babes moduan, edo holokausto nuklearraren mehatxuaren aurreko segurtasun mundialaren moduan. Gehiago erlazionatu da segurtasuna Estatu-Nazioarekin jendearekin baino. Beren eguneroko bizitzan segurtasuna behar zuen jende xehearen kezka legitimoak alde batera uzten ziren. Askorentzat, segurtasunak gaixotasuna, gosea, langabezia, delitua, errepresio politikoa edo ingurugiroaren arriskuen kontrako babesa esan nahi zuen.

Azken finean, giza segurtasuna hiltzen ez den umean, zabaltzen ez den gaixotasunean, desagertzen ez den lanpostuan, indarkeriaz lehertzen ez den tentsio etnikoan, ixilarazten ez duten disidentean adierazten da. Giza segurtasuna ez da armengatik kezka soil: gizakiaren bizitza eta dignitatearen aldeko ardura da.

Giza segurtasunaren ideiak, sinplea izan arren, seguruenik iraultza bat suposatuko du XXI mendeko gizartearen.

Giza segurtasunaren oinarritzko kontzeptuaren kontsiderazioa lau ezaugarri nagusitan zentratu behar da:

1- Giza segurtasuna ardura unibertsala da. Mundu osoko jende guztia ukitzen du, herrialde aberatsetan zein pobreetan.

Mehatxu asko jende osoaren amankomunak dira: langabezia, drogak, delitua, kutsadura eta Giza Eskubideen bortxaketak. Bere intentsitate leku batetik bestera alda daiteke, baina giza segurtasunaren kontrako mehatxu horiek guztiak benetakoak dira eta gehituz doaz.

2- Giza segurtasunaren osagarriak elkarmenpekotasunean daude. Biztanlegoaren segurtasuna munduko edozein lekutan arriskuan dagoenean, posiblea da herri guztiek sentitzea horren eragina. Gosetea, gaixotasuna, kutsadura, droga trafikoa, terrorismoa, etni gatazkak eta gizartearen desintegrazioa ez dira jadanik gertaera isolatuak, nazioaren mugen barruan baztertuak. Haien ondorioak mundu zabalera heltzen dira.

- 3- Errazagoa da giza segurtasunaren alde prebentzio lasterraren bidez egitea, gero interbentzioaz baino. Adibidez, Hartutako Inmuno-Ezgaitasun birusak (HIESa) eragindako koste zuzen eta zeharrekoak 1980ko hamarkadan 240.000 milioi dolarreko igo ziren. Osasunean eta famili plangintzan inbertitutako mila milioi dolar gutxi batzuekin, gaixotasun mortal honen hedapena gelditu izatea posiblea izan zitekeen.
- 4- Giza segurtasuna gizakien zentratutik dago. Bere ardurak dira nola bizi den jendea gizartean, ea aukera guztiak askatasunez burutu ahal dituen, zein den bere merkaturako eta giza aukerarako sarbide maila eta gatazkan ala bakeaz bizi den"

1.3.2 NOR DEFENDATU?

Estatuaren defentsa eredua, biztanlegoaren defentsaren mozoarren atzean, injustizia estruktural ekonomiko, politiko ta soziala suposatzen duen egoera globala iraunarazten duen oligarkien (arma industria mesedetuak direnak) statu quoaren mantentzea bilatzen du. Gerriletako erakundeetatik Defentsa herriratu egin nahi da, oligarkiak desagertarazten dituen aldaketa soziala aldarrikatuz. Baina guztiz militarizaturik dauden Estatuaren kontra borrokatzean, beren egitura jerarkikoetan gogortasun handiak sortzen dira, eta beren jatorrizko helburuen



zentzu demokratizatzaile eta askatzailea gelditurik ikusten da. Berehalako ondorio positibo bakarra oligarkia zaharrarekiko gatazka azaleratzea da. Biztanlegoaren bizitza errespetatzen ez duten Defentsa ereduak, indarkeria bideak erabiltzearen ondorioak praktikatu eta sofritzeko behartuta daude. Planteiamendu alternatiboen formulaketak, geroago ikusiko dugun bezala, aurreko ereduaren defizitak konpondu nahi ditu, konponbidean eman behar den partehartze demokratikoa eta giza desmilitarizazioaren ikuspuntuetatik.

1.3.3.-GATAZKAREN KONTZEPZIOA

Ezkorra: Gatazka enbarazuzko gauza da; ezkutatu egin behar da, sistema militaristaren ezgaitasuna agerian uzten duelako. Bera konpontzeko modu bakarra kontrakoa gainditzea eta gure nahietara ekartzea da.

Estatu, ejerzito eta gobernuak dagoeneko indarkeriaz lehertu diren gatazketarantz bideratu nahi dute arreta ta eztabaida. Ebitaezinak direla esaten dute, ta beran aurkitzen dute ejerzito ta militarismoaren esistentziaren autojustifikazioa. Baina Haiti, Somalia edo Balkanetako kasuen azterkerak, gertatu diren gutxi batzuk baino ez aipatzeko, zera esaten digu: krisia gerra puntura heldu den momenturako, seguruaski itzulbiderik gabeko puntura iritsi dela.

Hausnarketa iluna egin ahal guke, okertu nahi izan arren, eta beste kasu batzuk auresatea, hala nola Saharako gatazka, nazioartean desidiak eragindako leherketa iragarrita dagoen gunea.

Lehian daudenek ez dute beren eskaerak bide baketsuen bidez lortzeko esperantzarik izaten, eta are okerrago dena, ez dute uste haientzat baliogarriak izan daitezkeen bide demokratiko eta partehartzailerik esistitzen direnik, beren esperientziaren arabera gatazkak konpontzeko bide bortitzak baino ezin direlako erabili. Momentu horietan oso zaila da positiboki eragitea, eta orduan aitortzen da ekintzarik onena prebentiboa izango zela. Halaber, beste hausnarketa bat egiten da: ekintza prebentibo hori gatazken oinarri eta kausa diren desberdintasun edo injustizien

kontra (pobrezia, ingurugiroaren kaltetzea, eskubide politiko ta sozialen eragiketa librerako ezintasuna...) egin beharko zen.

Baikorra: Gatazka publikoa izan behar da, hartaz konturatzeko; eta soilik horrela konpondu ahal izango da modu partehartzaileaz, alde guztientzat onargarriak diren bideak bilatuz.

Ikuspuntu honen arabera eztabaidak iraultza armatuen legitimitateaz edo Nazio Batuen Kasko Urdinen eskuhartze militarren eraginkortasun eta legaltasunaz zentratzeak ez du batere zentzurik izaten. Planteiamendu hauek suziriak besterik ez dira, oinarritzkoa izkutatzeko: gizakien gatazkak ez direla denboran zehar desagertuko. Hala ere, posiblea da haiei aurre egiteko bideak aldatzea, modu ezbiolento ta eraikikorrak bilatuz. Ta azkenik, beharrezkoa da asumitzea gatazken oinarriak desberdintasun sozial, politiko eta ekonomikoetan daudela.

1.3.4. ETSAIAREN KONTZEPZIOA



Arrotz-satanizatua: etsaiak oker guztiak dauzka, gu akatu nahi gaitu eta horregatik beraren kontrako edozein metodo erabil dezakegu.

Gu bezalako bat: etsaia gu bezalakoa da, eta guk bezala beldur, beharizan eta nahiak ditu. Biok amankomunean dugu gatazka, ta horrek batzen gaitu. Kalte handiagoak ebitatzeko, konponketan dugun interesa eta bere eskubide eta askatasunekiko konprometua adieraziko dugu. Kasu guztietan bereiziko dugu funtzio militarista (uniformea) eta pertsona.

Dena den, oraingo gatazketan etsaia solapaturik gertatzen da mekanismo, egitura eta dinamika desberdinen bidez, eta horrek oztopatzen du gehienetan planteiamendu eta konponketa gizatartzea.

1.3.5. BALIABIDEAK

Batzuk bide armatu, probokatzaila, erasotzaile, mingarri eta mehatxugarriak erabiltzen dituzte, helburuak bitartekoak justifikatzen dituelako usteaz. Bide ezbiolentoak erabiltzeak, ostera, bestelako presio moduak, elkarrizketa eta gatazken konponketa suposatzen ditu. Hauek ez dira probokatzailak, ta ez dute mehatxurik ekartzen, kooperazioan eta elkartzunean oinarrituta daudelako. Ez dute, inongo kasuetan ere, pasibiterik suposatzen, salaketara eta lehen aipatutako bideak inposatzen dituztenen aurreko ez-laguntza aktibora deitzen dutelako.



1.3.6. DEFENTSAREN SUJETOA

Egitura jerarkikoan, obediencia itsuan, sumisioan eta delegazioan oinarritutako nagusitasuna suposatzen du. Gutxiengo hauek isilpean hartzen dituzte erabakiak, eta halaber poterearen tresnen bidez sarrarazten dituzte ordenak. Militarrek mistika, ideologia, mitologia eta sinboloetan babesten dira. Autoritarismoan autoafirmatzen dira, gizakiarekiko fede faltarengatik. Bortitz bezatuak dira, soilki tiranoen obediencia kontrolatzen dituenak.

Militarren sekretismoak erabakiak inori galdetu gabe eta gizartearen inolako kontrolik gabe hartzen dituen elitea konfiguratu du. Honela hain inportantea den gaian gizartearen desinteresa eta delegazio jarraia lortzen da alde batetik, eta bestetik adhesio akritikoak, batere partehartzaile eta demokratikoak ez direnak.

Aldiz, gatazkaz kontzientzia hartzen den momentutik, pertsona guztien inplikazioaz, hauexek dira beren beharrianak lortzeko beren interesen defentsaren sujetoak.

1.3.7. APLIKAPENA

Defentsa militarrek itzelezko koste sozialak dauzka, arrisku larriak ekar ditzakeelako: Estatu kolpeak, pobretze ekonomikoa, ingurugiroaren hondamenak, giza eskubideen bortxaketa, soldaduen eskubide zibil eta sindikalen galera, menpekotasun balioetako adoktrinamendua, kontrola eta gerren ondorioz sortzen diren beste kalte asko ta asko, hamarkadetan iraungo dutenak.

Defentsa honek efikazia erlatiboa erakutsi du oligarkien mantenimenduan eta mugen inbasioen kontrako babesean, giza, ekonomi, inbestigazio ta garapen baliabide guztiez baliatu arren. Ejerzitoen iraupen eta indartzea dakar, eta arma komertzioaren iturria den armamendu lasterketa areagotzen du.

Nazioarteko harremanen arloan, eredu militarrek tensioa biziagotzen dute baliabideengatik konpetentzian oinarriturik, nagusitasuna bilatuz edo bloke eta lehiak sortuz. Ez dituzte gatazkak deuseztu nahi; mehatxu edo eskuhartzearen bidez etsaiak beren interesen kontra inola ere eraso ez dezan lortzea da haien helburu bakarra.

2.-ESTATUAREN DEFENTSA EREDUAK

Indarkeriaren monopolioa Estatuaren Korpu Armatuak daukate (Ejerzito eta Polizia), armei buruzko ikerketa, ekoizpen eta komertzioa diruz laguntzen eta garatzen dutenak.

Michel Foucault-en hitzetan: "Erdi Arotik honako Estatuaren bilakaeran, esan daiteke gerra praktika eta instituzioak (...) gerrarako eskubidea eta

Inversiones de seguridad de la OTAN (NSIP)

Estimación de la participación española en el programa NSIP
En millones de pesetas

	Presupuesto NSIP	Coste de los proyectos en los que podrán participar las empresas españolas	Cuota de España
1999	105.408	44.357	1.556
2000	109.440	53.568	1.675
2001	112.320	63.360	2.218
2002	115.200	74.426	2.641
2003	115.200	86.976	3.044
2004	115.200	93.312	3.266

Fuente: Ministerio de Defensa.

EL PAÍS

baliabideak eskusiboki dituen potere zentral baten eskuetan kontzentratu direla. Horren ondorioz, instituzio eta praktika hauek pertsona arteko eta talde arteko harremanen arlotik desagertuz joan dira (oso geldiro izan arren), ta bilakaera lerro honek gero ta gehiago daramatza Estatuaren berezko pribilegio bihurtzera".

Aipuarekin jarraituz: "Kontsidera dezakegu gerra lehenengo eta oinarritzko egoera bat dela, zeinetik menpekotasun, desberdintasun eta giza jerarkizazio fenomeno guztiak eratortzen diren? Erakunde militarrek, batez ere helburua gerra egitea dutenak, instituzio politikoaren gakoa dira, zuzenean ala zeharka? Politika gerraren beste bideen bitarteko jarraipena dela pentsatzera hel gaitzek?"

Ezin da ahaztu beste kontrol eta adoktrinamendu instituzional batzuk esistitzen direla, hala nola Eskola, erlijio/Elizak, alderdi politikoak eta sindikatu organikoak, Justizia Administrazioa, droga, Legeari edo espetxeari zaien beldurra, eta baita ere Ogasuna, INEM, Posta edo Telefonikaren gure datuen erabilera. Ez litzateke ahaztu behar ere komunikabideek gero ta gehiago daukaten iritzi publikoaren manipulaziorako indarra, beren informazio/desinformazioaz.

El mapa de la Alianza del siglo XXI



Defentsaren Mendebaldeko kontzeptua, lurraren, statu quo-aren eta talde menperatzaileen interesen defentsarena da. Gatazka, modu ezezkoan ikusita, indarkeria eta errepresioz konpontzen da, eta obediencia-sumisioan, jerarkizazioan eta arituen elite militarrean dago oinarrituta. Historian zehar, Estatu baten sorrerak indar militarra behar izan du beti, eta hau da oraindik ere bere biziraupenaren bermatzaile nagusia.

Garai honetan Estatuaren paper ahalguztidun eta orojakilea lau perspektiba nagusitik kuestionatzen da:

- 1- Barruko nazionalismoetatik, azken historian monolitiko bezala agertzen zitzaigunak, errespetatu ta era eraikikorrean artikulatzen ikasi behar den errealitate plural eta gatazkatsua izkutatzen duela agertarazten dutenak;
- 2- Estatuaz gairikiko batasunen proiektuetatik (EB, NATO, NBEaren protagonismoa), Aberria eta mugen defentsa bezalako balore eta helburu klasikoak gairikiko eskatzen dutenak; baina ez dezagun ahaz estatu kideen egonkortasuna estatuaz gairikiko egonkortasunaren oinarria dela.
- 3- Gero ta garrantzitsuago den multinazionalen paperatik, Estatuaren finkatuta, horietatik aparte, edota askotan horien gainean, beren interes partikularrak defendatzen dituztenak, demokrazia errepresentatiboaren mekanismoen bidez Estatu-Nazioaren arloko herriaren soberania bezalako kontzeptuak hutsaren hurrengo bihurtzen dutenak.
- 4- Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKEak) bezalako aktore nazional eta nazioartekoaren agerreratik, hauek, praktika eta eduki politiko oso anitzen bidez, estatuaren esanetatik kanpo dauden gizartearen interes zilegi berriak artikulatzen dituztenak.

Azken finean, Estatuaren oinarritzko bermatzailea den Ejerzitoa, XX mendearen amaieran oso krisi larrian aurkitzen da bere nortasun, definizio, iraxorbide eta, larriago dena, erabilgarritasunaren inguruan.

2.1.- DEFENTSA MILITAR EREDUAK


Militarismoak gerrak eta gatazkak azaltzeko ematen dituen arrazoi ofizialak, beste batzuen artean, arrisku naturalak, istripuak, gizabanakoaren bizitzan edukitzen diren jokaera zuhurgabeak, pertsonen edo familien ezbeharrak, lazeria, eta abar dira. Edo bestela gorrotoa, handinahia, edo gizakiaren bihotzak gordetik daukan potere ta menpekotasun nahiari egiten diote kasu. Baina bitxia denez, Estatu eta Estatu arteko erakundeetatik ematen den giza eskubideen bortxaketa legeztuari buruzko edo Iparraren opulentzia mantentzeko Hegoaren guztizko hustuketari buruzko aipurik ez da inoiz ere agertzen.

Aurrerakuntza eta ongizatea dira Defentsa eta Segurtasuneko adituak erabiltzen dituzten argudioak. Pribilegiatuen gutxiengoak lortutako kontsumo maila (populazioaren %25ak ondasunen %75a dauka) hain da injustua, armen indarraren bidez baino ezin dela mantendu. Horrela Ongizatearen Estatuaren populazio egokituari deitzen zaio pobreei, errefuxiatuei, atzerritarrei atek ixteko (segurtasun pribatuaz defendaturik beldurrik bizi deneko urbanizazioaren atek, izan ere), etsai fantasmagorikoak eratzen dituen mezu terroristaz jokatu.

Planteiamendu berekoi honetatik ez zaio uko egin nahi gerra ta indar militarri, horrek "ongizate ta aurrerakuntza" n zezoz galtzera baitarama, eta hori saihestu nahi den gaitza baino galera handiagoa da. Horrela bizimodua defendatzen da, datozen belaunaldien "bakea" hipotekatu gabe. Ongizatearen Estatuaren bakea ondasunik handiena eta gerra gaitzik txarrena den arren, mehatxua oinarritzko ere ez daukaten Estatuetatik dator, beraientzat bakea ondasun erlatiboa eta gerra haien egoera arrunta baino gaitz txikiagoa baitira.

Militaristek argudio hauek erabiltzen dituzte gatazkak konpontzeko eta krisiak saihesteko pazifismoa aldarrikatzen duen edo diplomatikoen negoziazioan, nazioarteko bitartekotzan eta erantzunkidetasun politikan fidatzen den jende xehea ixiltzeko.

Ez dugu izenperze tekniko xehetan kokaturako eredu hutsik egin nahi, errealitate historikoak erakutsi baitu esistitzen diren ereduak anitzak eta aldakorrek direla. Baina behintzat pista batzuk eman nahi ditugu konplexutasun hori argitzen laguntzeko.



2.1.1.- EREDU TRADIZIONALA

*1. Konskripzioa.

XVIII mendearen amaieran Frantziako Iraultzaren bidez orokortzen da, Erdi Aroa baino lehenagoko mertzenarioen ejerzito pribatuak ordezkatzeko.

Erreklutamendu bortxatuan oinarritzen da, ta lurraldea eta mugak defendatzen ditu. Barruko kontrol sozialerako erabiltzen da, Derrigorrezko Zerbitzu Militarra egiten duten "kintoen" bidez balore militaristak transmitituz.

Ezinbesteko du komarketan fisikoki egotea, instalazio militarretan. Ordena bermatzen dute "aberria"ren ideia bidez, etsaia atzeritarra dela eta arazoa kanpoan dagoela ikusarazten dutelarik.

Bere teknologia faltarengatik eta bere funtzio erasotzailearengatik, biztanlego gazte, osasuntsu eta maskulinoaren kopuru handi batek hartzen du parte, baina erabakitzeke ahalmena profesionalizatuta dagoen jerarkia altuaren esku geratzen da.

Koste sozial, eta ekonomikoak oso txarto ikusita dagoen aukera bihurtzen dute.

Estatu espainolean, gizarte zibila eta Indar Armatuen arteko dibortzioa nabaria eta estrukturala da, hauen eta aktore sozialek defendatzen dituzten justizi, askatasun edo bakea bezalako balore zibikoaren arteko kontraesan argiarengatik. Ezin dira ahaztu XIX eta XX mendeetan zehar estatu kolpe eta gobernu militarrek, koloniak mantentzeko gerrak, gerra zibilaren eta errepresio faszistari izan zaion beldurra, Franco eta EEBBn arteko aldebiko harremanek, OTANen erreferenduma... Honek guztiak gizarte sutsuki ipini du ejerzitoaren kontra.

Defentsarako kontzientzia estatalaren gabeziak, militarri zaion begirune txikiarengatik, desfile militarrek berreskuratzera eta kontu hori eskola testu eta ikasketa egitasumuetan sartzea eraman du.

PSOEren gobernuaren garaian arloa berri bat zabaldu zen; nazioartea barruari begira erabiliko da, hau da, ejerzitoaren irudia garbitzeko. Lankidetzaren belikoaren adibidea bat Golkoko Gerra izan zen (Basamortuko Ekaitza), eta Bake misioarena, Bosniakoa.

Horrela, beren erregimen politiko ezlegezko, erlijio, bizi egoera, egonkortasun eta demografia hazkorrengatik, aberriaren etsai potentzialak Magrebeko herriak (Marokko, Argelia, Tunisia) direla pentsaerazi nahi da, segurtasuna mehatxatzen dutelarik, eta hegoko muga Europako ejerzitoen hedapenaren arrazoi bihurtzen dira. Honez gain neurri politikoak ere hartzen dira, hala nola Atzerriartasun Legea-Schengen, edo menpekotasun ekonomikoa sortzeko eta diktadurak mantentzeko balio duen arma salmenta. Neurri hauek gatazka biziagotzen duen faktorea dira (adibidez Saharako kasuan), eta desegonkortasuna elikatzen dute, gero militarrek Defentsa eta gastu militarren beharrezkotasun eta ebitaezintasunaz hitz egiteko erabiliko dutena.

Afrikako Iparreko herrien arrisku potentzialaz sakontzeko, ikusi Nazio Batuen Garapenerako Programak (1994) ematen dituen datu konparatiboak.

Espainia (1992)

Biztanlegoa: 39.077.000

PNB (Milioi dolarretan): 547.947

PNB per capita (Dolarretan): 14.020

Libia (1992)

Biztanlegoa: 4.873.000

PNB (Milioi dolarretan): 30.000

PNB per capita (Dolarretan): 6.300

Tunisia (1992)

Biztanlegoa: 8.405.000

PNB (Milioi dolarretan): 14.615

PNB per capita (Dolarretan): 1.740

Argelia (1992)

Biztanlegoa: 26.375.000

PNB (Milioi dolarretan): 48.326

PNB per capita (Dolarretan): 1.830

Marokko (1992)

Biztanlegoa: 26.262.000

PNB (Milioi dolarretan): 27.210

PNB per capita (Dolarretan): 1.040

Espainia (1994)

Giza garapenaren indizea: 0'888

Jaiotzean bizi esperantza: 77'4

Helduen alfabetatze %a: 98'0

Libia (1994)

Giza garapenaren indizea: 0'703

Jaiotzean bizi esperantza: 62'4

Helduen alfabetatze %a: 66'5

Tunisia (1994)

Giza garapenaren indizea: 0'690

Jaiotzean bizi esperantza: 67'1

Helduen alfabetatze %a: 68'1

Argelia (1994)

Giza garapenaren indizea: 0'553

Jaiotzean bizi esperantza: 65'6

Helduen alfabetatze %a: 60'6

Marokko (1994)

Giza garapenaren indizea: 0'549

Jaiotzean bizi esperantza: 62'5

Helduen alfabetatze %a: 52'5

*2. Eredua nuklear klasikoa

Gerra hotzean sortutako blokeak etsaiaren erantzun ahalmena deusezteko bilatzen duen eredu nuklearraren kulminazioa da. Modurik erasotzaileena da, diferentzia handiz, alde bien suntsipena ziurtatuta dagoelako, eta disuataileena, populazioan eta planeta osoko ingurugiroan eragiten dituen kalte atzerazineengatik.

Horren kontrakoek, eredu honek eskatzen dituen ikerketa ta garapen koste altuak seinalatzen dituzte. Gogoratu behar da oraindik ez dagoela hondakin nuklearetarako konponbiderik, eta sabotaiak eragozteko egokiak diren segurtasun sistemak oso konplexuak direla.

2.1.2.- GERRILLA EREDUA

Bertakoek duten eremuaren ezagutza, bertan zehar modu egokian aritzeko aroberetza daiteke. Ez dute ekipamendu sofistikatuaz gozaten, soldaduak ez direlako "kualifikatuak". Herri pobre batzuen modu berezia izan daiteke (Nicaragua, Albania, eta abar).

Gizartean oinarritutako Ejerzitua da, militarizazio sozial nabaria suposatzen duena; Jugoslavia ohiaren kasuan hori izan da biztanlegoaren partehartze masiboaren arrazoi nagusia. Soldaduak aldi luzeetan geratzen dira mobilizaturik, instrukzio militarra eta adoktrinamendu sakon eta guztizkoa hartzen dute.


Europa barruan, hiritarrak armatzen direneko Suitzako ereduaren erreferentzia izan da, baina bere funtzioa barrukoa arloan egongo litzateke, ustezko "neutraltasun" batean oinarrituta dagoelarik, ta gainera statu quo-a baino ez du defendatu nahi.

2.1.3.- EREDU MODERNOA

*1. Gaur eguneko eredu nuklearra

Arrisku nuklearra ez da desagertu; are gehiago, handitu egin da, lehengo mundu komunistaren kaosa, Hirugarren Mundua deitutakoaren garapen atomikoa, eta Mendebaldeko potentzien politika gerrazalearengatik. Eta bomba atomikoak ekoiztea garestia izateaz gain, ustegabekeko leherkerak ebitatzeko segurtasun egoera onean mantentzea ere ez da batere merkea.

80etako hamarkadaren amaieran, Gerra Hotza pasata, potentzia nuklear tradizionalek (EEBB, Errusia, Ukraina, Bielorrusia, Kazajistan, Erresuma Batua, Frantzia eta Txina), "desarme"aren praktikara derrigortuta egon ziren; baina "desarme" hau haien armamenduaren eguneratze teknologikoa besterik ez da. Duela urte gutxi ikusi ditugu Frantziak (Polinesia) eta Txinak egindako frogak nuklearrak, arlo horretan dituzten ezagupenak puntuan ipintzeko eginak (Frantziaren kasuan gogoratu behar da disuasio nuklearra Europar Batasunaren azken bermea dela).



Esperimentu hauetatik beren aliatuak edo beren orbita politiko-militarreko herriak ere irten ziren mesedeturik. Momentu horretara arte, antza, ez zitzaizen interesatzen beren simulatzaile informatiko nuklearrak erabiltzea, edo hauek ez zeuden horren aurreraturik.

Desmantelamendu nuklear teoriko honek, bakearen etekinak Gizateriarentzat onura handiagoa ekarriko zuelako itxaropen faltua sortu zuen, baina hau laster gezurtatu egin da, gastu militar-poliziala igotzen zen heinean mozketak sozialak eta pobrezia ere zabaltzen zela ikustean. Gainera, desmantelamendua hau beste arrazoi batengatik da teorikoa: "Ez-ugaltze itunak", potentzia batzuk sinatu ere egiten ez dituztenak, hutsaren hurrengoa dira; eta mendearen amaierarako hamar bat herrialdek euki dezakete bomba atomikoa. 50etako hamarkadatik Israelen badu programa nuklearra; Ekialde Hurbilean (Irak, Iran eta Siria), Afrikan (Libia eta Argelia), Asian (India ta Pakistan), nuklearizatzeko lasterketa izugarria dago. Dirudenez, Latinoamerika da problematika honetan tensioa jeisten den leku bakarra.

*2. Eredu "ez erasotzailea"

Beste ereduak baino zibilizatua den alternatiba bezala aurkeztu arren, ez du alternatiba izateko benetako konsistentziarik; alde batetik kanporako politika ez probokatzaileren praktika eta eskuhartzeak suposatzen duten kostu militar handiaren laburpena defendatzen ditu, baina bestetik ez dio armak eta Ejerzitoak erabiltzeari uko egiten. Hau da, disuatzailak dira teoriarik, baina praktikan erasoetan parra-parra erabiltzen dira. Helburu militarrek eta biztanlego zibila bereiztu asmo du, baina jakin badakigu eraso belikoan hipotesi hau hipokresia hutsa besterik ez dela. Biktimen gehienak zibilak izaten dira oraindik ere, ta urte askotan zehar hauek dira gerraren ondorengoak pairatzen dituztenak, gatazkan xahututako baliabideen gabezia gain, minen, gerra kimiko-bakteriologikoaren eta ingurugiro gainbeheratuaren ondorio larriak sofritzen dituztelako.

*3. Eredu profesionala

Gerra, historian zehar, mertzenariet egin dute (derrigorrezko zerbitzu militarra indarrean egon den bi mendeko aldi laburra salbu). Hiritar batek ez lituzke zeinbait orden obedituko, bizitza zibila itzuli behar dela pentsatuz, eta eskrupulurik gabeko "profesional" entrenatu batek lasaitasun osoz egingo lituzke, batez ere langabeziarekin mehatxatuta baldin badago.

Kolonialismo kapitalista eta bere hedapen ekonomiko-teknologikoak tresna militar berria behar dute. Lanaren nazioarteko banaketak, klase egiturak, korpu profesionalen militarismoa sortzen du munduaren edozein aldetan arinki ekin ahal izateko. Armada profesionalak guetto, baztertutako gutxiengo eta bestelako giza irtenaldirik ez duten area gainbeheratuetatik hartzen dituzte haien soldadu berriak. Hasten ari den ejerzito espainolean formakuntza akademiko eskaka duen bolondresgoa Hegotik dator, Espainia pobretik. Eta adibiderik argiena Estatu Batuetako Ejerzitoa da, munduan potere handien daukana, soldaduak gutxiengo etnikoetakoak (afro eta latinoamerikanoak) eta ofizialak "WASP" delakoak (zuriak, angosaxoiak eta protestanteak) direnekoa.

Europar markoan, Erresuma Batua, Belgika eta Holanda aitzindari direla, ejerzito profesionala jadanik errealitatea da. Frantziaren ostean, 1996ko udaberrian, Gobernuan PPA zegoelarik, Derrigorrezko Zerbitzu Militarra itzultzerik gabeko aldiaren sartzen da, eta aurrikusita zegoena baino lehenago bukatzeko bide atzeratzen dago.

Konskripzioaren desagertzea faktore ekonomiko, tekniko, kultural eta demografiko batzuek erraztu dute; haien artean UEO (Mendebaldeko Europar Batasuna)ren bateratasun militarrenzko kriterio zorrotzak daude.

Abadagune honetak, Ejerzitoa, gizaratearen gaitzespenak ukituta eta prestigioa galtuta, desgaste sakona sofritu du, prozesu honetan oso irudi ona duen Mugimendu Antimilitaristaren ekintza ezinbestekoa izan delarik. Desobedientzia zibil kolektiboko kanpaina ezbiolento eta politikoki antolatutako erabiliz, Gobernuaren proiektua epe ertainean deuszten, Estatuaren irudia kaltetzen eta Ejerzitoa irigarri uzten ari gara.

Militarrek gure gizaratean duten benetako papera gatazkak indarkeriaren bitartez konpontzea bada, eta beren helburua guztiz injustuak diren

gutxiengo baten interes estatalak mantentzea mehatxu militar, kolonialismo ekonomiko eta errepresio polizialaren bitartez, instituzio militarra kuestionatzea Estatuaren zutaberi garrantzitsuenetakoa kuestionatza da.

Honen aurrean, antimilitaristak gerra, gosea eta aberastasunaren banaketa injustua salatzen dugu, balore alternatiboetan hezitza garamatzen aldaketa proposatzen dugun bitartean, eta berarekin batera pertsona eta herrien oinarritzko eskubideak bermatzen dituen baliabideak zuzentzea, lehenengo mailako behar izan sozialak betetzeko. Giza garapenerako alternatiba honek lankidetzara eta gutxien dutenekiko nazioarteko elkartasunaren alde apostu egiten du.

*4. 2003 PROFESIONALIZAZIO PROIEKTUA

Oraingoz, arteko irtenbidea dago, asmoz progresista dena, eta eredu mistoa (profesional/konskriptoa) sortzean datzana, demografiaren jeitsiera eta gaurko ekonomi egoera kontutan hartuta, eta 2002 urteraino iraungo duena. Tropa profesionalerako eskaera nahikoa badago (orain arte ez da hori gertatu) hori gertatuko da ez delako aukeratzeko prozesu gogorra ezarri, horren ondorioa kalitate eskaseko soldadu-tipoa litzatekeela. Beste batzuen artean, bere helburu bat espainiar nazionalismoa indartzea da, "Defentsarako Kultura" sortuz. Indar Armatu indartsu eta ondo prestatuen behar izanaren kontzientzia handitzeko, ezinbestekoa da biztanlego Defentsari buruz informatzea, baina hemen paradoxa agertzen da, informazio sekretu hau emateak, oso konplexu eta ulergaitza izateaz gain, arrisku bat daukalako: segurtasun arloko ahalmen eta ezintasunak ezagutaraztea. Azkenean, aritu politiko eta militarren esku geratuko da.

Gainera militarra legitimatu nahi du mota askotako ekintza humanitarioen bidez: gerraren biktimei lagunduz, tiranoak pairatzen dituen biztanlegoaren Giza Eskubideak defendatuz, etab.

Hemendik aurrera Defentsari SEGURTASUNA deituko zaio, kontzeptu zabalakoa delako indarrean dagoen egoeraren desoreka faktoreei aurre



egiteko: estatu arteko gatazkak, terrorismoa, desoreka ekologikoa, Hegoko pobreen migrazio handiak, narkotrafikoa, nazionalismoa, etsai islamikoa, eta abar. Komunikabideak izango dira segurtasunaren kontra egiten duten etsai berriak zeintzu diren errepikatu eta gaur bakerako eta bihar gerrarako ordainduta dauden soldaduen irudia garbituko dutenak.

PSOE eta PParen Gobernuak beren autobabeserako baliabideak sortu dituzte, Defentsaren egitasmoak urtetik urtera aldatuz lege eta arautegiekin (ikusitakoak) iritziz publikoaren gaitzespenetik defendatzeko.

1984 Kontzientzia Eragozpenaren Legea (LOC)

1991 Insumisio kausak jurisdikzio militarretik jurisdikzio arruntera pasatzen ditu. Zerbitzu Militarren Legea (LSM)

1994 Ordezko Zerbitzu Sozialaren (PSS) eta LSMaren Arautegien Aldaketak

1995 Kode Penal Berria

1996 Bolondresgoaren Legea. FAS 2000 Proiektua

1998 Insumisioak kartzelatik ateratzea. Soldaduzka eta OZSaren iraupena 9 hilabetetan parekatzea. OZStik libre geratzeko 3 urteko itxaronaldia. 2003 profesionalizazio egitasmoa.

Neurri hauekin ejerzitua legitimatzeko denbora lortu nahi dute, bide horretan erritmo geldiezinaz hazten den eta Estatu kontua bihurtzera heldu den desobedientzia gelditu nahi dute. Horrela insumisioa zigortzen da, beharrezko gutxiengo erreklamendua ziurtatzen da, eta



dohainik lan sozialak egiten dituzten prestazionista lekuak sortzen dira (soldaduzka laborala), horrela dirua aurrezten Ejerzito profesionala tresna modernu ta sofistikatuaz hornitu ahal izateko.

Insumisioak kanpora ateratako gatazkaren irtenbidea ez da lortuko despenalizazioaren bidez, ezta Zerbitzu Militarren desagertzeaz (bi hauek burruka antimilitaristaren lorpenak direlarik), Defentsa militarreko ereduaren kuestionamenduan zentratuta baitago.

Ezinbestekoa da guztien artean desobedientzia kolektiboaren dinamika antolatua mantentzeko, guztiok orainaren protagonistak eta geroaren eraikitzaileak izatea bermatzen duena.

Lan gogorra dago egiteko, baina bizi dugun aukera historikoaren aurrean, inoiz baino ilusio eta motibazioaz, bakea ta justizia soziala lortuko dugu. Ez da utopikoagoa bakea gerraren prestakuntzaren bidez lortzea?

*5. Defentsa Militar-Zibilaren ereduak

Lorpen sozialak eta lurraldea defendatzen du. Gerra egiteko beste modu bat da, eta Defentsa militarrekin konpatiblea da, zibilien eskuetan uzten baititu ebakutze edo osasun kontuak, horrela militarrek haien lan odoltsuak kuestionamendurik gabe egiteko libre geratuz.

Erakundeen defentsa bat da, bakearen antolatzaileek burutua, baina berdin atzerakoa da, lorpen sozial berririk ez duelako eskatzen. Indarkera



estrukturala onartzen du, indarkerian eta statu quo injustuan oinarritutako nazioarteko harreman sistemari alternatibarik ez diolako eskaintzen. Mezu bakezale-instituzionalista, eredu militar modernoak behar duen irudi garbiketan baino ez da erabiltzen.

Epe luzean onargarria izan zitekeen pausuz pausu desarmatze eta industria militarra arlo zibilerako bideratzea bilatuko balu, baina momentuz bere traiektorian ez du alternatibo edo egitasmo berrien alde apuntatzen.

*6. NBEaren laguntza humanitarioaren ereduak

"Estrategia militar berria Espainak etsaierik ez duelako oinarritzeko premisan hasten da. Hala ere, insistitu behar da segurtasun nazionalerik eratortzen diren eskaerei aurre egiteko eta Europako defentsa amankomunean parte hartzeko gaitasun militar egokia mantendu beharraz" (Revista Española de Defensa (RED), 73. zenbakia, Defentsa Ministeritzak argitaratua, 1994ko martxoan, 14. orrialdea)

Hala ere, Indar Armatuen funtzioa berdefinitzeati garrantzia ematen zaio, zeren eta, Julián García Vargas defentsa ministro ohiak Kongresuaren Defentsa Batzordean esan zuen bezala, "gure interes propioak ukiru edo nazioarteko egonkortasuna arriskuan ipin dezaketen nazioarteko krisien konponbiderantz orientatu behar da", eta horrela "gure inguruan ikusten dugun desegonkortasunak bakearen mantentzeko edo inposaketa suposatzen duten krisi txikien gestioan zentratzea garrantzitsua da; bakearen inposaketa erasotzaile bat gelditzeko egiten den ekintza da" (RED, 68. zbk, 1993ko urrian, 12. orr.)

Etsaierik ezagutu ez baina desegonkortasun eta krisiak, zeintzu diren esan gabe, aurrikusten duen analisi paradoxiko honetatik Ejerzitoa mantendu, profesionalizatu eta hobekuntza tekniko hornatzeko beharra sortzen da.

Eredu honek Defentsa militar arruntari Defentsa Zibilaren elementuak zein helburu humanitarioak itsasten dio.

Indarraren erabileran oinarritutako mendebaldeko Estatuaren kanpo politika eskuhartzailea justifikatzen du, iritziz publikoaren gaitzespenaren aurrean.

Segurtasuna ez da jadanik Estatu isolatuaren lana kontsideratuko, nazioarteko lankidetzak eskatzen duen zerbait baizik; eta ez da Estatuaren



mugen barruan geratzen, aliatuen interesen menpean baitago, Golkoko Gerran, Bosnia, Erramerikan, Irak (Kurdistan), eta beste leku askotan gertatu zen bezala.

Bosniako UNPROFOR-aren fiaskoa.

NBE eta NATOren misioa ez da erasoak gelditzeko eta biztanlegoaren segurtasuna bermatzeko gai izan.

Konboiak blokeatzen ziren, eta txantaiaren azpitik negoziatzen zen laguntza humanitarioa.

Babestutako guneak bonbardeatzen ziren, hegatzeko debekua hautsiaz.

Armamendu eta soldaduak etengabe pasatzen ziren mugetatik, enbargoari kasurik egin gabe.

UPROFOR-aren babespean zeuden armak lapurtzen ziren, kasko urdinak bahitu eta hiltzen ziren, NATO-ren hegazkinak botatzen ziren...

Honen arrazoia zera da: idatzia eta Estatuaren benetako borondatearen artean alde handia dagoela, bera betetzeko bitartekoak ematen ez direlarik. Gerraren Jauntxoek nazioarteko presentzia eragozteko mehatxatzen ziren, honek Giza Eskubideen bortxaketa masiboak salatzen bazituzten. "Txarto ulertutako neutraltasuna" zen hori. Ez zitzairen prioritatea ematen giza eskubideen bortxaketei, hau izan arren nazioarteko eragiketen zioa. Bitxia da jakitea Jugoslabijako Herri Ejerzitoa izan zela 1950ean NBEaren misio humanitarioak asumituko zituen lehenengoetarikoa, baina horrek ez du bere agresibitate gutxitu hiru esperientzia hamarkadaren ostean.

Tragediaren aurrean, iritzi publikoak honestki erantzuten du, elkartasun ta urrikaltasun erakusketekin. Estatuak ez dute balore hauengatik funtzionatzen; nazioarteko politikan prestigio eta poterea bilatzen dutela, eta hondamendiak alarmitutako biztanlegoaren aurrean sinesgarritasuna mantentzeko ekiten dute. Misio humanitarioen eskuhartze politika hau gidatu duena Ejerzito eta Estatuaren xuriketa soziala, aurrekontu militarren gehipena eta ikerketa psikologiko edo soziologikoak frogatzeko eremu eduki duen sofrimenduaren aprobetxamendua izan dira.

UNPROFOR-aren misioak Bosniako etniantzeko gizarrea biktima egoerara gutxitu du, laguntza hartzaile soil bihurtuz, garazka protagonizatzen zuten gai ez balitz bezala. Haien lekuan kasko urdinak, diplomatikoak eta nazioarteko arituak bultzatu ditu, Despotismo Ilustratu edo neo-kolonialismoaren estilo hutsari jarraituz.

UNPROFOR-ari emandako lanak Bosniako bertako erakundeek egin ahal izan zituzten, modu merkeago ta eraginokorragoan beren eremuaren ezagutzaga eta motibazioagatik, beren herriari laguntzeko behar ziren arrisku guztiak betetzeko prest egongo zirelarik.

2.2- ARMAGINTZA INDUSTRIAK. GERRARAKO LANTEGIAK

Gure mendebaldeko gizarte modernoetan ohitu egin gara komunikabideek gerra edo gatazka armatuetatik ekartzen dizkiguten irudi lagarriak ikustera, horrela beste leku batzuetan gertatzen den zerbit ebitaezin bezala asimilatuz, eta guregan urriki sentimendua sortuz, emaitza eta laguntza humanitarioaren zein Bakerako Ejerzitoen bidalketen bidez bideratu nahi duguna.

2.2. 1.- GERRAK ELIKATUZ

Baina urruneko gerra horiek ez balitzate hain urrunekoak izango, elikatzen dituen armamendua gure herrietan ekoizten delako, edo haiek biziagotzen dituzten armamendu politika esportatzaileak geure gobernuak sortzen dituzten Garapenerako Laguntza horiek askotan armamenduaren erosketarekin baldintzatuta daudelako? Eta Ejerzito bakezale horiek ez balitzate gure nazio zibilizatuak sortu dituzten monstruak estaltzeko erabiltzen den hipokresia estalkia baino?

2.2.2.- INDUSTRIA MILITARRAREN EZAUGARRIAK

Gaurko industria militarren ezaugarri berezkoetatik bat, bere dispersio sektoriala da, askotan armamendu berriaren sofistikazioagatik bere ekoizpen askoren buruketak sektore askotako enpresen parte hartzea eskatzen duelarik. Aipatutako egoera honek enpresa desberdinei ematen dien beste abantaila bat, bere esportaketak izkutatzeko da (enpresa hauen fakturazioan oso arlo inportantea dena); haien produktua armamendu bezala kontsideratuko balitz aurkitu beharko lituzketen eragozpen legalak askoz handiago eta konplikatuagoak izango bailirateke, haien esanez esportatzen dutena material elektrikoa, industria metalikoa, automozio osagaiak, tresna berezituak, eta abar... bada baino.

Badago armagintza industriaren identifikazio argia oraindik gehiago zailtzen duen hirugarren faktorea: dibersifikazioa. Armagintza industriaren ohizko praktika da krisi ekonomiko garaietan (edo haientzat krisirik txarrena den gatazka belikoen gutxiagotze garaiean) beste ekoizpen batzuetan denboraldi batez inbertitzea, kontutan haru behar baita, gerrez gain, industria militarren zutabe nagusiak (eta batez ere Estatu espainolean) esportaketak eta Administrazio desberdinen laguntzak direla, eta hauek, atzerapen ekonomiko garaietan, eskasak dira.

Hainbeste kostatzen duten programak abian jartzeak gastuak izkutatzeko finantza formula berriak asmatzea ekarri du, defentsa ministeritzaren aurrekontua handitzea alde batera utzi zelako. Neurri hau erabili balitz, 1997ko aurrekontua 40.000 milioitan gehitu behar izan ziratekeen, eta 1998koa 80.000 milioitan. Industriak Eredu Alemana aplikatzea erabaki zuen: armamendua Industria ministeritzak ordaintzen du, lehenengo alea ematen den momentura arte, ta momentu horretan Defentsak ordainduko du epean. Enpresei egindako ordainketak Defentsak egiten ditu, kredituen bidez. Oso adibide nabaria Armadan dago, baina 3 proiektuetan egiten ari da: F-100 Fragata, 1997-2006 aldirako proiektua dena, Industriak ordainduko du bere osotasunean, 280.000 milioi pezeta; Defentsak 2002 urtean lehenengo ontzia jasoko duena, urte horretan hasiko da ordaintzen eta 2015 urtean bukatuko du horren ordainketa.

Evaluación general

El desarrollo en los países industrializados

	Población que no sobrevive hasta los 60 años (en %)	Población por debajo del límite de pobreza de ingreso (en %)	Desempleados de 12 meses o más (en % de la pob. en edad activa)	Clasificación según el PIB real por persona (en dólares)
Suecia	8	6,7	1,5	13 ^a
Holanda	9	6,7	3,2	10 ^a
Alemania	11	5,9	4,0	8 ^a
Noruega	9	6,6	1,3	2 ^a
Italia	9	6,5	7,6	9 ^a
Finlandia	11	6,2	6,1	14 ^a
Francia	11	7,5	4,9	7 ^a
Japón	8	11,8	0,6	4 ^a
Dinamarca	12	7,5	2,0	3 ^a
Canadá	9	11,7	1,3	5 ^a
Bélgica	10	5,5	6,2	6 ^a
Australia	9	12,9	2,6	11 ^a
Nueva Zelanda	10	9,2	1,3	16 ^a
Reino Unido	10	13,5	3,8	12 ^a
Irlanda	9	11,1	7,6	15 ^a
Estados Unidos	13	19,1	0,5	1 ^a

El desarrollo humano en el mundo

ÍNDICE ALTO	ÍNDICE MEDIO	ÍNDICE BAJO
1 Canadá	60 Malasia	118 Tayikistán
2 Francia	61 Mauricio	119 Honduras
3 Noruega	62 Brasil	120 Gabón
4 Estados Unidos	63 Belice	121 Santo Tomé y Príncipe
5 Islandia	64 Libia	122 Vietnam
6 Finlandia		123 Islas Salomón
7 Holanda	65 Surinam	124 Vanuatu
8 Japón	66 Líbano	125 Marruecos
9 Nueva Zelanda	67 Bulgaria	126 Nicaragua
	68 Bielorrusia	127 Irak
10 Suecia	69 Turquía	128 Congo
11 España		129 Papúa Nueva Guinea
12 Bélgica	70 Arabia Saudí	130 Zimbabue
13 Austria	71 Omán	
14 Reino Unido	72 Rusia	
15 Australia	73 Ecuador	
16 Suiza	74 Rumania	
17 Irlanda	75 Corea del Norte	
18 Dinamarca	76 Croacia	
19 Alemania	77 Estonia	
	78 Irán	
20 Grecia	79 Lituania	
21 Italia		
22 Israel	80 Macedonia	
23 Chipre	81 Siria	
24 Barbados	82 Argelia	
25 Hong Kong (China)	83 Túnez	
26 Luxemburgo	84 Jamaica	
27 Malta	85 Cuba	
28 Singapur	86 Perú	
29 Antigua y Barbuda	87 Jordania	
	88 República Dominicana	
30 Corea del Sur	89 Surinam	
31 Chile		
32 Bahamas	90 Sri Lanka	
33 Portugal	91 Paraguay	
34 Costa Rica	92 Letonia	
35 Brunei	93 Kazajistán	
36 Argentina	94 Samoa Occidental	
37 Eslovenia	95 Maldivas	
38 Uruguay	96 Indonesia	
39 República Checa	97 Botswana	
	98 Filipinas	
40 Trinidad y Tobago	99 Armenia	
41 Dominica		
42 Eslovaquia	100 Guyana	
43 Bahrein	101 Mongolia	
44 Fiji	102 Ucrania	
45 Panamá	103 Turkmenistán	
46 Venezuela	104 Uzbekistán	
47 Hungría	105 Albania	
48 Emiratos Árabes Unidos	106 China	
49 México	107 Namibia	
50 San Cristóbal	108 Georgia	
	109 Kirguistán	
51 Granada		
52 Polonia	110 Azerbaiyán	
53 Colombia	111 Guatemala	
54 Kuwait	112 Egipto	
55 San Vicente	113 Moldavia	
56 Seychelles	114 El Salvador	
57 Qatar	115 Suazilandia	
58 Santa Lúcia	116 Bolivia	
59 Tailandia	117 Cabo Verde	
		150 Tanzania
		151 Yemen
		152 Nepal
		153 Madagascar
		154 Rep. Centroafricana
		155 Burundi
		156 Angola
		157 Sudán
		158 Senegal
		159 Haití
		160 Uganda
		161 Malawi
		162 Yibuti
		163 Chad
		164 Guinea-Bissau
		165 Gambia
		166 Mozambique
		167 Guinea
		168 Eritrea
		169 Etiopía
		170 Burundi
		171 Malí
		172 Burkina Faso
		173 Níger
		174 Sierra Leona

2.2.3.- INDUSTRIA MILITARRAREN SAILKAPENA

Darorrena, "GASTEIZKOAK" taldeak egindako sailkapen bat da.

Industria "astunak": izen hori hurrengo ezaugarriak dituzten enpresei ematen diegu:

- Batez ere ekoizpen militarretik bizi dira
- Urte bakoitzean 10.000 milioi baino gehiagoko etekinak dituzte, normalean
- Beren ekoizpena batez ere esportaketari begira eginda dago
- Lanpostu gutxi daukate, baina oso kualifikatuak
- Nazioarteko zein estatu barruko konsortzioetan daude, merkatu berrietan parte hartzeko modu bezala
- Ez dute inolako lotsarik gatazkan dauden herrialdeetara esportatzeko orduan, nahiz eta erakunde internazional edo estatalek horretarako mugapenak hitzartu izan; horretarako truko batzuek baliatzen dira, hala nola hirugarren herrialde batzuetarako esportaketak.
- Filial edo enpresa mistoak eratzen dituzte Hegoamerikako alde batzuetan, eta Asia, Ekialde Urruna eta Afrikaren Iparrarekiko komertzioa intensifikatzen dute.

Industria "arinak": atal honetan hurrengo industriak sartzen ditugu:

- beren ekoizpena batez ere militarra da, baina garatzen edo hornitzen duten ekoizpena (elikagaia, transportea, jantziak) ez da erabakitzailea gerrek eragiten duten sarraskietan.
- edo, nahiz eta armamendu edo tresna militarren ekoizpenean parte hartu, ez ziren asmo horrekin jaio, eta ez diote hari beren ekoizpen orokorraren barruan esfortzurik handiena ematen.

Azpikontzatak: Normalean guk "industria astunak" deitutakoen inguruan (zentzu zabalean) kokatzen diren enpresak dira, eta hauen babespean, beren azpikontzatazioa gehitzeko modua aurkitu dute, kasu askotan menpekotasun handiz, eta momentu honetan azpikontzatazioa (hau da, 1. taldeko enpresen ekoizpen handiagorearen barruan egin behar dituzten lan zehatzen buruketa) desagertuko balitz, neurri handiz, horrek enpresa hauen desagertzea ekarriko luke.

Adjudikatzaileak: Enpresa hauek, normalean haien ekoizpena industria militarrean ez oinarritu arren, Defentsa Ministeritzaren adjudikazioak hartzen dituzte, helburu horrekin zein beren ekoizpen arrunta suministatzeko helburuarekin, baina militarren kontsumorako, haien emaitza kontuetarako erekin handiak suposatzen dituenak. Jakina, askotan, beste taldeetan sartutako batzuek ere hartzen dituzte Defentsa Ministeritzaren adjudikazioak, baina horrek haien fakturazioan duen eragina ez da talde honetan sartzen ditugunetan bezain erabakiorra.

2.2.4.- HERIOTZAREN MERKATARIAK

Gure iritziz, armamendu lantegien kontrako edozein ekimen egitea erabakitzen dugun momentuan presente hartu behar dugu elementurik inportanteenetarikoa (inportanteena ez bada) heriotzaren merkataria argira ateratzeara izan behar dela.

Erantzunkizunaren zatirik handiena enpresa hauen jabeek dute, zinezko heriotzaren merkataria direlako, eskrupulurik gabeak, eta haien helburu bakarra beren etekinak handitzea dela, nahiz eta horretarako, alde batetik, gerra berriak piztu, eta bestetik, beren lantaldeak basatiki murriztu behar). Baina erantzunkizunaren beste zati handia Erakundeek dute, eta bereziki Eusko Jaurlaritzak, lan arloan problematika larrian dagoen sektorearen konbertsio politikak bultzatu eta esijitu ez izateaz gain, babestu, diruz lagundu eta batzutan zuzenean kontrolatzen duelako ondorio sozial zein laboral laggarriak (gerra gehiago, Hirugarren Munduaren pobretzea... eta sektorearen langile asko langabezira kondenatzea)



eragiten dituen politika enpresariala.

Salatu beharrekoa da ere arma esportaketaren praktika etengabea, bai kanpoko zein barruko gatazka belikoetan sartuta dauden herrialdeetara, bai herrialde ez garatueta, hauek beren zorpetzea eragiten duten arma erosketa eroen bidez haien ekonomia enpeinatzen dutelako (Hirugarren



Munduak duen Kanpo Zorraren %20 eta 30aren artean zuzenean sortzen da arma erosketarengatik), eta egoera horrek eragindako miseria gatazka berriak sortzen dituelako, hauek erreprimitzeko baliabide beliko gehiago beharko direlarik. Aterabiderik gabeko arazoa.

Baina berdin salatu behar da arlo horretan Gobernuak duen politika, arma langintza babestu eta diru laguntzeaz gain (jakin arren horrek bai arlo sozialean bai lanpostu sorkuntza arloan xahuketa izugarria suposatzen duela), gainera giza eskubideak bortxatzen dituzten gobernu diktatorialak dauden herrialdeetarako esportaketa errazten duten tresnak sortzen dituelako.

Eta aldi berean, elkertasuneko politika praktikatzeari preziatzen dira, haien Bakerako Ejerzito faltsuak gatazka armatuaren leherketa, haiek babesten dituzten armamendu enpresen politika esportatzaileek eraginda egon deneko lekuerara. Horren froga da munduko armamendu esportatzaile handien artean, 6etatik 5 Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren kide iraunkorrak direla, eta ustez, munduko bakearen mentenimenduaren arduradunak.

2.3- POLIZIA. DESORDENAREN BERMATZAILE BERRIAK

2.3.1- ALDAKETA


Orain arte Ejerzitoa Aberriaren Defentsaz arduratzen zen, barruko zein kanpoko etsaiaz. Soldadua gerra irabazteko dago, etsaia hil edo etsaiak hila izateko, suntsitu ala suntsitua izateko. Bere funtzioa kontrako biztanlegoaren eskubide guztiak bortxatzea da, horren errendizioa lortu arte. Bere presentziak disuaditzen du, etsaiaren aurrean bere asmo hiltzaileei buruzko sinesgarritasun osoa mantentzen duelako. Gerago Puntu Finalerako edo Beharreko Obedientziaren Legeek hiltzaile guztiak absoltutuko dituzte gizateriaren kontrako krimen hauetatik. Horregatik erabiltzen da presentzia militarra, tresna politiko bezala.

Baina gerra eta estatu kolpeek eragindako Ejerzitoaren tradizio odoltsuak eta erreklutamendu bortxatuek ez dute soldaduen leialtasuna bermatzen, izugarrikerietan parte hartzeari uko egiten diotela. Horretarako ordenak itsuki obeditzen dituzten gizon-emakumeen (hauek irudia egiteko osagai dekoratiboaren funtzioaz) korpu mertzenariak sortzen dira: Polizia eta Ejerzito Profesionala. Estatuak polizia (autonomikoa izan daitekeena) erabiltzen du, legitimatuz dagoelako, baina azken finean, armen erabileran entrenatuta dago eta jerarkia disziplinaz obeditzen du. Batzuk oraindik ere mantentzen dute polizia bakarrik baliatzen dela indarkeria armatuaz eta indarraren erabileraz beste metodoek huts egiten dutenean, Baina mendealdeko demokrazia batean, polizia Estatuaren segurtasunaren bermatzailea da, muga barruan hiritarrei askatasunak gozatzen baimendu ala debekatu ahal diena. Estatuaren ezaugarrien erakusgai nabariena da, armonia sozialean eraikitzea pazifikaren alde egin beharrean, bere korpu errepresiboez baliatu behar delarik.

Gobernu Militarrek jadanik ez du kontrolatzen; Justizia Militarrek oso kode zaharkitua erabiltzen du; Gobernadore Militarra argazkietan baino ez da agertzen; ez da beharrezkoa Salbuespen Egora dekretatzea. Koartelak, Estatu espainoleko herrialde askotan, desagertu egiten dira, komisaldegia berriak zabaltzeko. Polizia da orain disidenteen amets gaiztoa, ta informazioarako zerbitzu sekretua, CESID-ek -Defentsa Ministeritzaren agindupean- legez kanpoko laguntza antiterrorista eskaintzen du, Gobernadore Zibila Ordenaren super-polizia da, Lege Antiterrorista edo ZEN egitasmoak bezalako lege berriak sortzen dira, bideozelapena, kontrol soziala, eta Audientzia Nazionala bezalako tribunal bereziak.

Sistemaren iraupena eta Estatuaren integritatea indarrez mantentzeko Ejerzitoari zegokion ardura Poliziak hartu du, ta koarteleetan geratzen den Ejerzitoak ez du berehalako funtziorik lurraldearen barruan, Batasun Konstituzionala bermatzeaz aparte (Konstituzioaren 8. artikulua). Militarren ta guardia zibilen formazioak maila akademiko berbera dauka, eta bi korpuen ofizialak Zaragozako akademia beren entrenatzen dira 2 urtetan. Guardia Zibil "Beneméríta" k zibiletik izena baino ez duen fosil militarra da, profesional eta bolondresen tropa mistoaz eratua. Korpu honek Ejerzitoaren eta Poliziaren berezko diren lanak egiten ditu kontraesanik sofritu gabe, lehen azaldutako fenomenoia egiaztatzen duena: bi indar armatu hauek funtzio berberak mantentzen dituztela, Barne eta Defentsa ministeritzaren agindupean.

Islandia edo Costa Rica bezalako Ejerziturik gabeko Estatuak esistitzeak, barruko funtzio militarra poliziak edo NATO ta munduko polizia den



EEBBak bezalako superegitura militarrek bete dezaketela azaleratzen du.

Hala ere, gure kontrakoak ez dira izango pertsona polizia edo militarrek, haiek ere pairatzen dituzten eta soldata baten ordez besteei inposatu nahi dizkiguten erakunde ta balore militarrek baizik.

2.3.2- AREA TA FUNTZIOAK:

Poliziaren funtzioak handiagotzen dira Estatuaren barruan, barruko bakea eta kontrol soziala bermatzeko, etorkizunaren hiritar-polizia modelikoa eraikitzen den bitartean.

"Hiritarren Segurtasuna" Poliziaren aurpegi polita da, eta zerbitzu desberdinak barneratzen ditu: SOS larrialdien koordinaketa, Komisaldegia, Trafikoa, Brigada Mugikorra, Eskoltra (nortzuk ta noren kontra eskolatzen ditu?), Helikopteroak eta muga-egoeretako eskuhartzeak.

Hauetaz gain, oso gaitasun zabalak ditu hauteskunde prozesuetan (orain botua ordenagailuz ematea nahi dute), Krimen Ikerketa (Polizia Judiziala eta Polizia Zientifikoa), Atzeritartasuna, Asilo eta Dokumentazioa (zantzu genetikoaren bidezko identifikazio berria), Formakuntza eta ikasketak, Jolas eta Ikuskizunak, Administrazioa eta Informatika, ez-legezko drogak eta Esperxe Kontuak.

Egiazta daitekeenaren arabera, hiritarraren bizitzaren arlo guztiak kontrolatuta eta Estatuaren interesen azpiko datu bankuetan erregistratuta daude. Askatasunerako eskubidea larriko konprometiturik geratzen da, informazioa manipulatzeko, ideologia nagusia eratzen eta desobedientzia erreprimitzen duten erakundearen eskutik.

2.3.3.- DEKALOGOA?

Hauek dira, orokorrean, oraindik korronpituta ez dagoen polizia baten oinarritzko printzipioak.

* Zerbitzu publikoa: bere helburua legeak finkatzen eta mugatzen dituen askatasun ta eskubideen erabilera libre eta bakezkoa babestea da, horretarako indarkeria erabiliz, beharrezkoa balitz.

* Polizia zibila: ustez militarretik bereizita dagoen erakundea da, nahzi eta, Ejerzitoaren moduan, jerarkikoa, armatua, harroa, uniformatua,



matxista eta atzerakoia izan, inpunitatez hil eta tratu txarrak eragiteaz gain.

* Demokratikoa: nahiz eta kalifikatibo hau eraman, ez du inpartzialtasun ez neutraltasunik erakusten aukera ideologiko-politiko guztien aurrean, ados ez daudenek kontra eginez.

* Profesionala: pertsonala konfidantza ematen dutenen ta ideologia bera dutenen artean aukeratzeko da, horrela profesionalitatea zalantzatan geratzen delarik.

* Potere Judizialarekin koordinatua, nahiz eta honek bere independientzia teorikoa galdu eta politikoen tutoregoan egon.

* Komunitatean integratua. Polizia, saiatu arren, ez da ta inoiz ez da izan hiritar arrunt bat, bere funtzioa errepresoreen alboan kokatzen duelako; horregatik saiatzeko da duela hamarkada asko galdutako bere auzokideen konfidantza eta oneritzia berreskuratzea.

* Prebentiboa, ez errepresiboa. Bere egokitasuna delito batzuen errepresioan datza, ez komunitatearen arazoak zuzenki konpontzean.

* Integrala. Baina gutxiengo batzuen pribilegioak babestu ta defendatzen ditu, torturatu, beldurtu, eta gehiengoaren giza eskubideak arbitrarioki bortxatzen dituen bitartean.

* Indarraren baliabidea azken neurria bezala. Bere autoritatea afirmatzen du armak erakutsiz ta errespetu gabeko hizkera erabiliz. Normalean, uniformeak ematen dio nagusitasun jarreratik, teoriarik zerbitu beharko lukeen hiritarraren argumentuen kontra egiten du.

* Diskrezionalitatea. Ez du Legea zorrozki obeditzen: disziplinatua da eta dagokion moduan aplikatzen du, hortik tratua bereizteaz.

gertatuaz. Bere aldekoen esku ipintzen ditu baliabide guztiak, babesa eskaintzen die ta askotan ezikusiarrena egiten du. Besteentzat eragozpenak dira nagusi, eta modu errepresiboegian jokatzeko du.



2.4.- GASTU MILITARRA.

Defentsa militarren gastua, Giza Arloak, Kultura, Nekazaritza ta Hezkuntza Ministeritzetakoak baino handiagoa da, eta oraindik bikoizteko asmoak daude. Aldiz, gako sozialaren arabera segurtasunak giza garapena ahalbidertzen du, eta aurrekontu militarretan, armagintza industrian, ta NATO ta Euroarmadaren gastuetan xahututako baliabideak eskarzen ditu, hipokresia humanitario militarra salatzen duen bitartean.

GASTEIZKOAK ETA TRITON. Aurrekontu orokorren koadroa
GASTU MILITARRA



Aurrekontu militar osoa (Milioi pztatan)

	1997	1998
Defentsa Ministeritza	869.992	1.200.000
% Defentsa Ministeritza / PIB	1'1 %	1'25 %
Beste aurrekontu partidak	809.877	876.269
Izaera militarreko Klase Pasiboak	359.509	363.254
Guardia Zibila (Barne Minist.)	279.593	288.191
Kontzientzia Eragozleak (Justizia Minist.)	3.097	3.768
Industria Ministeritzaren kredituak	35.000	96.670
NATO eta UEOrako kuotak (Kanpo Arazoetarako Minis.)	1.221	1.169
Erakund. Auton. Administrat. (Defentsa Minist.)	92.783	93.386
Erak. Auton. Komertzialak (Defentsa Minist.)	34.841	35.065
Erak. Auton. Komertzialak (Guardia Zibila)	3.833	-
OSOTARA	1.679.869	2.076.269
% osoa / PIB	2'1 %	2'6 %

Aurrekontuez kanpoko gastuak, momentu honetan Industriak hartzen dituen Defentsako aurrekontuan ager ez daitezten:

- * 225 Leopard karro, 318.000 milioi pezetako balioaz
- * 4 fragata 330.000 milioi pezetako balioaz
- * 87 EF-2000 hegazkin, 1,3 bilioi pezetako balioaz
- * 8.047 milioi pezeta «Envolved Seasparrow» (ESSM) misilaren ekoizpenean parte hartzeko zuzenduak. 120 ESSM misil Armadarako.
- * 4.251 milioi pezeta 155 mm eta 203 mm kalibreetako jaurtikigaien eskurapenerako Santa Bárbara enpresarekin.
- Defentsarekin erlazionaturak dauden gastuak
- * Turkiari egindako material salmenta 300.000 milioi pezetako balioaz
- * Estatuak ezagutzen diren esportaketan erdia faltatzen du, ta horrela 1991-1996 denboraldian 150.000 milioitako esportaketak izkutatatu dira.
- * Defentsa Ministeritzak 60 milioi pezeta gastatu nahi du Euskal Autonomi Erkidegoan dauden hiru Ejerzitoaren kuartelak hobertzeko
- * Defentsak 1.868 milioi inbertitu du Ejerzitoaren profesionalizazioari buruzko publizitate kanpainan

Gastu militarra EAEn 1.996. urtean:

Estatuko gastu militarren kontribuzioa 98.808 milioi

Barne Saileko aurrekontua 59.784 milioi

Gastu militarra EAEn 158.592 milioi

Gastu militarra biztanleko EAEn 74.429 pzt.

Gastu militarra eguneko EAEn 434.498.630 pzt.

Gastu militarra orduko EAEn 18.104.110 pzt.

NATO-ko herrialde batzuen gastu militarra, NATO-ren kontuen arabera, hurrengo zen 1996an:

Frantzia: 3'0	Erresuma Batua: 2'9	Espainia: 2,6	Noruega: 2'0	Italia: 2'0	Holanda: 2'0
Dinamarka: 1'8	Alemania: 1'7	Belgika: 1'6	Kanada: 1'5		

Ejerzito profesional batean inbertitutako 2 bilioi pezetako gastuak (13.200 milioi dolar), NBEaren aurrekontu arrunta 10 bider da, erakunde

horrek 1996an duen bakea mantentzeko ekimen guztien gastua 9 bider, UNESCOaren aurrekontu arrunta 25 bider, 1996ko Elikagaietarako Mundu Programaren aurrekontua 11 bider, FAO-aren aurrekontua 20 bider, Osasunerako Mundu Erakundearen aurrekontu arrunta 15 bider eta UNICEF, Nazio Batuen Garapenerako Programa, Nazio Batuen Populazio Fondoa eta Elikagaien Mundu Programaren aurrekontu jarraiak 2.8 bider. Beraz, oso arrazoi sakonak egon beharko lirakeke kostu hori duen ejerzitoa mantentzeko, eta haien barruan seguruaski aipaturako nazioarteko erakundeen beharrak ez betetzea egon daiteke.


3.-DISIDENTZIA ARMATUA

Disidentzia armatuak, Historian zehar, adierazbide ezberdinak erakutsi ditu: iraultzak, matxinadak, errebolta, altxamenduak, okupazioak... Estatuek orden sozio-politiko defendatzeko burutzen duten militarizazioak, eta beren ideologiak gizartearen duen eraginak, talde disidenteen

Participación de menores en las guerras

Aumento del reclutamiento de niños soldados

Niños menores de 15 años reclutados en conflictos armados



En las décadas de los setenta y ochenta se reclutaban menores de 15 a 18 años. En los noventa se ha reducido la edad de reclutamiento a los 10 años.

Jóvenes menores de 18 años alistados para la guerra (datos 1997)

Afganistán	108.000
Myanmar	50.000
Sudán	31.000
Paraguay	27.000
Ruanda	20.000
Colombia	16.000
Angola	7.000
Estados Unidos	6.745
Reino Unido	4.991
Total de menores alistados en 1997	270.736

A. E. / EL PAÍS

defensa armaturako espezializazioa ekarri du.

Europar mende hasieran (Irlanda eta Errusia) indarrez agertzen den fenomeno honek, 60etako hamarkadan hartzen du indarrik handiena, Che Guevara bere paradigma antiimperialista izan zuelarik; eta indarrean dagoen legalitateak erreprimintutako legezko eskaera ez onartuen ondorioa da. Imperialismoak, esplotazioak eta bazterketak gatazka etniko, nazionalista, sozial eta erlijiozkoak ekartzen dituzte, ETA, IRA, GRAPO, Sendero Luminoso, MRT, FARC, EPR, HAMAS eta abarrek taldeetan ikusten den bezala; gatazka hauetan osagai hauen guztien nahasketa ematen da, eta batzuk pixkanaka gerrilla gerra izatera hel daitezke.

Gaurko egunean, asmo etnoseparatista dutenak izaten dira bizirik irauteko indar gehien metatzen dutenak, denboran luza daitekeen babes publiko handia daukatalako. Borroka armatuaren bidez Estatu berria (iraultzailea) sortu nahi dute edo negoziatzeko indarrezko posizioa lortu. "Terrorista" deiturik, satanizazio kanpainen jomuga eta gerra zikinaren gehiegikeria eta Estatuaren Segurtasun Indarren ustelketaren aitzakia nagusia dira.

Diferentzia handia daukate mafia edo nazioarteko krimenarekin, hauek, narkotrafikoa horren adibidea izanik, ekonomia aberatsa mantendu nahi dutelako; ez dute gobernu bota nahi izan ere, batzutan beren kanpainen finantziatzen dituzte- edo segurtasun sistemarik aldatu- azken finean usteldutako polizia haien menpean dago.

Borroka kontrainsurgentearen adituek (Erresuma Batuko edo EEBBetan ikasiak) komunikabideak erabiltzen dituzte iritzi publikoaren aurrean estigmatizatzeko fanatiko, maltzur, ero edo gaixo "iluminatu" en moduan.

Gizarte garatuak informatizazioaren pean ipintzen dira, eta ordenagailu sistemari egindako sabotaiak herrialde bat geldi dezake. Hortik dator hazten ari den infoterrorismo eta gerra zibernetikoari buruzko espekulazioa. Gerra informatikoak arma biologiko edo kimikoak euki dezaketena baino indar birrintzaile iraunkorragoa dauka. Beste aldean Estatuak babestutako terrorismoa ixilean lortzen da, gerrek koste handia ta irudi txarra daukaten garai honetan.

Borroka armatua indarkeria estrukturalaren ondorioa da, eta erantzun armatu honek Estatuak militarizazio eta kontrol soziala justifikatzeko erabiltzen duen indarkeri espirala elikatzen du. Etika antimilitaristak kuestionatua da eragiten duten giza sofrimendutik, jerarkizazioa sortzen

Recuento al final de la guerra


Refugiados

Desplazados albanokosovares en países vecinos a 10-6-99. 780.700 personas. Hay otros 81.705 repartidos en el resto del mundo. 1. Datos estimados.

Errores de la OTAN

1. Aleksinac (Serbia), 5-4-99. Impacto de un misil en una zona residencial.
2. Grelia (Kosovo), 12-4-99. Destrucción de un tren de pasajeros al cruzar un puente.
3. Prizren (Kosovo), 14-4-99. Ataque a una columna de vehículos de refugiados.
4. Srdulica (Serbia), 24-4-99. Bombardeo de un barrio de casas individuales.
5. Luzane (Kosovo), 1-5-99. Destrucción de un autobús que cruzaba un puente.
6. Nis (Serbia), 7-5-99. Estalla una bomba junto a un hospital y un mercado.
7. Belgrado (Serbia), 8-5-99. Impacto de un misil sobre la Embajada de China.
8. Korisa (Kosovo), 13-5-99. Matanza de civiles en el bombardeo de la población.
9. Belgrado (Serbia), 19-5-99. Las bombas matan por error a pacientes de un hospital.
10. Istok (Kosovo), 21-5-99. Bombardeada una cárcel serbia con presos del ELK.
11. Srdulica (Kosovo), 30-5-99. Un sanatorio es alcanzado.
12. Varvarin (Serbia), 30-5-99. Ataque contra un puente.

Fuente: ACNUR, OTAN, AFP y Reuters.



Fuerzas de la OTAN

Buques desplegados

13 EE UU (un portaaviones)	1 Alemania
7 Francia (un portaaviones)	1 Grecia
6 Reino Unido	1 España
3 Holanda	1 Turquía
	1 Italia

Aportación española

6 Cazabomb.	F-18	Aviano (Italia)
1 Transporte	C-130	Aviano (Italia)
1 Transporte	CASA 212	Vicenza (Italia)
1 Fragata	'Numancia'	Mar Adriático

Aviones desplegados

Día 23-3-99	Total, 371
EE UU, 210	EE UU, 785
Resto, 161	Resto, 342

Principales objetivos atacados

- Destacamentos militares y de la Policía Especial yugoslava.
- Estado Mayor del Ejército serbio.
- 34 puentes.
- Residencia presidencial de Milosevic.
- Sede de la Televisión serbia.
- Antenas de radio y televisión.
- Sede del Partido Socialista de Milosevic.
- 8 aeropuertos y bases aéreas militares.
- Ministerios del Interior, yugoslavo y serbio.
- Centrales eléctricas.
- Dos tercios de las refinerías.
- Fábricas.

Pérdidas humanas

- Según Belgrado, 460 soldados, 114 policías y 2.000 civiles.
- Según la OTAN, más de 10.000 personas entre muertos y heridos.

A consecuencia de los misiles y bombas, 600.000 personas perdieron su empleo en Serbia. El 50% de los habitantes sufrieron falta de agua y electricidad.

dutelako, kasta bereziak sortzeko duten arriskuagatik, eta osagai armatua "segurtasun"aren zutabe nagusia izan behar delakoaren ideia mantentzen laguntzen dutelako.

Armada Zapatista -1994- fenomenon insurjente berria da, ta oraindik ezin da ezagutu epe luzera izango duen garapena. Printzipioz bere asmoa ez da poterea hartzea, Mexikoko transformazio prozesuan gizarte zibilari (Fronte Zapatista) protagonismoa eman eta gero desagertzea baizik, ta baita ere paramilitarrek edo Mexikoko gobernuaren Ejerzitoak berak indigenen kontra zigorrik gabe egiten dituzten sarraski neurrigabekoei aurre egitea.

Osagai armatua arreta deitzeko osagaia da; beren arma nagusia ondo zaindutako irudi publikoaren zabalpena da, haien legezko eskaeretan (zapatisten 16 eskaerak) oinarritua. Frontea -96- zapatista, zibil eta baketsua da, ta autoantolaketatik garatu nahi du partehartze politikoa, giza-multzo eta jendeen autonomia errespetatuz, behetik gora, obedituz agintzea, gizarte eraikitzeke une egokian, haien bizi egoera lagarriak hobetuz.

4.-ALTERNATIBA SOZIAL ANTIMILITARISTA (ASA)

A.S.A. printzipio batetik abiatzen da: militarra ezin da izan talde, komunitate edo herri baten osagai kohesionatzen duen elementua.

Potere horren inposaketa da giza harreman justuagoak ezartzeko esperantzak desagertarazten dituen, pertsonen artean nagusi izan behar den sentimendu askatzailea apurtzen dutelako.

Estatu espainolaren politika defentsiboaren garapena hiru momentu handitan laburbil daiteke:

- 1.- Garai frankistan Ejerzitoa gairadimentsionatuta zegoen, ta ez zen egokia lan defentsiboterarako, "barruko etsai"ari begira zegoelako, erregimen diktatorialari erantzuteko sortzen zen edozein saiakera kontrolatzeko. Militarren papera arlo defentsiboa baino gehiagora zihoan, eta gizarte osoaren norabide politiko ta sozialaren gaineko eskuhartze argira heltzen zen.
- 2.- Transizio garaian egitura militarra aldatzen hasi zen, beren benetako pisu politikoa izkutatzeke, eta material ta pertsonal politika egokitzeke.
- 3.- PSOE-ren gobernuaren garaian berregituraketa tekniko ta politiko horri jarraitu zaio, ta Ejerzitoari ekintza arlo berria eman zaio: nazioartea. Horrela, referendum ekaiztu baten ostean Estatu espainola NATO-ren barruan sartu zen, eta atzerriko herrietan egindako ekintzak gehitu ziren, "Basamortuaren Ekaitza" eta ONU-ren banderaren pean Jugoslavia-ohiaren eskuhartzean parte hartu genuelarik. Garapen honek egitura defentsiboaren aldaketa, sakona izanda ere, posiblea dela egiaztatzen du, eta horretarako ezinbesteko baldintza bakarra,

**POR ENSEÑARTE UNA
PROFESIÓN, NO COBRAMOS.
PAGAMOS.**

CON SANGRE



Aprende uno de las profesiones más modernas. Elige tu futuro entre las más de 100 especialidades que existen en las Nuevas Fuerzas Armadas Profesionales. No cobramos. Al contrario, pagamos un sueldo desde el primer día. Ahora es tu oportunidad.

**PROFESIONALES
CON FUTURO**
PARA NUESTRA MEJOR DEFENSA

4.500 PLAZAS
HASTA EL 15 OCTUBRE

INFÓRMATE EN EL TELÉFONO
902 432 100
O EN TU CENTRO DE RECLUTAMIENTO

**FUERZAS ARMADAS
PROFESIONALES**
MINISTERIO DE DEFENSA

burutzeko borondate politikoa egotea dela. Beraz, Estatu espainolaren arlo defentsiboaren eboluzio historikoa ikusita, edozein aldaketa "ezinezko" izat jotzen zuen jarrera "errealista" desfasaturik geratzen da.

Gizartearen defentsaren eztabaida sozial eta politikoari buruzko eztabaida izkututzen den momentuan, mugimendu antimilitaristak eztabaida hori indartzeaz gain, pentsamendu teorikorako lerro eta gizarte osoak asumitu eta burutu dezakeen praktika politiko koherentea garatu nahi du.

Gaurko dokumentazioan erabiltzen den terminologiak "Herri Defentsa Ezbiolentoa" deitzen du (HDE). 70ko hamarkadaren aurrean diseinutako-kontzeptu batetik sortzen da termino hori, egoera politikoak "defentsa" eta "herri" hitzak sartzea behartzen zuenean. Baina hori marxismotik edo mugimendu alternatibotik interpretatzean gaizkiulertuak ekarri ahal zituzenez, hitz horiek baztertzearabaki dugu.

Izendapen hau aukeratu dugu (A.S.A.), baina hurrengoaren artean beste edozein erabil zitekeen: Partehartze Sozialerako Alternatiba, Alternatiba Ezbiolentoa, Alternatiba Ezmilitaristak, Alternatiba Sozialak, Desobedientzia Ezbiolentoa, Aldaketarako Erresistentzia Ezbiolentoa...

Beste ereduetatik erraz bereizten da edukietan, ideologia politiko, ekonomiko ta sozialean, bitarteko ta helburuetan.

Kapitalaren kontrakoa den gizarte berria eraikitzea nahi du, talde sozial guztien lanari esker lortuko dena (bakezale, naturzale, feminista, sindikalista, giza eskubideen defendatzaile, Hirugarren Munduarekiko solidarioak...).

4.1.- ASA - ALTERNATIBA SOZIAL ANTIMILITARISTA

Tresna eta helburua da batera; bitartekoak koherenteak dira garatu nahi den utopiarekin. Prozesuan zehar errealitate antimilitaristak sortzen diren heinean, etorkizun antimilitarista eraikitzen da. "Alternatiba", beraz, desmilitarizazio prozesuaren amaiera izan daiteke, edo prozesu osoan zehar helburu horrekin egiten den ekintza bakoitza.


Lehen aipatu genituen NBGParen "giza segurtasun"ari buruzko planteiamenduekin bat, ASA-tik adierazten den defentsaren ideia Gizateriak bere historia osoan zehar eskuratu dituen lorpen eta eskubide sozial, politiko eta ekonomikoak defendatzea da.

ASA-k defentsa sozialari jarrera iraultzailea eranstean dio, giza lorpenak defendatu, hobetu eta berriak lortzen saiatzen delako. Justizia neurri

handiagoak lortzeko, egituren kontzepzio dinamiko eta aldakorra dauka. Desobedientzia Zibilarekin elkartzen da, gizarte honetan jerarkia eta autoritarismo osagaiak horizontalitate edo oinarritzko demokraziaz ordezkatzeko badiara.

Ezin da elkartu Defentsa militararekin, bere alternatiba delako, eta bere gunea bete duelako.

Adibide puntualak daude gaur eguneko historian (langile mugimendua, Gandhi, Martin Luther King, Thoreau...) eta gure eguneroko errealitatean (beste batzuen artean, insumisio antimilitarista, Solidarios con Itoiz, eta herri ta gutxiengoen eskubideengatik, aberastasun ta enpleguaren banaketagatik, edo euskara eta baztertuak hizkuntzengatik borrokatzen dutenak) erresistentzia zibilaren eta ASArekin efikazia argitzen dutenak.



Guk defentsa militararen aurrean aurkezten dugun alternatiboa ez da oposaketa eta kritika soilak: gobernu kanpoko erakunde eta beste talde sozial askok bizitza politiko eta sozialeko arlo askotan alternatiba eraikitor eta eraginkorrek eskatu dizkiete gobernu ta gizarteari. Beste adibide bat %0.7 Plataforman lan egin duten pertsonen egindakoa izan da. Beren eskaera apala, printzipio lagunkideetan oinarritutako garapenari laguntzeko bidearen defentsaren aldeko borroka da. Beren ekintza ezbiolentoa eta elkarriketaren aldekoa izan zen; alde aurretik jokatu nahi zuten Hirugarren Mundua deitutakoaren azpigarapenaren kausa baten aurrean: "garatuak" deituriko herriak baino aberasten ez dituen nazioarteko orden ekonomikoa.

Hau bezalako adibideak arruntak dira, ta pertsona bakoitzak parte hartu duen mugimendu sozialeko ekintzak aztertuko balitu, seguruaski benetan beharrezkoa den zerbait defendatzeko ekintza zehatzak egiten ari direla aurkituko luke; hauek guztiak defentsa militararen alternatiboa ezbiolento erreal, eraginkor eta berriak dira.

Borroka sozial ezbiolentoa arlo askotan zentratzen dira: ekologia, bizileku duina, herrien eta gutxiengoen eskubideak, sexismo baztertzailaren kontrako borroka, eskaera sindikalak, arrazismoaren kontrako borroka, nazioarteko elkatasuna eta Giza Eskubideetan, besteak beste; eta borroka hauek guztiak, globalki garatu eta antolatuak, erabakiorrak dira.

Ikuspuntu honetatik, ez da ulertu behar (ta inoiz ez da ulertu izan) ekintza ezbiolentoa "pasibitate" edo injustizien aurreko sumisio bezala: indarkeria eragiten duten gatazkak azaleratzeko eta modu eraikitorrean tratatzeko modua da.

Azpimarratu behar da ere "Nazioarteko arma komertzioaren gardentasunaren alde" kanpaina, Nazioarteko Amnistiak, Greenpeace-k, Intermon-ek eta Mugarik gabeko Medikuek eramaten dutena, Estatu espainolak burutzen dituen armamendu inportaketa eta esportaketak

publiko egin daitezen eskatzeko (hobe izango litzateke alde aurretik ezagutaraztea, horrela injustizia ebitatzeko), gizarteak azter ditzan eta horiei buruz erabaki dezan. Iniziatiba honek lehenengo pausua suposatzen du (tamalez, gobernuari borondate oneko keinua baino ez dio eskatzen) arlo militarren kostuari buruz informatuta egon eta erabakitzeko eskubidearen aldeko gizararen borroka ezbiolentean.

Inportantea da ere, ta konprometzu pertsonal eta sozialean beste pausu bat suposatzen du, Gastu Militarari Zerga Erazgozpenaren aldeko kanpaina: Defentsa Ministeritzara bidali beharreko diru kopuru bat beste leku batera bideratzea, eta defentsa ez militaristaren kontzeptua, eskubide, askatasun eta justizia, edo bakea eta elkartasunaren alde lan egiten duten taldeei gure zerga aitortpenaren ehuneko zehatz bat bidaltzea. Adibide hauek ASA eraiketa utopiko edo irrealak ez dela egiaztatzen dute; orain eta hemen, eguneroko errealitatean, gertatzen den ekintza politikoa konprometitu eta elkartasunezkoa da, eta ikus daitezkeen fruitu batzuk ematen ditu. Esate baterako: ezin da ukatu defentsa militarari buzu gazteriek duen mentalitatea aldatu dela. Orain dela 20 urte Zerbitzu Militarra ukazinezko betebeharra eta Ejerzitoa mugitu ezinezko errealitatea zirala pentsatzen bazen, orain gazteen oso kopuru handiak uste du ez dela gizararen interesak defendatzeko modurik onena, eta gainera Zerbitzu Militararrari aurre egiten dio, laguntza-eza, legearen kontrako ekintza eta desobedientzia zibilean oinarritutako kanpaina publiko eta kolektiboan parte hartuz, delinkuente bezala zigor, espetxeratze, isun eta inhabilitazioak pairatuz: insumisioa.

Desobedientzia zibil antimilitarista, azken urteetan zehar, defentsa sozial alternatiboaren adibide argia izan da: gerrarik ez dagoenean ere militarismoak gizartea erasotzen duelako. Kontuan hartu behar da honek guztiak gazterien defentsa kontzeptuaren aldaketa suposatzen duela. Eta ezin da ukatu ere, horrekin batera, gizarteari elkartasun ta legitimatzerik analisisa eta alternatibak proposatzen dituen ekintza politikoa dela; eta ez ditu teoriarik soilki proposatzen, praktikan ere baizik.

Defentsa Zibilaren moduan, pixkanaka desarmatzea, industria militarra zibil bihurtzea eta Ejerzitoen desagertzea planteiatzen du. Baina gainera, ez du nahi "potere militarra" "potere zibil"ak ordezka dezan (honela politikoei eta jakitun zibilek aginduz, Egiaren kriptaren zaintzaile berrien moduan), "potere sozial"ak baizik, biztanle guztiek detentatzen dutena. Laguntza eta elkarriketa jarraian dauden erakunde sozial horizontalen sareak erabakiko eta eraikiko du etorkizuna, sekreturik gabe, dena jende osoarentzat publikoa izanik.

Transarmea priorizatzen dugu, hau da, desmilitarizazio pausuek gizararen poterearen hartzea ekarri behar dute pausuz-pausu antolaketa eta defentsa arazoetan.

Gatazka belikoak, une zehatz batean lehertzeko elkartzen eta indartzen diren mota guztietako tensio edota injustizien izeberg-aren punta izan ohi dira. Mugimendu bakezale ezbiolentoei badaki gerrei amaiera emateko esperantza bakarra haiek sortzen dituzten gatazketarako neurri alternatiboak aztertu eta proposatzea dela. Horregatik, ASA-k bere erroan nahi die gatazkei aurre egin, ez soilik bere momentuzko adierazpen zehatzetan. Beraz, ASA-ren lehentasuna da indarkeria estrukturalagatik (hau da, indarkeria ekonomio, politikoa eta soziala, sistemaren egiturek sortzen duten lehentasunezko indarkeria dena, eta beste edozein sistemak sortuko lukeena) sortutako gatazka guztietan lan egitea.

Gatazkek sortzen dituzten egoerei (hau da, indarkeria estrukturalari) aurre egin eta haiek konpontzeko konprometua ez da posible izango ez bada saiatzen gure gizarteerako biztanle guztiek defentsaren arazoan berdintasunez joka dezaten. Beste modu batean esanda: hiritar guztiek hartu behar dute parte modu ezbiolento ta eraikiorrean beren eskubide ta askatasunen defentsan, ta haien hobekuntzan ere.

ASA-k dituen oinarritzko helburuen artean bat, defentsa sozializatzea edo herriratztea da. Baina defentsa herriratztea ez da gure gobernuen azken kanpainetan esan dena: sutsuki eta baldintzagabeko ta kritikagabeko atxekimenduz onartzea merkatarien eta polizien jokabide patriotiko-europarrak, hausnarketa eta eragiketa asko itzalpean uzten dituen "aditu" edo parlamentari talde berezi batek diseinatutako defentsa militaristarenak, hain zuzen ere. Defentsa herriratztea kontrakoa da: pertsona ta talde sozial guztiek (alderdiak barne) ezagut eta parte har dezatela zabal eta erantzunkizunez defentsa politikaren (eta baita ere politika orokorraren) helburu eta oinarritzko metodologiaren definizioan. Askatasunen defentsa, eskubideen defentsa, bizi egoerako hobekuntzaren defentsa, egunetik egunera, denon betebeharrak herriaren borondatea manipulatze gai diren (eta usteltzeko gai diren) teknikoen menpe utzi gabe.

Enfrentamenduen kasuan, protagonismo osoa emango zaie gatazkaren aurrebabeesteko osagaiei, ta ez osagai disuatazaileei; hau da, arartekariaren paper diplomatikoak ez erasotzeko asmoa eta arazoa konpontzeko nahia transmititzen du.

Modu honetan indarkeria lehertzeta (edo handiagortzea, Gandhi eta Luther King-ek definitutako indarkeriaren espiralaren progresioan) ebitatu nahi da.

Bere lan arloa gizararen oinarritzko gatazkek dira, estrategiko edota ideologikoki ezbiolentoei diren oinarritzko taldeen partehartze berdinkor eta elkartasunezkoan oinarriturik.

Lehenengoz gatazkaren kausak aztertzen dira, askotan pobrezia, menpekotasuna, erregimen politiko autoritario eta militaristak... izaten direla. Kanpoko arloan, nazioarteko elkartasunezko lagunkidetasun politika baten bidez, gatazkaren kausak mozten eta etorkizunean berriro piztea ebitatzen saiatuko da. Barruko arloan, kontzientiazio kanpainak emango lirateke, elkar ulergarritasuna eta beste kulturetarako ulermena eta errespetua bultzatuz, elkar ezagupenaren eta konfidantza bideak sortuz elkartrukeen bitartez, etab.

Gutariko batzuen ustez, ezbiolentzia mugimendu guztiak ASA ideala eman ahal izango den egoera sozialera heltzeko bidea dira; beste batzuentzat, borroka askatzaileak dagoeneko dira ASA-ren errealitate apala; bitartekoa helburua da ere.

Badakigu, dena den, utopia hau urrun dagoela, eragozpen asko egongo dela eta pertsona askatu ta solidarioa lortzeko lan pedagogiko sakona beharko dela.

4.2.- KONBERTSIOA: ETORKIZUNAREN ALDEKO APOSTUA

Orokorrean, Konbertsioa honela defini dezakegu: "gaur helburu militarreko erabiltzen diren teknika, ekipo eta bestelako baliabideak helburu

zibil alternatiboetarako erabil daitezen beharrezkoak diren prozesu politiko, ekonomiko eta teknologikoak bultzatu nahi dituen estrategia".

Lanpostuen defentsa:

Konbertsioaren nahia da gaur gastu militarretan, armamendu lasterketetan, enpresa militarrei emandako dirulaguntzetan... erabiltzen den dirua, beraren helburu bakarra monopolio militar-industrialaren (eta orokorrean militarismoaren) interesen babesa baita, gizarteen benetako beharrak betetzeko zuzenduta dagoen ekoizpen berri bat bultzatzeko erabilia izatea (hortik dator "Bakearen Dibidendua"ren izena), populazio bakoitza eta bere inguruaren arteko oreka kontuan hartuz, eta beren benetako interesen defentsari laguntzeko helburuarekin.

Prozesu deszentralizatua:

Honek gaur fabriketan esistitzen diren teknologia eta ekipoen inbentarioa egitea suposatzen du: ekoizpen zibil alternatiboak zehaztea, momentu honetan eskuan dauden ondasunez haiek ekoiztea posible den ala ez aztertuz, langileak birgaituz eta ekoizpen alternatiboek eskaera nahikoa edukiko duten ziurtatzeko merkatu ikerketak burutuz.

Konbertsiorako arazoak:

Desarmatzen proposamen desberdinen artean, Konbertsia polemikoenetarikoa da. Lehenengoz, burutua izateko gobernatzaile estatal zein lokalen borondate politikoa eta ukitzen dituen alde guztien (enpresariak, lengileak, ingeniariak, ta populazioa orokorrean) prozesu partehartzaile eta demokratikoa behar duelako. Ta bigarrenaz, hainbeste potere duen konplexu militar-industrialaren interesak ukitzen dituelako, orain arte izan duten egoera pribilegiatua arriskuan ikusten dutelarik.


Prozesuari hasiera emateko inizatibak:

Hau bezalako prozesua abian jartzea ez da sortuko gizararen interes orokorreki kasurik egiten ez dieten erakundeetatik, ez haien emaitza kontuen datuak baino aztertzen ez dituzten enpresariengandik.

Beharrezkoa izango da orduan, lehenengo neurri bezala, hurrengoan partehartzea:

* Langile eta sindikatuek bultzatutako taldeak, lanpostuen mantenimendua begiratzeaz gain, gizartearentzat baliagarri izango diren ondasunak ekoiztea ere bultzatuko dutelarik, bide horretan erabakiak hartzeko orduan langileen partehartze handiagoaz arduratuz.

* Estatuko Aurrekontu Orokorren prioritateak aldatzeko beharraz lan egingo duten laguntza taldeak, egitasmo sozialak, zerbitzu publikoetako



infrastrukturak, hiri barrutien garapena, ingurugiroaren defentsa eta iraupena jomuga berria bilakatu.

- * Armen ekoizpena eta Hirugarren Mundua delakora bidaltzearen kontra dauden mugimendu bakezaleak, antimilitaristak, nazioarteko elkartasunezkoak, erlijiozkoak, medikuak, etab.,
- * Intelektualak, irakasleak, unibertsitariak eta gastu militarrek ekonomia zibilean duen eragin kaltegarriak arduratutako edozein pertsona. Gaur, inoiz baino gehiago, ezinbestekoa da militarismoaren ezaugarri ekonomiko desberdinei aurre egitea.

4.3- EKINTZA: DESMILITARIZAZIOA

Jarraian aipatuko ditugu Alternatiba Sozial Antimilitaristaren errealitate apalak diren ekintza batzuk, asko zaindu behar ditugunak: ZEHATZAK:


- * Ejerzitoaren efektiboen birziklaia profesionala beste lanbide batzuetarantz.
- * Gastu militarra arlo sozialerako bideraketa.
- * Arma ikerketa, ekoizpen eta komertzioaren konbertsioa, osasun, hezkuntza eta abarrek helburu sozialetarantz.
- * Aliantza militarretatik alde egitea, nazioarteko elkartasunaren aldeko apostuan.



- * Bakezko nazioarteko alternatiba: partehartzaile bolondresen kasko ezbiolentoak.
- * Desobedientzia bultzatzea:
- * Hirugarren Munduak pairatzen duen esplotazioaren aurrean
- * Esperxea, polizia eta errepresioa.
- * Militarismoa laguntzeko behararen aurrean, kontzientzi eragozpena.
- * Gastu militarrei zerga eragozpena.
- * Arma lantegietan, lan eragozpena.
- * Insumisioa.

IRAUNKORRAK:

- * Bake Heziketa, eskubide eta giza eskubideen aldeko borroka praktikoa bezala, bai hezkuntza formalean (eskola, instituto eta unibertsitatean) bai ez-formalean (astialdian).
 - * Bolondresgoa bultzatzea, benetako kalte sozialeen kontrako oinarritzko talde ezbiolentoen bidez.
 - * Baliabide ekonomiko autonomoak lortzea, hala nola ekoizpen, erabaki eta kontsumorako alternatibak.
- Utopía Contagiosa: Ánimas k/, 3 - 4. A, 28911 Leganés, Madrid.
 Mambrú: 1.286 P.K., 50080 Zaragoza.
 Tritón: 13 P.K., 28901 Getafe.
 Gonzalo Arias: Casatuya, El Zabal, 11315 La Línea (Cádiz).
 Valentziako MOC-ek 1997-ko otsail-martxoan burututako idazkia, Utopía Contagiosak Leganés-en, 1995ean egindako izen bereko lanetik abiatuz.
 Xabier Agirre: Jugoslaviya-ohiko eskuhartzeak.



ORDEZKO ZERBITZUA ETA BOLONDRESGOAREN LEGEA:

- 2.4.1. Zergatik?
- 2.4.2. Nola?
- 2.4.3. Bolondresgoaren legea:
 - *1-Saritzea
 - *2-Bortxatzea
 - *3-Burokratikoa
 - *4-Ondorioa

2.4.- ORDEZKO ZERBITZUA ETA BOLONDRESGOAREN LEGEA:

2.4.1. ZERGATIK?

Indarrezko arrazoiak, eragozle, insumiso eta beste eragile sozialei eta Bolondresgoaren legeri buruzko edozein erabakiren erroa, ARRAZOI MILITARRA da (Disidentzia kontrolatzeko Estatuaren arrazoiak). 1996ko Bolondresgoaren Legea beste lege saiakera bat da Kontzientzi Eragozpen bihurria domestikatze.

Ejerzitoaren iraupena da kontua; profesionalizazioa solik izango da posible bi baldintza hauek betetzen badira: soldadu bolondres gehiago, eta aurrekontu militar handiagoa.

Lege honen lehenengo helburua konkripzioa, hay da, Estatuari zerbitzu bat emateko beharra, mantentzea da; horrela soldadu bolondresen kopurua hazten ere lagunduko da: "joan behar badut, behintzat kobratuz izan dadila". Bigarren helburua, bolondres ta profesionalen soldadak, jubilazio militarrek, ekipamenduen eguneratzea, hemen ekoiztutako arma saltzaileen komisioak, etab. ordaintzeko dirua lortzea da, beste partida batzuetan (hots, gastu sozialean) aurreztuz. Eta dirua emango ez zaien prestazio horiek nola edo hala bete beharko dira... Imaginatzen duzue 200.000 gazteren ejerzito bat (400.000ena, emakumeak ere sartzen badira) urtero Ongizatean, Osasun sailan, eta abarrean dohainik lan egiten? Kalkula daiteke zenbat aurreztuko duen Gobernuak gastu sozialeetatik eta gastu militarrean inbertitutako dutela, eta horrela jakingo dugu zergatik "inposatzen" duten Bolondresgoaren Legea.

Baina lege honek ez du harrera onik lortu talde sozialeen aldetik. Talde hauek ez dute parte hartu Legearen idazketan eta ez dute, "Gobernuz Kanpoko" izena mantentzeko, Estatuaren kontrolpean erori nahi. Europa osoan, Zerbitzu Zibilen Legea da elkartasuna arautzen duen marko berria, eta elkartasun hau Estatuaren zerbitzu soilean ipini nahi du, GKEen eskuzabaltasun eta independentzia deuseztuz.

Bolondresgoaren Legearen bitartez baztertu egingo da eragozpenen gainetik dagoeneko esistitzen den bolondresgo kontzientzatu hura, akreditaziorik edo onurarik bilatu gabe lan egiten duena, gizartearen aldaketa sozialean parte hartzea duena helburu bakarra.

2.4.2. BOLONDRESGOAREN LEGEA

Legearen helburua hiritarrek bolondresgo ekintzetan parte hartzea bultzatu eta laguntzea da (1. art.). Baina 4 lerro baino ez du erabiltzen asmo deklarazio anbiguo baterako.


1- Bolondresgoa bultzatzea ez da bera saritzea: Bolondresgoa bultzatzeko beharrezkoa litzateke elkartasunezko baloreak zabaltzea, hiritarren partehartzea mundu justuagoa lortzeko zein inportantea den ikustaraztea, aberastasunaren banaketa injustua ekarri duten kausei buruzko informazio egiazko ta ez paternalista ematea, dagoeneko esistitzen diren eta laguntza behar duten elkarte ugariak ezagutaraztea, ta haien lanak egiteko eragozpen asko duten elkarteen lana erraztea. Baina inzentibatzea, saritzea edo edozein pribilegio mota ematea pertsona zehatz batzuk bolondresgoan sar daitezkeen guztizko kontraesanean dago inolako kontraprestaziorik gabeko lan aske eta solidarioa izan behar lukeenarekin.

2- Bolondresgoa bultzatzea ez da bolondres izatera bultzatzea: Oraindik larriagoa da Legeak aurikusten duen "bolondresgoa bultzatzeko" bide bitxia: bolondres izandako denbora Derrigorrezko Zerbitzu Militararen edo derrigorrezkoa ere den bere Ordezko Zerbitzuaren denborarekin konbalidatzea (15. art, Borondatezko zerbitzuaren ezagupena). Legearen helburua ez da zerbitzuari egindako zerbitzuak konbalidatzea, gizarteari egindako betebeharrak baizik. Adin militarrean dagon gazteak jakin behar du hemendik aurrera hiru aldaera duen betebeharraren aurrean egongo dela: Soldaduzka, Ordezko Zerbitzua edo Bolondresgo Ofiziala. Gazte batek egoera honetan "bolondresgo ofizial"aren alde egitea ulertzekoa da, baina hau guztia, emango diren zerbitzuaren kalterako izango da, gazte askok bokazio eta kontzientzia sozialik gabe egingo dutelako. Elkartasunak, bera praktikan ipintzeko borondate askea eskatzen du, eta ezin da etorri betebeharrak edo kanpoko presio baretik. Gobernuak entitateak eta eragozlean sobornatzen ditu, azken hauek bultzatuz Zerbitzu Militararen Ordezko Zerbitzua lehen ere egiten zuten taldean egitera: GKE batean, talde ekologistan, alderdi politiko baten gazterietan, etab. Gainera, laguntzen duten elkarteek ("bolondresgo sozialeko elkarteak" deituak izango direnak) abantaila bat izango dute: dirulaguntzen kopurua bertan lan egiten duten bolondres kopuruarekin doa. Estatuak horrela bokazioz gabeko bolondresgoa bultzatzen du, bere asmo maltzuraren neurria egina. Lege honek "dirulaguntzak mesedeen truke" ideia indartuko du, bolondresgoa bultzatuko duela esan beharrean, "sarituko" duela esaten duenean; eta soiliko sarituko du, gainera, elkarte zehatz batzuetan egingo den bolondresgoa, hauek, kurioski, jadanik estatuaren laguntza handiak dituzten eta Gobernuaren politikari kritika gutxien egiten dioten elkarteak direlarik. Gero, profesionalizazioa ziurtatuta dagoenean, lege hau justifikatuko duten argumentuak goitik xehetasun guztiez kontrolatutako Estatu baten diseinuari erantzuten dion "elkartasun"ekoak izango dira; hiritarra esaneko eta akritiko kontsideratzen duen elkartasuna, hain zuzen ere; horren partehartzea Estatu gure aitarekiko betebeharrak eta eskubideetan gauzatuko duena. Lege honen asmoa ez da, gure ikuspuntuaren arabera, bolondresgoa bultzatzea, bera arautzea eta kontrolatzea baizik.

3- Bolondresgo burokratiko: lan sozialaren arlo desberdinetako hiritarren konpromezua erraztu ordez, Lege hau bere instituzionalizatzea errazten du.

Erakunde hartzaileek "bolondresari erraztu beharkio diote bere lanaren buruketarako gaitu eta identifikatuko duen akreditazioa", eta baita ere "betetako zerbitzuak akreditatuko dituen agiria eman" (8. art., 2 g eta h atalak).

Agiri au ondo etorriko da postu horietara sartzeko, edo besteei "zein solidario gauden" jakinarazteko, baina atzerapausua suposatzen du



MAHÍLI: PARA CELEBRAR EL DÍA DEL EJÉRCITO LAS MUJERES DE ESTE PEQUEÑO PAÍS SIGUEN LA ANTIGUA TRADICIÓN DE OBSEQUIAR A CADA SOLDADO TABLETAS DE KAOE, UN TÍPICO DULCE ELABORADO CON SEMILLAS DE PUAT.



GINEBRA: UN INFORME DEL UNICEF REVELA QUE CRECE EN TODO EL MUNDO EL NÚMERO DE NIÑOS VÍCTIMAS DE ABUSO SEXUAL. EN LA FOTO, UNA MADRE OFRECE SU PEQUEÑA HIJA A UN ÍGNOTO SOLDADO A CAMBIO DE UN POCO DE CHOCOLATE.

gizartearen kontzientziario sozialaren eta arazo sozialen konponbidearen inplikazioaren bide zailean. Elkartasuna ez da truke txanpona izan behar agiriak ez inolako pribilegioak lortzeko.

Bolondresak hartu nahi dituzten erakundeetarako beste betebeharrak bat legalki eratuta egotea eta nortasun juridiko propioa izatea izango da (8. art., 1. atala).

Bolondresgoaren bizkortzeak bere eragiketa ahalbideratzen eta errazten duten kanpaina zehatzak behar ditu, eta inola ere ez bere garapenari mugak eta baldintzak ipintzen dizkion Lege bat.

3. atala



1.-DESOBEDIENTZIA ZIBILA (DZ)

Desobeditzea injustua edo biolentoa kontsideratzen den autoritate edo arau bati ezetz egitea da.

Desobedientzia, plano pertsonalean, gaitasun psikiko indartsua eskatzen duen baieztapen ekintza da, bakarrik egoteko (eta batzutan huts egiteko) kuraia beharko dugulako. Plano sozialean, desobedientzia askatasunaren baldintza da.

Bere zentzu eraikikorrenean hartuz, desobedientzia ekintza batek beti suposatzen du bere kontraaldeari obeditzeko beste ekintza bat, autoritarismoari ezetz esatea beti izaten delako proiektu partehartzaile bati obeditzea.

1-1 PERTSONALA

Ezarritako lege edo arauak desobeditzeko aurrejoera, gizakiaren aintzineko jatorrietatik lotuta dago beridanik.

Desobedientziaren bitartez gutariko bakoitzak geure ekintza bakoitzean dugun ahaztutako potereaz jabetzen gara berriro. Desobedientzia ez da ihesa, zinezko erantzunkizun adierazpena baizik. Desobeditzea, izan ere, programaketari sistematikoki ezetz esatea da (izate alienatua garen heinean, geure buruari ezetz esatea); desobeditzea geure burua berreskuratzea da, geure buruaz jabetzea eta kontrola lortzea, aske izatea.

Ez da pertsona bakoitzaren betebeharra munduko gaiztakeria guztien kontrako borrokan parte hartzea; zilegia denez, beste ardura larriago batzuk eduki ditzake; baina behintzat, praktikan ez dio injustiziari babesa eman beharko. Ziurtatu behar naiz ez diodala nik neuk salatzen dudak kalteari laguntzen.

Obedientziak eragozten ditu giza-emakumeak adin nagusitasunera heltzea, honek autonomoki erabakitzeko eta eskaera totalitarioei ezetz esateko gaitasuna suposatzen duelako.

Estatuaren, Eleizaren, autoritatearen edo iritzi publiko masifikatuaren poterearen menpean nagoen bitartean, ziur eta babesean sentituko naiz, inguratzen nauten guztiek onartuko naute. Nire obedientziak poterean parte hartzea bermatuko dit, ta horregatik indartsu sentituko naiz. Ezin hutsik egin dezaket, potere horrek neure ordeaz erabakitzen duelako; ezin egon naiteke bakarrik, berak begiratzen naudelako; ezin egin dezaket pekatutik, berak ez didalako uzten. Obeditzen duenak ez du justifikatu beharrik; legearen kunplimenduan babestuta egoteaz gain, moralki zentsuratik aske dago.

Obedientzia honek izate inbertsonal bihurtzen gaitu; gizarte latz eta insolidario baten engranaiaren zatia gara. Indibiduo-antolaketa hau ez da konturatzen ere obeditu egiten duela. Ez du azterketarako, kritikarako, iniziatibarako, ezta ere zalantzarako gaitasunik.

Nahiko gutxi dira desobedientzia kasuak, obeditzeko prest daudenak aginte, exigentzia eta sarien bidez intimidatzen dituztelako, eta obeditzeari uko egiten diotenak, difamatzea, degradazioa, langabezia, espetxea edo heriotza bezalako presio baliabideez ikaratzen dituztelako. Pertsona desobediente garen puntutik, itxuraz beti izan behar dugu jarrera defentsiboa, horregatik zaurituak izan gaitezke larrik; baina benetan, aktiboak garelako eta arrazoiz kargatuta gaudelako egiten bairugu.

Desobedientzia zibilak estrategia eta koherentzia ezbiolentuan bere lekua izango badu, hau soilik izango da posiblea desobedientziarako hezkuntza bat ematen bada. Estatu injustuari eginiko oposaketa handia ez da posiblea izaten injustizia txikien kontrako oposaketetan trebatu egin garenean.

1-2 POLITIKO-SOZIALA

Gizateriaren garapen espirituala soilik izan zen posiblea edozein potererri ezetz esaten ausartu ziren pertsonak egon zirelako. Bere garapen intelektuala, pentsamendu berriak ixildu nahi zituzten autoritateei eta aldaketak zentzurik ez zuela uste zuten iritzi batzuen autoritateari desobeditzeko gaitasunaren menpe egon zen.

Gizateriak bere burua hiltzen badu, jendeak heriotzaren botoiak sakatzeko agintzen diotenak obedituko dituelako izango da; beldur, gorroto eta kutiziazko aintzinako grinak obedituko dituelako; subiranotasun estatal eta etsaien odolaz garbitzen denaren ohorearen klitxe zaharkituak obedituko dituelako.

DZ-aren printzipioa edozein injustizia motari ezetz esatea da; beraz, Zuzenbidearen aurrean ezin makurtu daitekeen printzipio etiko eta gizatiarra da. Zuzenbidearentzat jokatzeko modu txalogarri baino ilegala da, honek desobedientzia ekintzak zigortzen dituelako. Injustizia posible egiten duena ez da lege injustua, lege injustu honi obeditzea baizik; eta injustizia honen kontra borrokatzeko modurik onena lege hori desobeditzea da.

DZ-a estrategia KOLEKTIBOA da, amankomunean erabakitako eta burututako, eta gizartearen ongizate orokorrak arduratzen diren talde hiritarrek babestutako estrategia delako; PUBLIKOA da, publikoki azaltzen eta zabaltzen baita, hiritarren justizia zentzuari deitzeko eta horrela partehartze soziala laguntzeko; EZBIOLENTOA da, erresistentzia aktiboa eta ekintza zuzenean oinarrituta baitago; eta bere helburuak POLITIKOAK dira, oinarritzko aldaketa sozialak bilatzen dituelako, eta ez delako iteera pertsonal edo juridikoekin konformatzen.

Laburki, desobedientzia ekintza politikorako tresna da, izaera etiko zalantzarria duten beste batzuen kontrako puntan. Indarkeria borroka armatuaren eta parlamentarismoaren oinarritzko osagaia da, ta azken honetan neuri handiagotan, indarki armatutako Estatu bati indarkeriaren monopolioa ematen zaiola ezkututzen duelako.

Desobedienteak kritikatuak izan daitezke aldaketa tresna bezala baliabide legalak ez erabiltzeagatik, baina gogoratu behar dugu DZ-aren balioa



ekintza politiko zuzena dela. Ta itxuraz kontraesangarria bada ere, justizia egoera batzuk errespetatzen diren eta legeak promulgatzen diren "zuzenbidezko sistema demokratiko" batean, DZ-ak badu zentzua norberaren eta taldearen askatasunak defendatzeko eskubide bezala, ta baita injustiziari aurre egiteko betebeharrak bezala ere. Erabakiak eta legeen sorrera demokrazio ordezkatzailerik (ez partehartzaile) baten markoan gertatzeak ez du bermatzen lege horiek justuak direnik, ta beraz ez du haiek betetzeko beharra justifikatzen. Non legoke kasu horretan hautesgehiengoaren erabakiak betetzeko behararen muga?

Demokratikoa izan nahi duen gizarteak, aurre egiteko eskubide eta beharra bizitzeko politikaren oinarritzeko osagaia dira. Estatu batek krimenak burutzeko edo norbera edo bestea baten duintasuna kaltezeko eskatzen duenean, obeditzeari uko egiteko beharra dago.

Desiragarria dena ez da legearen errespetua lantzea, justiziarena lantzea baizik. Asumitzeko eskubidea dudan betebeharrak bakarrik, momentu bakoitzean justu kontsideratzen dudana egitea da. Baina kontzientziadun pertsonak osatutako gizarteak, kontzientziadun gizarteak da. Legeak inoiz ez ditu pertsonak justuago bihurtu eta, ematen dien errespetuagatik, askotan asmo onak dituztenak ere bihurtzen dira injustiziaren eragile. Nik ez diet urruneko "etsaiei" aurre egiten, etxetik hurbil beraiekin lan egin eta babesten dituztenekin baizik; ta azken hauek gabe, beste horiek ezingo lukete kalterik egin.

Beste alde batetik, DZ-ak ez du errudunik bilatzen, defizit sozialaren kausak baizik; beraz, bere proposamenek ideia txarrak baino ez dituzte baztertzen. Mundu osoaren partehartzea eskatzen du, definizioz. Bitarteko eta helburuak koherenteiki elkarosatzen diren estrategia da, erabilitako bitartekoen eta oraingo egoeran duten esanahiaren bidez eraikitzen baitoaz helburuak, etorkizuneko gizarte alternatiboa.

Erresistentzia ezbiolentoaren historian, une eta inguru desberdinetan, bilatzen ziren helburuekin koherentzia zeuden praktika desberdinak garatu dira, lan egiteko espazioari etekin handiena ateratzea saiatu delarik, hala nola: DZ-a, laguntzarik eza, antolaketa sozial alternatiboa, kontrainformazioa, gose greba, manifestazioa eta presio publikoa, eraginen arteko elkar laguntza, eta sabotajea ere. Historiak benetan ezbiolentoak ziren jarreretatik inspiratu eta bultzatutako sabotajea testigantza ugari ematen digu, beste kontsiderazio batzuek gain, pertsona edo taldeen integritate eta duintasunari buruzko guztizko errespetua edukitzeaz karakterizatzen direnak, salatu eta aldatu nahi diren ekintza horietatik argi bereiziaz.

DZ-a praktikatzeko duten giza mugimenduei beren helburuak lortzea interesatzen zaie, baina beti gizartearen laguntza. Gizartearen aldetik ez da posible izango denok bere barruan murgilduta ez bagaude, ahalik eta partehartze sozial handienaz. Bere jarrerak eraikiorrak eta pedagogikoak izan behar dira. Desobedientzia ez da protesta tresna soilak, gauzak aldatzeko modu egokia baizik, giza aldaketarantz zuzenduta baldin badago.

Gizartearen aberastasun soilak bilatzeaz gain, duintasun gehiago ematea da bere asmoa, denon ongizatearekiko konprometuzko pertsonala. Desobedientzia taldeak burutu behar da, bestela ez luketelako zentzu sozialik edukiko. Taldeak indartu behar du guztion kontzientzia, jendeak kontzienteki parte har dezan arazoaren konponketan.

Desobedientziak arlo pertsonal eta soziala biltzen dituen zerbait globala izan behar du, eraikiorra izan behar du, alternatiba arrazoizko eta egokiak eskaini behar ditu, alternatiba horiek gabe jendeak ez baitu desobeditzen, dagoena obeditzen du.

1-3 AURREKARI HISTORIKOAK:

Ekintza ezbiolentoaren oinarria, egitura injustu eta biolentoak hiritarrek gobernatzaileei dien obedientziari esker mantentzen direlako idea da (menpekotasun baimendua). Gizartearen egitura piramidalak beheko mailen menpekotasuna eta hauen goikoekiko obedientzia errazten ditu. Gure proposamena goiko mailak mantentzeari uko egitea da.

PERTSONALIAK

Estatuaren kontrako aurrekaririk inportanteenak Thoreau, Mexikoko kanpaina militarra laguntzeari uko egin ziona, eta Tolstoi, esklabuen askapenaren alde lan egin zuena dira. Lehenengoak espetxean bukatu zuen; bigarrena dekomekaturia izan zen, eta Siberiara deportatua izateko zorian egon zen. Baina ezagunagoak dira mundu literarioko pertsonak bezala.

Gandhi eta Luther King. Beren herriak besteek ixurita gabe aserik gabe askatzeko saiakeran lagundu zuten. Ia estoikoki jasan zuten legeen aplikapena, gobernuentzat betetze hau desegituratzaile bihurtzen zen puntura arte, lege zehatz batengatik (beti berbera) zigortu behar zituzten pertsonak milaka zirelako. Modu honetan egoera jasangaitza zen aldaketara behartzen zuena.

HERRIAK.

1-4 OSAGAIK

Laguntzarik eza. Eskubide eta askatasunak arautzen dituen sistemaren baliabide legal batzuetan parte ez hartzea da. Thoreau eta La Boétie-k proposatua, norbanakoen partehartze aktiboa eskatzen duten kontu sozialetan indarrean dagoen araua ez betetzea da beraren asmoa. Laguntzarik eza edozein legalitate motatik kanpo dago, giza legimitatea deitu ahal genukeenaren barruan dagoelako.


Autosalaketa. Desobedientziaren borrokan beste pausu bat da. Burutzen duenarentzat justua den baina ilegala den ekintza baten onarpen publikoa da. Errua aitortu eta zigorra onartzen da, horrela zigor sistemaren lagarritasuna deslegitimatuz eta argitara ateraz.

Aldaketa. Kontuan hartu behar dugu desobedientzia aurrerapenaren oinarritzeko motorra dela, zaharkitutako egitura injustuaren kontra egiteaz, poterea zerbait ematera behartzen baitugu, mantenduko bada.

Presioa. Desobedientziaren indarra presio soziala da. Zigorren pilaketa eta desobedienteen legeen onarpena, paradoxikoki, sistemarekin "sumiso" bihurtzen ditu hauek. Paradoxa honen bitartez, errua egin duena bere ekintza zigortua ikusi nahi duen lehenengo pertsona da. Indar paradoxiko honek sistema dinamizatzen du, zigortua izan nahi duen jendeaz asetzen duelako, horrela sistemaren eskasiak argira ateraz.

Indibidualizazioa. Desobeditzen duten beren buruari buruzko kontzientzia izan behar dute, zapalduetako edozein motako izaki biziek konpartitzen duten indarrezko menpekotasun sentimendutik abiatzen direlako. Azken finean, pertsona espezie baten kidea delako ideia da bere buruaren alde borrokatzea daramana. Gizateria aurrera doa bera osatzen duen kide bakoitzak egiten duen heinean. Norberarentzat onena dena bilatzen da, ta hau, praktika politikoan, guztiontzat onena dena izango da. Hau gizartearen egitura formalaren arloan Darwin-en aukeraketa naturalaren aplikapena besterik ez da.

Masifikazioa. DZ-ak arrakasta izango badu, milaka pertsonak burutu behar dute. Ekintza hauek indibidualki egiten direnean, ez dago nahikoa osagai sistemak egoera birplanteia dezan, ta beraz ez da aldaketarik gertatzen; baina kasu kopurua zabala denean, justizia ez dago antolatuta



DESObEdiTzen

desobedientziaren arazoa konpontzeko ez bada arlo legalaren bidez, horrela sistema saturatzen eta desoreka sortzen delarik, ta hau ez da konponduko sistema legalaren aldetatik baino.

2- DESOBEDIENTZIA ANTIMILITARISTA

2-1 INSUMISIOA

Zerbitzu militarari eginiko insumisioa, DZ berriaren abiapuntua izan da, eta profesionalizazioaren kontrako borrokan jarraitzen du. Kontzientzi Eragozpenaren Legea (KEL) sistema militarra asumi dezakeen aukera baten bitartez disidentzia moldatzeko Estatuak egiten duen saiakera da. Horrela sortu zen lege hau, kontzientzi eragozpena bere esanahia ematen dion aukera aldatzailerik gabeko zerbait bihurtzeko zuzendua; kontzientzi eragozpena inoiz ez baita izan soilik injustua kontsideratzen den lege baten kunplimendutik norbera askatzea, baizik eta, batez ere, lege hori aplikatzea ezinezko bihurtzea bere desobedientziaren bitartez, mantentzen duen sistema injustua zalantzatan ipiniz. 1984 urtetik indarrean dagoen KEL-a, mugimendu antimilitarista oso garatuta zegoen momentuan heldu zen, ta egoera horregatik sakonki deslegitimatuta geratu zen, Europako beste herrietan gertatu ez zena.

Administrazioak eman nahi duen lehenengo pausua, fenomenoaren indibidualizazio eta apolitizazioa da. Estatuak ezagutzen duen eragozlea, arau orokor bat betetzeko arazo bat duen pertsona da. Horregatik tribunal baten forma duen filtroa sortu behar da, eragozle izateko "agiri ofizialak" ematen dituen.

Ordezko Zerbitzua disidentzia biguntzeko beste tresna inportante bat da, eragozle edo entitate prestazionista ezagutua izateko eskaerekin bat, ta honek guztiak Kontzientzi Eragozpena eta Bolondresgoa (Bolondresgoaren Legea) militarizazioarekin bateragarria den zerbait bihurtzen dira. Tresna disuatazile hauekin, zerbitzu militarren kontra dagoen gehiengo horretatik, praktikan disidentzia egiten duen gutxiengo bat sortzen da. Gazteek joku enganizatzaile eta mehatxagarri honetan parte hartzeari uko egiten dioten heinean insumisioa agertzen da.

Enfrentamendu zuzena eta instituzioen kolapsoa ebitatzeko, 1988ko maiatzaren aurreko insumisioak amnistiatuak izan ziren, ta momentu honetatik PSOE-ren gobernuak eragozleak Ordezko Zerbitzua egitera behartzeko lehenengo saiakera indartsuak egin zituen, horrela lehenengo diligentzia militarrek ireki zirelarik.

Frankismoarekin lotzen zuten irudiengatik, eta bere baitan oinarritzko eskubideak ez zirelako onartzen, gizarteak Indar Armatuekin





gaitzetasuna oso sakona da, ta beraz, prudentzia politikoak eta Ejerzitoaren irudia gehiago ez zikintzeko nahiak Gobernuak insumisio delitua Justizia eta espetxe zibiletara eraman zezan bultzatu zuten. Denbora pasatu ahala, gizartearen presioak espetxe zigorra ezkutatzera daramatza, isun eta inhabilitazioa (heriotza zibila) ezarritik.

Insumisioa DZ-eko estrategia bat da, Derrigorrezko Zerbitzu Militarra (DZM) edo Ordezko Zerbitzua egitera behartzen gaituen legea desobeditzean datzana, bi zerbitzuok ejerzitoen esistentzia legitimatzen eta babesten dutelakoan. Bere azken helburuak ejerzitoen desagerpena eta gizartearen maila guztietako militarismoaren ezabaketa dira (arlo politiko, ekonomiko ta ideologikoan). Erakunde militarren desagerpena nahi du, eta gizartearen berregituraketa dinamikoa planteiatzen du desmilitarizazioaren etekinaz, gero eta larriagoak diren arazo sozialak konpontzeko beharrea oinarriturik.

Insumisioek beren betebeharrak pertsonekin dituztela uste dute, ta ez erakundeekin. Beren jarrera politikoa da, ez pertsonalista, ta horregatik DZ-aren teknikak erabiltzen dituzte. Eragozle edo insumisioaren oinarritzko ideia elkartasunarena da (ez karitate zentzuan, justizia bezala baino). Puntu honetan aldaketa soziala sartzen da.

Antimilitaristak gizartearen arazoekin arduratutako pertsonak dira, ta honek giza bolondresgoan lan egitera daramatza; astialdiko taldeetan, hirugarren munduaren aldeko erakundeetan, langabetuen, emigratzaileen, gutxiengoen, ingurugiroaren, drogazaleen, presoaren aldeko taldeetan lan egiten dute. KEM, EKEA edo KAKITZAT bezalako talde antimilitaristek, zerbitzu militarrenaz gain, nazioarteko egitura militarrekin zerikusia duten beste gai batzuk lantzen dituzte: profesionalizazioa, gastu militarra, arma ekoizpena eta beraren komertzioa, zerga eragozpena



edo bakerako hezkuntza, besteak beste.


Azken urteotan borroka honen amaiera ikusten hasten gara, Ejerzito ereduaren berehalako aldaketarengatik. Europako mendebaldean Derrigorrezko Zerbitzu Militarren desagerpena hiru faktoretan datza: aurrerapen teknologikoa eta "gerra artearen" garapena (faktore militarra); gizartearen beraren eta ideologia politiko nagusiaren eboluzioa (faktore politiko-soziala); ta giza mugimenduen ekintza, Estatu espainolaren kasuan prozesua asko azkartu dutelarik (faktore antimilitarra). Mende berri honetan borroka antimilitaristak, zerbitzu militarren abolizioaren aldeko etapa beteaz, aurrera egiten du, Indar Armatuaren profesionalizazioaren kontrako desafioan.

2-2 KUARTELETAKO INSUMISIOA.

1997an "kuarteletako insumisio" kanpaina abiatzen da. Kanpaina honek, armatutako modernitatearen eta bolondres ta behartutako erreklutatuen ejerzito mistoaren diskurtso bakarraren kontrako proposamen antimilitarista berria izan nahi du. DZ-ean oinarritutako estrategia da, gaurko egoera aldatu nahi duena modu antolatua, kolektibo, publiko ta ezbiolentean.

Bere prozedura sinplea da: gazteari agintzen zaion momentuan kuartelera joatea da eta militar izaera lortuaz, kuartela uztea eta aurkezpen kolektiboa egitea, desobedientziaren zioak azaltzeko. Geroago kuarteletako insumisio honek aurre egingo die bere ekintzaren ondorio legalei, ta hauek tribunal militarrek gerra kontseiluetan ezarritako espetxe zigorrak izango dira.

Helburu nagusia, dagoeneko hasia den ejerzitoaren deslegitimazio prozesuan sakontzea da, bere benetako funtzioak argira ateraez, eta eredu



profesionalak dakarren irudi garbiketaren kanpainari kontra eginez. Agerian uzten du berriro ere estatu-ejertzitoa eta gizartearen kontrako gatazka bat esistitzen dela, orain arte derrigorrezko zerbitzu militarren inguruan joan dena, baina edozein ejertzito motarekin gertatzen dena, gizarteak behar eta nahi duen defentsa eredu baina bere funtsa. Defentsa ereduari buruzko benetako eztabaida iratzarri nahi da, zertaz defendatu nahi dugun, nola, eta zeintzu diren gure gizartearen benetako etsaiak; hauek dira erantzun beharreko galderak. Kuarteleko Insumisioak (KI) eztabaida berriro arlo militarren kokatzen du, ta honek insumisioa militarismoaren kontrako ekintza zuzena delako irudia argiago uzten du. Gobernuak esfortzu handiak egin ditu insumisioari buruzko arazo bakarra desobedienteentzat egokiena den zigorra dela esateko, eta arlo militarrekin zerikusirik ez balu bezala aurkezteko; baina horren aurrean, insumisioek oraindik ere esan nahi dute beren desobedientziaren jatorria ejertzitoen desagerpenaren eskaerarekin eta eredu sozial justuago eta solidarioago baten eraikierarekin lotuta dagoela.

2-3 ZERGA ERAGOZPENA (ZE)

Dokumentatuta dagoen insumisio motarik zaharrena Zerga Eragozpena da, ta bere lehenengo aurrekaria Thoreau estatubatuarra izan zen, eskalbutzaren eta Mexikoko inbasioaren salaketa moduan zergak ordaintzeari uko egin ziolako. Gerra batek irauten duen bitartean mila pertsonak uko egingo baliote beren zergak ordaintzeari, neurri hori ez litzateke latz ez krudela izango; baina ordaintzen badituzte, Estatuari indarkeria ekintzak egiteko eta errugabeen odola ixurtzeko bidea ematen zaio.

Gobernuak esaten duenez, ejertzito profesionala merkeagoa, egokiagoa eta "humanitario"agoa izango da. Kasurik merkeenean ere, Estatu espainolean urtean 1,2 bilioi balio izango du.

Dirua arlo militarrean bideratzeak Osasun, Hezkuntza edo Lan arlotik kentzea suposatzen du, ta argi ematen du "medicamentazo" delakoa eta Leopard tankeen erosketak zerikusi zenbait dutela.

Gastu militarren handitzen honen aurrean Zerga Eragozpenak garrantzi berezia hartzen du. ZE-a kontzientzi eragozpen modu bat da; bertan parte hartzen duten hiritarrek ezetz esaten diote gastu militarren finantziaketan parte hartzeari. Horregatik gerraren eta bere prestakuntzei aurre egiteko tresnen artean dago, kontzientzia antimilitaristaren arrazoietatik bideratua.

ZE-a injustua baina legala den zerbait amai dadin, lehenengo pausua berari laguntzea delako komentzimendu pertsonal eta erantzuletik abiatzen da. Horrela Defentsa gaiei buruz erabakitzeke orduan geure protagonismo propioa asumitzen dugu, ta iniziatiba hartzen dugu eraiki nahi dugun gizarte motari buruzko eztabaidan.

DZ eta laguntzarik ezaz errotzen den ekintza honen funtsa, gaurko egunean, sinplea da: Pertsona Fisikoen gaineko Errenta Zergaren aitopenean diru kopuru bat deduzitzea. Momentu honetan 7.000 pezeta eragozteko proposatzen dute, kopuru hay gure aitopenearen kuota

likidotik deskontatuz. Garapen proiektuetarako %0.7aren kanpainak "7" zenbakia testimonial bezala ekarri du. 7.000 pezeta hauek proiektu alternatibo batera zuzenduko ditugu, ta geroago Ogasunaren aurrean erreklamatuko ditugu.

Dedukzio hau egitean, haien asmoa ez da dirua "ebaditzea", beren zergen diruari erabilera alternatiboa ematea baizik, gastu militarren lagundu beharrean, benetan defendatu behar dena (etxebizitza duina, kalitatezko osasun zerbitzua, lanpostu egokia, geure hizkuntzaz hitz egiteko eskubidea, hezkuntza dohakoa, ingurugiroa mantentzeko eskubidea...) defendatzen duten proiektu alternatiboak bultzatzeari lagun diezaioten. Laguntzen diren proiektuak mezu antimilitarista zabaltzen dutenak, militarismo edo gerrak eragindako kalteak konpontzeko laguntzen dutenak edo Bakea, Elkartasuna eta gatazken konponketa ezbiolentia bultzatzen dutenak dira: gazte indigenekin kooperazioa, arrazakeriaren kontrako borroka, lekualdatutako elikadura laguntza, Emakumeari aholku zerbitzuak, erakunde babesa uzten duten gazteen promozioa, osasun psikiko edo fisikoari buruzko hezkuntzaren hobetzea, bertako abere eta landare moten babesa, eta abar.

Mundu justuago baten eraikiera ezin da etorri NATO bezalako bloke armatuak mantentzetik, edo auskalo zer defendatzeko, giza-emakumeak etsaiaren eta beren odola ixurtzeko entrenatzetik. Berriro ere erabaki behar dugu gastu militarrek suposatzen duten xahuketa neurrigabe honi ezetz esatea, ERAGOZPEN FISKALA eginez.



2-4 LAN ERAGOZPENA

Borroka sindikalak, tradizioz, greba erabili du borroka tresna bezala. Esplotaketa pairatzearen kontrako borroka lan egoeraren hobetzea ekarri du, oraingo momentuan koiunturak beste zentzura apuntatzen badu ere.

Enpresa baten administrazio kontseiluak ez du eskubiderik bere langileen esfortzuak material militarren ekoizpenera bideratzea erabakitzeke.

Non geratzen da, bada, lanpostu duin baten eskubidea?

Zaila da arma langintzaren kontra borrokatzea eragindako lekuen ekonomiaren planifikaziorako programak eduki gabe; horregatik da hain beharrezkoa kontzientziatutako sindikatuetatik egiten den lana eta teknikoetatik eman dezaketen laguntza, arma industria arlo zibilelara aldatzea lortzeko.

3- DESOBEDIENTZIA ZIBILEKO BESTE BORROKA BATZUK

90etako hamarkadan zehar oso arlo desberdinetan burututako insumisio kasuak ezagutu ditugu: Herri Epaitegietan parte hartzearen kontrakoa, hautes-mahai edo mahai sindikaletan buru izatearen kontrakoa, autopistetan ordainsaria ordaintzearen kontrakoa...

Bere errore kultural eta soziala kontuan hartuz, lau adibide hartu dugu.

3-1 SOLIDARIOAK

Itoizekin Solidarioak taldeko ekintzek, ikusgarri eta transzendentea izan zena barne, ekosabotaia eredu bat erakusten dute. Horma eraikitzeko zementua zeramaten Rotaflex-en bidez egindako mozketak, hori guztia telebista eta komunikabideen aurrean, desobedientzia ekintza da; ta jasan zuten atxilotaketa biolentoaren ostean, bere epaiketa ta espetxeratzeari buruzko informazio segimendua ere egon zen.

Itxuraz, kontra egin zioten legea jabetze pribatuarena bada ere (kableak), argi dago beren helburua gaurreguneko Estatuaren funtzionamendurako oinarritzeko legea dela, enpresa eraikitzaileak baliabide publikoen xahuketa kontuan hartu gabe aberasten dituen legea. Beren ekosabotaiaz desobeditu zuten legea politikoen autoritarismo despotikoarena da, makroproiektuei buruzko eztabaidan hiritarren partehartzearen aurrean; beren lege propioen kontra egiten duen legea (Hegaztiak Babesteko Gune Bereziak ureztaturik geratuko lirateke); orekan dagoen ekosistemaren bitxi bat eta armonikoki bizi den biztanlego bat aurreramenduaren izenean sakrifikatzen duen legea.



Itoizekin Solidarioak taldeak segitutatako prozesua desobedientzia zibil baten eskuliburuan egon beharko litzateke; pertsonekin biolentziarik gabea den eta salaketa publikoa lortzeko legea transgreditzen duen ekintza publiko batekin hasten da, eta honi Estatuaren erantzun errepresiboa



jarraitzen zaio. Talde honen ekintzan kableen mozketan kausatutako kalte kolateralak sabotaia beraren inponderableak izan ziren, ta horrela egiaztaturik geratu zen taldeko zortzi kideen asmoak guztiz argiak zirela eta desobedientzia estrategia baten barruan kokatzen zirela. Jendearen Solidarioekiko babesak baieztatu zuen borroka ezbiolentoaren ekintzak, desobedientzia zibilaren funtsa, gizarte oso sakonki erroten direla, eta neurri handian ordezkatzen dutela gizarte horrek beren politiko edo erakundeengan sentitzen duen errepresentagarritasun falta. "Solidarioek" erakutsi ziguten nola erakundeekiko elkarriketaz lortu ezin dena, beste modu indartsuago batez aldarrikatu behar den; baina hori bai, pertsonen gaineko indarkeria erabili gabe.



Presaren kableen mozketak, Alemanian mailukadaz gerra erreaktor bat birrintzea edo Huelvako meatze baten isurketa toxikoak estaltzea, desobedientzia zibilez kutsatutako sabotaia adibideak dira, ta ekintza hauek guztiek lortu zuten lokartutako gizarte baten kontzientzia iratzartzea, honek ikusten baitzuen beren atzean injustizia asko ta asko egiten zirela, hauteskundeetan bozkatutako ordezkariek ezer egiten ez zutelarik ebitatzeko.





3-2 OKUPAZIOA

Erxebizitza duina eta gune autogestionatuak izateko eskubidea soilik bihur daiteke posible, independizatu eta gurasoei haien zama kendu nahi dien gazteen iniziatiba antolatuen bidez.

Okupazioaren aldeko mugimendua, erxebizitza bat edo proiektu eta ekintzak garatzeko lekuak lortzeko ezinezotasun legeetik sortzen da. Kausa sakonak beste puntu batzuetan bilatu behar ditugu: pisu hutsen kopuruak kausatutako espekulazio inmobiliarioak eragindako pisuen salneurri neurrigabekoa, laguntza ofizialaren eskasia, eta gazteriaren gehiengoaren lan egoera kaxkarra.

Okupazioaren mugimenduak, gehienetan, desobedientzia zibileko estrategiak erabili ditu; eta bai okupatzen dituzten lokaletan sartzeko, bai desalojoaren kontrako erresistentzia, mugimendu honek erresistentzia aktibo eta pasiboaren taktikez jokatu du, askotan bandera bezala aldarrikatu dutelarik poliziaren aldetik pairatzen ari ziren errepresioa.

Europar mugimendu honek lortu duena nabaria da Holanda bezalako herrietan; herri honetan, izan ere, haien egoera normaltzea lortu dute, borroka legal gogor baten bidez, jabeek hutsik utzitako lokal eta piso askori erabilgarritasuna emanez, eta zalantza kanpoko status legala lortuz. Hemen oraindik gaude errepresioaren fasean, baina honek ez du esan nahi laster jabetze pribatuaren legearen kontrako desobedientzia estrategia honek ez duenik etekinik lortuko. Okupazioaren mugimenduak bere estrategia mantentzen duen bitartean, gizartearen sektore askoren onespina izango du, lehen kutsadura eta zikinkeria iturriak ziren lokal batzuk astialdi eta kultura gune bihurtzea ondo ikusten bairute hauek.

3-3 EUSKARA

Hizkuntza gutxiengotuen aldeko borroka, ta konkretuki Euskarak pairatzen duen bazterkeriaren kontrakoak, desobedientzia epaitegiataran eraman du. Abokatu euskaldunen taldeak epaileak salatu ditu Justizia Administrazioarekiko tramiteak bi hizkuntza ofizialetan normaltasunez egitea eragozteagatik. Lehendik estau behar diren interpreteen esistentziak ez du hiritarraren hizkuntzaz eginiko defentsaren eskubidea bermatzen, ez delako komunikazio berbera lortzen hizkuntza beraz mintzatzen diren bi pertsonen artean eta itzultzaile baten bitartez.

Talde honetako abokatuak zigorrak jasan dituzte beren jarreragatik, eta beren hizkuntzaren defentsa sutuak espediente batzuk ekarri dizkie, baina baita ere talde hiritar, kultural eta politikoen babesa. Bilboko Audientziaren fiskal nagusi berriak, bere inbestidura hitzaldian, euskararen egoerarekin sensibla dela esan du, eta Justizia arloaren euskalduntzea lortzeko beharrezkoak diren pausuak emango direla ziurtatu du.



3-4 INSUMISIO INSTITUCIONALA

EUDIMA mankomunitateari lotutako euskal udalek ez diote laguntzarik ematen DZM-erako mutlak erreklutatzeari. Erreklutamenduaren legea desobeditzen duten alkateen kontrako jazarpena, insumiso eta alderdiekin koordinatutako borrokaren zati bat da.

Insumisoei aplikatutako zigorrak isun eta heriotza zibilean gauzatzen dira; hau da, hiritar eskubideen galera. Inhabilitazioen ondorioz, insumisoak ez du eskubiderik dirulaguntzak lortzeko (hezkuntzarako eskubidea), etxe batez jabetzeko laguntzak lortzeko (erxebizitzarako eskubidea), arlo publikoan sartzeko (lanerako eskubidea)...

Zigorraren gogorra ezin da ulertu, ez bada kontuan hartzen erakunde militarra zalantzan ipintzea sistema konstituzionalaren oinarria zalantzan ipintzea dela. Puntu honetan sortzen da administrazio funtzionarioen desobedientzia ixila, hauek ez baitute zigorra betearazten, onartezina dela uzten dutelako.



1. SARRERA

Lehenengo haurtzarotik ideia kontrajarriak sartu dizkigute. Batzuk lerro berean doaz: besteak baino hobeak izan behar dugula (karrera hoberenetan sartzeko nota hobeak atera, besteek baino hikiuntza gehiago jakin, gure auzokoak baino hobeto jolastu futboleant, edo guztiek baino arinago ikasi, azken ordenagailurako jolasaren pantailarik zailenera lehenengo heltzeko), ezin dugula konpromezurik hartu geure bidean geldotuko gaituen pertsonarekin, kasu horretan norbaitek geure lana are arinago egin ahal izango duelako, norbaiti laguntzen diogunean geure izatetik zerbait galtzen dugula. Ezezaguna ezin dela guretzat ona izan, lehenengo momentutik denbora galarazten digulako zer den aztertzeke, eta beraz lojikoena desagertaraztea da (ezin diot neure buruari baimendu hindu-en kultura eta pentsamoldea era sakonean ezagutzea, Mendebaldeko "kulturaren" trenan galtzen dudalako).

Modu honetan, esperientziak izate konpetitibo (zenbat eta diru gehiago irabazi, gero eta hobeak izango zara), indibidualista (gizartea Ahal duena salba dadila oihupean montaturik dago) eta sumiso (mundu osoak gauza bera egiten duenean, ona delako izango da, eta hortaz ezin dugu kritikatu) bilakatu gaitu, gero eta jerarkizatuena den eta pertsonetikiko errespetu gutxi duen gizarte baten barruan. Jarrera esanekoa betidanik kontsideratu da instituzio sozial, moral eta erlijiozkoek "birtute" bezala aurkeztu dizkiguten prezeptoen barruan jokatzeko balitz bezala.

Besteen beldurrez bizitzen ikasi dugu, norbaitek gu defenda gaitzan (adibidez, ijitoak eta drogak geure buruan lotzen eta beltzak behe mailako izate bezala ikusten), ezezaguna mesprezatzen irakatsi digute (hobe da ezagutzen den txarra, ezagutzeke dagoen ona baino), eta baita ere aurretik jarritako egitura sozialetik kanpo geratu diren pertsona horiek "bere borondatez" egin dutela, eta beraz ez dutela geure laguntza merezi ezta nahi ere (azken finean, superbizipenerako gerra da hau). Egunerokotasun hau oinarriturik dagoen mekanismo makiabeliko hau guztia modurik arinenean ikasi dugu (ezin zen bestela gertatu), bortxa, zigor, kolpe, suspentsio, gaitzespen eta arbuioen bidez; eta okerragoa dena, guk geuk erreproduzitzen dugu (Zoazen lekuan, egin ikusten duzuna).

Beste ideia edo pautak batzuk, giza garapenera apuntatzen dute. Bake Hezkuntzatik egiten den proposamena, printzipio alienante hauek ordezkatzeko da, gatazka aldarrikorrei behetik aurre eginez; pertsonak ahaztera garamatzan irteerarik gabeko zirkulo hau deusteztu egin behar dugu. Besteak entzuten, beren ohar eta ideiak ezagutzen, beren proposamenak eztabaidatzen, eta desberdinak direlako zertan txarrak izan ez duten iritzia es mesprezatzen ikasi behar dugu.

Gure ustez gizakiak, kolektibo baten kide bezala, libre izan behar du bere bidea zein izango den erabakitzeke, eta soilik izango da modu betearean elkarlaguntza eta desobedientziatik; elkarriketan, tolerantzia eta norberarekiko ta sinisten denarekiko konpromezuan oinarritutako kritika eta ekintzatik. Baina seinatu behar dugu norbera izateke, besteok hartu behar ditugula kontuan, haiek direlako geure akatsez ohararaziko digutenak, geure arazoei aurre egiteke irtenbideak eskeintzen dizkigutenak, eta hauek gailentzen ditugunean txalotzen digutenean, geuk ere haiek txalotzen dirugun modu berean.

Guztiok ezagutzen ditugun baina ahaztuta dauden ideiak ipini nahi dutugu praktikan: lekuetara hobeto eta erosago heltzen dela bidea lagunduta egiten denean.

Orrialde hauetan zehar pairatzen dugun hezkuntzaren ezaugarri batzuen azterketa xumea egin nahi dugu, Hezkuntza Tradizional deitzen dugun arloaren barruan; eta geuk Desobedientziarako Hezkuntza deitu duguna aurkeztuko dugu, aldaketa hau zuzentzen den ardatz nagusiek in batera.

2. INSTITUZIOAK ETA NAGUSIA DEN PENTSAMOLDEA.

Hezkuntza geure nortasuna eraikitzeke oinarritzeko osagarria da, horregatik bere trataeran gizartearen funtzionamenduaren gakoetatik bat egongo da.

Potereak beti izan du ardura handia pertsonen sozializazio pautak kontrolatzeko, horrela interesatzen zaizkion giza harremanetan barneratzeko. Pauta hauek instituzio desberdinetatik jarrita heltzen zaizkigu, bere ereduarekin adosgarria den iharduera baten bila.

Obedientziarako hezkuntza gizarte osoak jokatzen du bere papera: gurasoek, ume amoltsu eta esanekoein bizitzea errezagoa delako; hezitzaileek, horrela ikasleok behar dena ikasiko duelako; ekonomiak, pertsonen kontsumitzen dutelako, eta beren bideetatik zuzentzen uzten dutelako; Ejerzitoak, soldadu esanekok behar dituelako; Estatuak, subdito amoltsuak beti ordaintzen dituelako bere zergak, funtzionarioak errespetatzen dituelako, eta eskatzen zaiona egiten dutelako; Eleizak, klase zehatz baten pribilejio eta etekinak mantendu nahi dituelako.

Instituzioek krisian eta urraturik dauden ekintza pautak erakusten dituzte, ordenean oinarritzen direnak (ta ez justizian), kontraesan nabari eta odoltsuak dituztenak: Estatuaren egiturek geure bizitzak kontrolatzen dituztelako modurik sotilenean, legeak geure jokabideak zuzentzen dituelako (emakumeen berdintasun sozialerako arazoak, inmigrazioa, ekologia), edo ekonomia neoliberalak geure pentsamoldea baldintzatzen dutelako (Ipar-Hego arazoak).

a- Familia: Familiaren instituzioak gurasoek umeen gainera duten paper babeszale eta afektiboan oinarritzen da, eta beraz guztiok ezagutzen dugun lehenengo autoritatearen adibidea da. Instituzio hau momentu honetan krisian dago, familia patriarkalaren ideia tradizionalak bere indarra galtzen dutelako gaur, beste elkarbizitza modu batzuen alde.

b- Eskolako hezkuntza: Denbora luzean zehar hau izan da sistema oinarritzen eta erreproduzitzen zen zutabeetako bat, beraren bidez mantenduz formakuntza akademikoaren idealizazioa eta giza balioetak hezkuntza integralaren mespretxua. Bere egitura bertikal eta mugiezina inoiz ez du bizitzarako hezi, eta ez du baimendu sozializazio egokirik, sailkapen eta kalifikazioak disoziazioa eta askatasunaren galera errazten dutelako.

- c- Eleiza: Erlijioaren instituzioa (berdin da zein erlijioz ari garen) ez da giza errealitate aldakorrena egokitu, ta ankilosaturik geratu da bere planteiamendu jerarkikoetan bere gogortasun etiko eta dogmatikoaz.
- d- Gizartea: Nagusia izan den pentsamoldeak beti izan du itsatsirik gizakiaren garapena asko zailtzen duen giro marxista eta autoritarioa. Indibidualizazioa eta giza arazoeiko erantzunkizun faltaren alde egiten du; beste hitz batzuk erabiltzeko, ume, zoaz zeure jolasetara, zeure gurasoak arduratuko dira familiatz. Supraindibidualitatearen imaginario sinbolikoa suposatzen duten erreferente komunitario guztien desagertarazpen progresiboa berretsi ahal da. Norbanako ahula bakarrik geratzen da Estatu indartsuaren aurrean.
- e- Polizia eta Indar Armatuak: edozein disidentzia eta legea ez betetzea erreprimitzeko funtzioa duten indar disuatazileak dira: bortxarik gogorrena. Bere papera segurtasunaren kontzeptu babeszaleegian oinarritzen da, eta honek polizi eta kontrol korpu gehiegiren sorrera ekarri du. Ondorioak begiratu gabe ordenak obeditzen dituen pertsonala behar dute.
- f- Lana: Lana beti egon da esplotaketari loturik, eta ekonomia kapitalistaren menpean gainera. Sindikatuen paperak ez du ekarri geldotasunik zentzu honetan. Gainera lanaren teknokratizazio hazkorak espezializazio izugarria sortzen du, eta honek ezjakintasuna eta konformismoa daramatza langileak. Bizitza modernoaren eskaera alienatzaileak betetzeko beharrak gaitasun sortzaileen garapen normala eragozten du.
- g- Ekonomia: Interes ekonomikoak betidanik menperatu du gizarte klasista, eta gu guztion bizitza baldintzatu du. Beste alde batetik, indarrean dagoen globalizazio ekonomiko prozesua orden sozial eta mundial berria sortzen ari da, printzipio kapitalista berdinen bidez zuzenduko dena. Herrien erabakitze ahalmena gero ta txikiagoa da, zenbat eta handiagoa izan korporazio handien eta nazioarteko erakundeen dominazio indarra. Aberats eta pobreen arteko leizea handitzen den momentuan, zentzua daukan gauza bakarra gehiago izatea da, beste aldean ez geratzeko. Merkatu ekonomian bizirauteko prestatzen gaituzte; edukitzean eta falta denean ez protestatzean (falta baitzaigu edukitzea beharrezkoa zena egin ez dugulako baita) oinarritzen den ekonomian. Beste hitz batzuetan, pertsonak konformatu behar dira egokitu zaienarekin; instituzioen ideologia onartu behar da, eta baita asumitu ere ez dagoela alternatibarik, dugun hause delako izan ahal genuenaren hoberena.
- h- Langabezia: Langabeziak, munduaren ordenazio prozesua eta lanaren gaurko ezaugarrien ondorio bezala, ez dio bazterketa sortzeari uzten. Langabetuak gizartearen banaketaren ondorio latzak pairatzen ditu, eta ekoizpen ta erabakian parte ez hartzera zigorturik geratzen da.
- i- Urbanismo berria: Hiria lo egiteko leku bilakatu dira, eta honek bizitza komunitarioa oraingoa baino askoz indibidualizatuago bihurtzen du, konformismo gehiago eta biztanleen partehartze sozial gutxiago sortuz.
- j- Mass-media: Komunikabideak esku pribatueta daude gehienetan; beraz, informazioak, inpartziala izan behar zuena, bere ulermena eragozten duten interes partidista eta merkantil asko ditu itsatsirik. Mezuen bonbardaketa jarraiak, errealitate birtuala ekartzen du azkenik geure zentzuetara, eta honek praktikan ikuspuntu desberdinak aurkeztu nahi duten mezu guztien zentsura suposatzen du. Eta gainera komunikabide hauek aurkezten duten errealitatea ez da benetan erreala, sensibleria, espekulazio eta pasadizoetan gehiago oinarritzen delako informazio hertsian baino.
- k- Publizitatea: Kritikarik gabeko kontsumorantz dago zuzendurik, eta honek errealitatearen tribalizazio garrantzitsua ekartzen du. Kontsumo mugagabearen antisia elikatzen du, eta baliabideen xahuketa sortzen du.
- Dena den, Estatuak diferentziak egin behar ditu; jendeak aurretik jarritako estereotipoen bidean jokatzeko duenez, bakoitza baloratu beharko du bere ondorio propioen arabera; beste hitz batzuetan, bere diruaren arabera. Honek jerarkia ekonomikoak eta ongizate faltsua suposatzen du, eta gazteak pentsatu gabeko kontsumoaren espiralean sartu arazten ditu, beste balore gizatiarrago batzuk ahaztuz; horrela luzatzen da Estatuak nahi duena: arazoak norberarenak diren eta arazoen konponketa ere norberarena izan behar den orden eta egitura sozial jerarkizatua mantentzea.

3 AURRETIK JARRITAKO ORDENARI SUMISOAK IZATEKO HEZKUNTZA

Pedagogi teoria tradizionalak esaten dutenez, gizabanako eta gizartearen aurreramenak bakarrik dira posibleak obediencia eta autoritate nozioak lotu direlako, goikotasun-behekotasun binomioaren polarizazioaren bidez. Ikuspuntu honetatik desobediencia beti izan da zigor neurrien bidez garaitu behar zen zerbaite arriskutsu eta negatiboa; honek gizakia menperatuta bizitzera darama. Obediencia, beraz, autoritatearen aurrean egokitze amoltsu ta esanekora eramaten duen hezkuntza tradizionalaren zutabeen artean dago.

3-1 KONFORMISMOA

Obedienciak gauzen fatalitateari sumisoa izateko prestatzen du gizabanakoa. Autoritarismoak eta obediencia itsuak erakaspen moral guztien ukazioa suposatzeaz gain, pasibitate eta konformismoaren iturburu izateaz salatzen ditu. Banakoa eta taldearen arteko prozesuan ematen den konformismoak, lehenengoa (gizabanakoa) bere jokabide ta iritziak aldatzera darama, bigarrenarantz zuzendurik, ideologikoki uniforme eta orokorra den eragin iturri bezala hartuz. Poterearen detentatzaileak gutxi dira, urrunak, oso indibidualizatuta daude eta kasta batean sartuta egoteagatik batuta. Beren poterea komunikazio sistemak lortzen duten biderketari esker esistitzen da; "omnipotentzia" bihurtzen dute. Komunikabideek pasibismo eta konformismoa jotzen duten irudiak sortzen dituzte, bakea gatazka dinamikoaren izatearen kontzeptiotik urrun; "ezin da ezer egin", indarkeriaren onarpena (gera ebitezin bezala), haiek agintzen dute, poterea daukanarena da, ez dago alternatibarik. Banakoaren ezintasuna, indibiduak



berez ezertarako balio ez duelako sententzioak sortzen du; gizakia masa molekula amorfoa, izengabekoa eta ahula dela pentsatzeak sortzen du ezintasuneko sententzio subjektiboa.

Adoktrinamendu hau ideia nagusia baten gainean kokatzen da: pentsaarazten digute bizitzaren maxima "konpondu zaitez ahal duzun moduan, guri berdin zaigu" dela, horrela frustrazio sozial handia sortuz; gure interesa bakarrik izango da lan merkatu irxiegian sartzea, eta honek prestakuntza behar handiagoa (eta beraz konpetitibitate handiagoa) ekartzen du. Modu horretan jerarkia, disziplina eta statu quo-aren onarpena finkatzen dira, gu izate insolidario, gris eta sumiso bihurtuz.

Beste hitz batzuetan, txikitatik irakasten zaigu bizirauteko, sumisoak izan behar dugula; konpetitiboak, autoritarioak eta intoleranteak izaten irakasten zaigu. Jokua zera da: gu libre uztea erabakitze noren kontra konpetitu behar dugun, ingurune itxi txiki baten barruan. Zentzu honetan interesgarriak dira ikerketa batzuk, konformismo eta pasibitatea jokabide biolentoak baino arriskutsuagoak direla esaten digutenak. Ikerketa hauek argitzen dutenez, gizakiaren biziraupenerako mehatxurik inportanteena ez da bere izate erasokorra; sumisio konstitutiboan, obediencia pasiboan eta natura gregarioan du bere iturburua.

3.2 GATAZKA

Gatazkak saihesteak konformismoa darama, ta ez onarpena. Beridanik instituzioak, haien artean eskola, gatazkak eta arazoak beste batzuek konpondu behar dutelako ideia zabaldu dute; hauei "adituen" izen ponpoxoa eman zaie. Hau da, konformismoa eta beren konponbide proposamenen onarpen akritikoa bultzatu dute. Horretarako gizabanakoaren ezintasunarean sententzio subjektiboa sortu dute, poterearen detentatzaileen omnipotentziaren aurrean. Estatuak gatazkarik gabeko gizartea nahi du, eta haiek saiehesteko modurik onena, haien esanetan, ordena inposatzea da. Denok dakigunez, ordena inposatzeko portaerak bateratu egin behar dira eta desberdintasuna desagertarazi behar da, barrukoa zein kanpokoa. Bizimodu bakarra sortu behar da, eta horretarako epe laburreko modurik hoberena bortxa da, eta gehiengoaren legeak legislaioa baimentzen du, "denek berdin egiten badute, ondo egingo dutelako".

Estu Estatuak babesten gaituenez neure buruaz arduratzen naiz, neure betebeharrak eta gurariak asetzeko mugarik gabe (abusatzen badut "Estatu Aitak" ohartaraziko nau). Beste hitz batzuetan, Estatuak gauza zehatz batzuk egiten uzten digu, baina berak nahi duena egin dezagun bortxatzen gaitu; geure ordez pentsatzen du, eta berak ezarri digun kontsumo erritmoa mantentzeaz ardura gaitzen uzten du.

Oso lasterretik ikasten dugu zuzenbide bakar batean joaten "baimentzen" digun indar handia esistitzen dela; beste zuzenbideren bat hartzen duena "diferente" izateaz salatua izango da, eta zigortu egingo dute. Hala ere sozializazio prozesuan ematen den enfasirik handiena jokaera

debekatueta ipintzen da, horregatik eredu ofizialak muga kultural eta soziopolitikoak ezartzen ditu, bazterketa sozial garrantzitsua sortzen duten bazterketa mekanismoak erabiliz (sistema juridiko eta penala, pobrezia...).

Argi dagoena zera da: sozial eta pertsonalki, obeditu egiten dugu. Ohiturak, legeak, eta zelan bizi behar dugun, zelan erlazioatu behar dugun eta egotearen errutina behin ta berriro errepikatu behar dugula esaten digun tradizioa obeditzen ditugu. Azkenean, ondorioa da ez garela gizakiak, sistema ezgizatiarren mekanismoaren barruko pieza batzuk baizik.

Ezin dugu ideal batzuen arabera jokatu, edo zure zeure bizitza egiten saiatu; "Estatu Aitak" gu, bere subdito leialentzako dituen mandatuak betetzea da kontua. Berdin zaio zeuk ondo ala txarto joka dezazun, ez dizu eskatzen ezta modu batekoa ala bestekoa izan zaitez; soilik aritu behar duzu bere jokabideen arabera.

4. DESOBEDIENTZIARAKO HEZKUNTZAREN BEHARRA

Pedagogia tradizionala geu obediencia hezitzez arduratu da, baina gertaera batzuen analisiak obeditzeari uko egiteko dugun ahalmena gara dezagun bultzatzen gaitu.

Grebalari baketsuen kontra tiroak botatzen dituzten poliziek, legeek babestutako orden zehatzak betetzen dituzte. Senar-emazte katolikoek, Eleizaren morala leialki jarraitzeagatik, espirituz eta gorputzez hondatzen da. Beren betebeharrari jarraituz, pertsona zibil, industri gune edo esfortzuz eraikitako zubien gainera bonbak botatzen dituzten pilotuak. "Kontzienteak izan gabe" deportazio edo heriotza zigorrak transmititzen, sinatzen edo baimentzen dituzten idaztegiko hiltzaileak. Kontzentrazio guneen zaindariak...

Denek "ordenak obeditu dituztela" dute aitzakia. Hezkuntza guztien helburua krudelkeria ebitatzea bada, jarraitzen den ideala Auschwitz behin bakarrik gertatzea da. Hiroshimako bezalako delitu batek mila erantzule zuzen dauka: politikoak, zientzialariak, teknikariak, langileak, pilotuak. Haietako bakoitzak bere kontzientzia ixilarazi du, milakoaren zifra horrek bere erantzunkizuna zatitzen zuela pentsatuz. Milatara txikitutako damutasunak ez du loa eragozten.

Hitz joku makabro honetatik irteerako modu bat besterik ez dago. Gazteei esan behar zaie, ausardiaz, denok garela subiranoak; beraientzat obediencia ez dela jadanik birtutea, tentaziorik sotilena baizik, ezin dutela bertan babestu inoren aurrean, bakoitzak denarekiko erantzulea izan behar duela. Modu honetan gizateriak bere aurreramendu teknikoak bezain handia den aurreramendu morala lortu duela esan ahal izango du. Teori pedagogiko arzerakoien ustez, aurreramendu obediencia sumisoaren bidez baino ezin da lortu. Obediencia eta autoritatea erlazioatzen dira, eta bi hauek goikotasun eta behekotasunarekin, desobediencia garaitua izan behar den zerbait da.

Ume sumiso, esaneko, disziplinatua eta erreprimitu bezala hezitako pertsona, "ego" ahula izango duen gizakia izango da. Indibiduo hauek prest daude kolektibitate handi baten helburuekin identifikatzera, ideologia baten menpean ipintzen dira, eta potentzia gizarte totalitarioaren kideak dira.

XX mende honen historia eta erokeria militarrik ikusita, ezinbestekoa eta premiazkoa da oposaketa, desobediencia eta insumisioak bultzatzea. Beharbada geure kulturak ez digu oraindik eskeintzen desobeditzeko eredu egokirik.

Hau da Kritski jauna, Kieveko nire lagun bat, gizon bikaina. Poliziak jarraitzen dio ez delako zitala.

ANNA KARENINA. TOLSTOI

5-BAKE ETA GATAZKARAKO HEZITZEA

Obediencia eta eginduk betetzeko jarrera ona, geure mendealdeko tradizioan, oso morala den eta oinarri erlijioso sakona duen balorea da. Desobediencia eta autoritatearen kontrako oposaketei, gaur ere, iraultza, desorden eta kaos usaina daria. Insumisiorako hezi nahi dugula entzuten denean, jendeak esaten duen lehenengo gauza erotuta gaudela da, ta batzuek anarkista garela esaten dute, eta oihuka gogorarazi Bakunin hilda dagoela. Geuk barre egin baino ezin dugu egin, eta bare daitezen itxaroten dugu, gero azaltzeko zer den esan nahi duguna. Bakerako hezitzea injustizia guztien kontrako desobediencia praktikarekin trebatzea da, baloreen bidezko giza formakuntzatik sortua den eta erlazio prozesu guztietan presente egon behar den etika baten barruan onartzen ez dugun guztiaren kontra borrokatzea.

Gatazkaren balioa:

Badakigu gatazka pertsona guztiei inherentea den zerbait dela, eta erlazio guztiak gatazkatsua direla, norbakanotasun desberdinak aritzen direlako; horregatik, giza prozesua ere gatazkatsua izango da berez. Gizartearen zati batzuk iritizko gatazkan daudenean, arazo bat sortzen da, eta logikak erakutsi digu arazo bat ez dela konpontzen alde guztiek konponketa egokia dela pentsatzen ez duten bitartean.

Horregatik beharrezkoa da gutariko guztiek, bazterkeretik gabe, geure moduan pentsatzen dugunari buruzko ideiak eta iritziak adieraz ditzagun. Desiragarria litzateke elkarizketak berdintasunean eman litezen, baina beti abiatuko gara egoera gatazkatsu batetik, indarrak eta baliabideak desberdinak direlarik; horregatik bazterketa positiboa proposatzen dugu, sufrimendu handiena jasan duen aldeari laguntzeko helburuaz.

Modu zehatz batez egin behar dugu hau, geure aukerak gutxienez borrokatzen dugunak beste etekin neurri sorraz dezan.

Elkarri aurpegi emandako talde guztien berezitasunak akordioan agertu behar dira, geure iritiz. Hemen hasten da gatazka aldakorra izaten,

berezitasun guzti-guztiak denboran zehar aldatzen direlako, kalkulatu ezin den talde eta banakoaren erritmo baten arabera; horregatik enfrontamendua eta arazo zehatz baten konponketaren bilakuntza denboran zehar luzatuko da, arazoak luzatzen diren neurrian. Beste hitz batzuetan, gatazka beti esistituko da.

Horregatik, hutsala da konponketa prozesuari muga estuak ipintzea, ohi den bezala. Ez gara baikorregiak gogorarazten dugunean asko direla gaur bakezko kulturaren alde arlo desberdin askotatik lan egiten duten pertsonak, eta alternatiba hau errealitate bihurtu den indarkeriarik gabeko guneak badaudela.

Gaurkotasunean zentratuta, sistema baten barruan bizi gara, ta bera hobetzeko modu bakarra aldaketak proposatzea eta injustiziaz zuzentzea da. Sistema honen justifikazioetatik bat zera da: bere poterea gehiengoetan oinarritzea, gutxiengoak osagarri "dekoratibo" bezala geratzen den bitartean, ez direlako kontuan hartuak. Betidanik eragozpen bezala hartu izan dira, bere edozein adierazpenetan adierazi direlako, baina benetan, gizartearen biziraupenerako ezinbesteko osagarriak dira. Poterearentzat, gehiengoak txalotuta, gutxiengoa osagai arriskutsua izan da beti, aldaketak, gauza berriak, beldurra bultzatzen dituelako, eta arrazoi horregatik beti saiatu da ebitatzen, izkutatzen, erreprimitzen.

Bestalde, gutxiengoak eta indarkeria zuzena identifikatzen diren neurrian, errepresio handiagoa sortuko da Estatutik, espiral jarraia elikatuz, abantaila guztiak Estatuarenak izango direlarik (zergak ordaintzen dituenaren diruaz beti izaten dituelako arma gehiago, eta gainera legeak indarkeriaren erabileraren eskusibitatea ematen dio), eta errepresio osagaiak beti mantenduko ditu. Badakigu nola funtzionatzen duen sistemak, eta horregatik ezin dugu aldaketa modu hauetan sinestu. Sistema honek defendatu antza dituen eskubide ta askatasunen azken ondorioetarako garapena geure esku dago, eta geure legitimitatea frogatuta geratzen da.

Mugitzeko dugun arrazoi bakarra aldaketarantz dugun nahia da, baina ez dugu hitzetan galdu nahi, haizeak eramaten dituelako; ekintzen bidez mugitu nahi dugu. Egiaztatu behar dugu geure ideiak hobeak direla, orain daudenek ez dutela balio, geure saria hartuko ditugun zigorrak baino hobeak dela. Santzio posibleek ez die geure planteiamenduei eragingo, proposatzen dugunak ez diegulako geuri bakarrik onura ekarriko; guztien alde izango da.

Gobernuak, erakundeek, segurtasun indarrek, itzalpean dauden potere faktikoez, azken finean oligarkiak, ez dakite zer den hoberena guretzat (geure beharrianak), bakarrik daki benetan zer den hoberena beraientzat (beren interesak defendatzeko), eta haiek indartsuenak direnez, protesta moduzko erreibindikazioa geratzen zaigu, bere sisteman gutxiengoek (ahulek) ez dutelako lekuri. Horregatik erakunde ta gobernuak eskatu egin behar diegu, haiek esaten duten bitartean, poterearen monopolioa ez delako berea.

Eskubide ta askatasunen aldeko borroka emango zaion bapateko erantzuna, gorago azaldu dugun bezala, oraingo legediatik desobediente zibilei inposatzen zaizkien zigorrak izango da; beraz arriskutsua da beren ordena mantentzeko. Indibidualki erreprimitzen dira oinarri sozial handia duten jarrerak. Horren ondorioa bortxazko sistemaren sobreseturazio eta deskreditua da, eta horrek beraren birmoldaketa etengabera darama; aldaketak, matizazioak eta legalitatearen azalpenak. Horregatik oraingo legediaren aurkako enfrontamenduen bilaketak, hau da, gatazka geu erlazioatzeko eta antolatzeko modu desberdinen planteiamendu bezala hartzeak, kontsentsuaren bidez elkarrekin bizi garen gizartearen barruan aurrera egitea baimentzen digu.

Insumisioaren alde, hau da, gizartearen funtzionamenduan pertsona guztiek zuzenki parte hartzearen alde lan egiten duten guztien landu eta kontsentsuatu beharreko oinarritzko betebeharrak hauek dira: indarkeriaren benetako kausak argitzen dituztenak, sistemaren kontraesanak agerian uzten dituztenak, eta indarkeria izkutu (arrazakeria, sexismoa) eta agerikoa (lan mundua, publizitatea, kontsumoa...) argira ateraz. Eskola etorkizuneko demokrazia dela pentsatuz, bere betebeharrak nagusia eskubidean eta kritikatu ta aurre egiteko beharrean hezitzea da.

Kritika eta protesta ez dira anomalia soilak, ondo antolatutako gizartearen bizitza demokratikoaren iturburua baizik; gizartearen osasunaren alde egiten dute. Desobediencia hezkuntza gatazkarako hezkuntzaren aldaketa bat da; desobediencia, kontzientzia eta autoritatearen arteko gatazka egoeran ematen da.

5-1 INKONFORMISMOA.

Konformismo eta pasibitatea gailentzen, talde propioak gestionatzen, erabakiak hartzeko ahalmena handitzen, elkarerantzunkizuna eta gatazken amankomuneko konponketa, jokaera positiboak eta baliabideekiko konfidantza, eta norbanako ta taldearen poterea asumitzen laguntzen duena; hori guztia da Bakerako Hezkuntza.

Poterea ezagutzen duenarena da, ta demokrazian sakondu ahal dugu informazioa talde sozialekin konpartitzen badugu, sarean lan eginez.

Poterearen erregulazioaren mekanismoak ezagutzen baditugu, gatazka argitara ataritzen dugu, ta erakundeei kritika aktiboa egiten diegu. Potere instituzionalaren despotismoak mugak dauzka, eta beharrian berriei aurre egitera behartuta ikusten da beti.

Ezagutzea aktiboki ulertzea da, ideia propioak izatea. Ideia originalek kontrastea suposatzen dute (konformismoaren kontra), giza erlazioak aberasten dituzte eta aurreramendu ahalbidetzen dute. Beti egongo dira alternatibak, gatazkei elkarerantzunkizunetik egiten zaizkako aurre. Gerra eta indarkeria ez dira saihestezinak.

6-DESOBEDIENCIA HEZITZEKO ORIENTABIDEAK

Eskolatuen autonomiaren garapena modu bakarra da pertsona indarkerian engranaiatik ateratzeko, biktima edo borroka delarik. Autoritateari sumisioa indarkeriazko egoerara daraman bidea den bitartean, elkarerantzunkizuna ezbiolentziako errealitateen eraikiera ahalbidetzen duen

bidea da. Gizakia ez da subdito jaiotzen, subdito hezi egiten dute; eta herritarrek sortu nahi baditugu, hauexek egin behar ditugu:

- Askatun gehiago ematea geure umeei, honek, konfidantza eta ulermen handiagoa eskatzen badu ere.
- Bortxa moral, mehatxu edo opresioei uko egitea, intimidazioak inseguritatea eta apatiara daramatzalako, autoritateari itsatsita.
- Eskubide eta erantzunkizun gehiago ematea (baina honen sinonimoa ez da behararen betekizun handiagoa eskatzea), horrela garatuko baita norberarenganako konfidantza.
- Gazteriaren autonomia eta iniziatiba errespetatzea. Elkarerantzunkizuna seriozki lantzea.
- Esigintzien zioak modu arrazoituaz azaltzea; autoritatearen aurreko jarrera kritikoa solik landuko da elkarriketaren, eta bertan entsaiatu behar da. Hezkuntzaren atarian beharbada ez du zentzurik umearen ulermenari deitzeak, baina ez azaltzeak.
- Onartu eta aztertu behar ditugu gatazkak garapen pertsonalaren eta bere kide guztien jarreraren aurrean dagoen pedagogi aukera direlako.
- Desobedientzi kasu baten aurrean helburua ez da izan behar zigor edo sermoi farisaikoan geure salbazioa bilatzea, modu eraikikorrean jokatzeko baizik. Obeditzeari uko egitea modu positiboaz hartzea oso hezgarria da.
- Ikasleekin desobedientzia eta oposaketa ereduak aztertzea, bai lehengoak bai gaurkoak, horrela eskubide honen praktikan trebatuz.
- Pentsamendu kritikoa, aukeren berdintasuna eta dogmatizazioa eza bultzatzea. Pertsona bakoitzak taldean eragin behar du, eta taldeak eraginda izan behar du ere. Bakoitzaren berezitasunen eta gu guztion orokortasunak mantentzea eskatzen du.

Desobedientziarako hezkuntza sistematikoak ez du esan nahi desenfrenorako hezkuntza, zapalketa guztiei ukazioa baizik; ez du esan nahi irreberentziarako hezkuntza, beste pertsona ta taldeen interes zilegien gogoramen disziplinaturako baizik.

Aginduak betetzari uko egiteko ahalmena garatzen duen hezkuntza, adin heldutasuna eskuratzeko helburua duen pedagogiaren nukleoa da. Egoera batzuetan desobedientzia kontzientzia jarrera gizatiar eta erantzule bakarra da. Pertsonak desadoste politikoak eta gizaki arteko gatazkak modu positiboan konpontzeko gaitasun eta gertutasuna eskuratu behar du, "bai" esateko prest egonda, baina baita ere "ez" esateko gauza izanda.

6-1 ZAILTASUNAK


Desobedientzia hasieratik esistitzen da, umeak garenean esaneko eta ez esaneko garelako, gauza biak. Beharbada heldua izatea, mundua sortzen eta birstortzen ahaztea da. Heldua izatea, antza, gauzak eta gauzen orden inperfektua onartzen hastea da, geure ezintasun eta ahuleria onartzea delako. Edo beharbada umeok zoriotsuak dira desobeditzen dutelako, eta desobeditzen dute imaginazio eta fantasia dutelako, eta momentu bakoitzean beren gizatasuna adierazteko erabiltzen dituztelako.

Zergatik ezin dugu desobedientzia kontsideratu harreman gizatiaragoetara itzuli nahi duen gizarte modu bateranzko giza aldaketa bilatzen duen giza erlazio modu bat bezala?

Desobeditzeko gailendu behar dugun lehenengo barrera norberaren barrera da. Geure buruari buruz hausnartu behar dugu, geure buruari kritikak egin, eta gainera alternatibak aurkeztu eta proposatu behar ditugu. Desobeditzea egunero pertsonaren baloreak birstortu eta oinarritzea da, gizartera eramateko proposamenak eraikitzeke. Besteekiko eta geurekiko konpromezua. Desobeditzea koherentea izatea da.

6-2 DISZIPLINA.

Geure eskolako disziplina autoritarioak moldaketara darama; obedientziak, erosokeriara; bere borondatez obeditzen ez duenak zigor neurri asko jasango ditu: lan batzuk egin behar izango ditu, klasean geratu beharko da, nota txarrak aterako ditu eta gainera errietak, irainak, etab. izango ditu; hau da, eskubide eta askatasunak galtzera zigortuta geratuko da.



Disziplina, diszipuloen lana bermatzen duen hezkuntzaren zatia da, ordena mantentzen duelako, eta modu berean jokamoduen desbideratzeak erreprimitzen ditu, borondate zuzenak eta izaera gogorrak sortzen dituen bitartean, horrela irakaslearen tutelatik aldentzen direnean bide berean mantenduko direlarik.

Disziplina beharrezkoa da umea bere gehiegizko eskaeren mugatze edo frustrazioan trebatzeko, hauek bere eboluzio etaparen edo bere egoera moralaren egozentrismoaren fruitua direlako. Beharrezkoa da gizarte mugen erreferentziak ematea, horrela jokaera ez helduak atzera uzten laguntzeko, bere energiak bitarteko eta helburu onargarrien bidez bidera ditzan. Autoritate tinko, arrazoitu eta onberak umeari segurtasun sentimendua ematen dio. Hazten den neurrian, bere askatasuna eta autonomia handitu nahi izango du, baina hau arrazoitzeko eta erantzunkizunak onartzeko duen gaitasunak baldintzatuko du. Disziplinari gabe hezitako umea insegurua izango da, ez da erabakiak hartzeko gai izango, eta ez du jakingo zer den beregandik itxaroten dena.

Oso garrantzitsuak ez diren faltak zigor gabe gera daitezke, edo bakarrik gaitzezpena adieraztea. Garrantzitsuak ezin dira zigorrik gabe utzi, baina umeak ulertu behar du bere jarrera ez dela onargarria. Zigor hauek errieta, isolamendua edo gustatzen zaion zerbaiten pribazioa izan daitezke. Zigorra ezin da luzea izan, txikian haserrea sor dezaketelako, eta mendeku sentimenduak ager dakizkioke, autoritateari kalte egiteko modua bilatzen hasiko delarik. Garrantzitsua da umea berehala birstortzea familian edo klasean, berriro onartua eta baloratua izan dadila taldean edo pertsona bezala garatzen den lekuan. Maitatua eta duina delako segurtasuna eman behar diogu.

Hezkuntza askatzailearekin konsekuentea den disziplinak, segurtasuna eta autogobernua bermatzen duten estrategien multzoa erabiltzen du, autoritarismo eta permisibismo arteko (beste modu batean esanda, segurtasun eta askatasunaren arteko) oreka lortu arte. Autoritatearen onarpena balore bat da, eta disziplina sozializazioa eta heldutasun pertsonala lortzeko bidea da, horrela aurretik jarritako erakunde markoaren gaindipena bultzatuz.



6-3 AKATSAK

Arazo handia da gatazkarako, kontraesanerako eta aniztasunerako hezi nahi izatea, instituzio eskolastikoaren barruan eta horren bidez, honen helburua indibiduoak gatazkak interpretatu eta konpontzeko modu tradizionalaren bidez adaptatzea delarik.

Eskolaren barruan lan egin dutenen esperientziek adierazi dutenez, aldaketa mugatuak ematen dira umeen jarreretan, eta emandakoak gehiago gertatzen direla irakaslearengatik programaketarengatik baino. Bitxia bada ere, hezkuntz eragileek ez badituzte balore hauek benetan bizi (inplikazioz eta koherentziak), ikasleengan ezaugarri pasiboak, moldakorak eta konformistak handitzen dira, helduek jarritako errealitatearen definizioa egokituz. Edukia (irakasgaia) aldatzen bada ere, sumisio jarrerak indartzen dira, Bake baloreetan hezitzen dela esan arren. Ez da soilik ez duela funtzionatzen; kontrako helburua lor dezake.

Zer dute amankomunean ezbiolentziarako eskola programak? Helduek diseinatuak direla, eta denak jokabide biolentoak inhibitzeko beharizanez abiatzen direla. Egunerik egunera gehien erreplikatzeko dena armez, gerraz, indarkeriaz, injustiziaz hitz egitea da; gehien erakusten den gauza, argituen dagoena, baztertu nahi dena da, izan ere.

Kontsumo produktu bat bera goratuaz bultzatzen da, kompetentziarena ahaztea lortuza; gutxi lortzen da kontrakoaren aurka hitz eginez eta etengabe gogoraraziaz. Oinarritzkoa da, beraz, jokabide alternatiboak proposatzea, negatiboak ordezkatzeko direnak errazagoa delako modu batez jokatzen bultzatzea (positiboki), joka ez dadin saiatzeko baino (negatiboki).

7-ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

Libro vasco de educación para la paz: grupos de tiempo libre.
Egile asko, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, 1997.

Manual practico para la desobediencia civil.

PEREZ, J. A., Pamiela, 1994.

Vivir: un juego de insumisión. Hacia una cultura intersubjetiva de la igualdad.

PINO PERTIERRA, C. eta ARNAU TORNOS, A., Siglo XXI, 1995.

La insumisión y otros textos.

TOLSTOI, L. N., Fundación de estudios americanos, 1993.

Desobediencia civil y otros ensayos.

THOREAU, H. D., Tecnos, 1987.

Sobre la guerra.

FREUD, S., Amorrortu editores, 1979. 98-12-30

EUSKAL HERRIKO GATAZKA

Aurreko ataletan gatazken konponketaren ikuspuntu antimilitaristari buruz aritu bagara, ezin dugu lan hau bukatu "euskal gatazka" deitutakoari buruz zertzelada batzuk eman gabe. Ez da gure asmoa asko luzatzea hau liburu oso baterako kontua delako, baina bai nahi dugu analisisian lagundu.

GATAZKAREN IZAERA:

Gatazka eta honen izaeraren ezagupena, konponketarako ezinbesteko kontua da. Ukatzen badugu, edo errealtatearekin zerikusirik izan gabe interes ideologikoein duen edukia ematen badiogu, betidanik mantenduko dugu. Hala ere, kezkarzen gaituena ez da gatazka berez, hauek giza harremanetan naturalak direlako, bere konponketa are gehiago eragotzen duten erantzunak baizik. Gatazka neurri handiko indarkeri adierazpenak sortzen dituenean, defizit demokratikoez lagundurik dagoenean, edo giza eskubideen bortxaketak agertzen dituenean, bere konponkea premiazko beharrian bihurtzen da.

Borroka adierazpen desberdinak ematen diren gatazka honen izaera politikoak konponketa politikoa eskatzen du. Normalean, "euskal gatazka" deitutakoak Euskal Herriak bi Estaturen artean pairatzen duen nazio problematikari egiten dio kasu. Hala ere, izaera soziala duten beste ezaugarri batzuk esistitzen dira, nazio gatazkari konponbidea emanez desagertuko ez liratekeenak. Horregatik ezin da "gatazkaz" singularrean hitz egin, nazio arazoak herri honetako arreta eta esfortzu politikoen zati handia okupatu duela aitortzeari utzi gabe.

Euskal nazio arazoaren izaera politikoaren ukazioa, Espainia eta Frantziako gobernu desberdinentzat oso tentaldi zabala izan da, adierazpide soberanisten kontra izaera polizial eta errepresiboa zuten konponbideak legitimatzeko. Hala ere, urte askotan zehar egiaztatu denez, neurri mota honek ez dute ezer konpontzen; aldiz, posizio ideologikoak are gehiago polarizatzen dituzte, zauriak pozonatuz, sendatuz baino.

Baina arazoa gatazkaren izaera politikoaren aitortza soila baino konplexuagoa da, hau bere konponketarako lehenengo aurrerapausu bat besterik ez baita; beharrezkoa da ere bera babesten duen gakoak ulertzea -garapen historikoa, sujetu politikoak, lege esparruak, borroka bideak, etab.-. Horregatik akats bat izango litzateke elementu hauek guztiok kontuan ez hartzea, Euskal Herriko gatazka hau modurik hoberenez bidera dadin pausuak emateko orduan.

Arazo politikoa ez da alderdi politikoez konpondu beharreko arazoa, hauek hiritarretatik aldendurik daudelako; euskal gizarte osoak bere etorkizuna eraikitzeke parte hartu behar duen arazo sozio-politikoa da.

Lehenengoz, gako horien ezaugarri batzuk adierazi nahi genituzke, geroago antimilitarismotik egoera hauetan baliozkoak deritzegun proposamenetan sartzeko.

Hiru dira euskal gatazka hobeto ulertzeko seinalatu nahi genituzkeen kontuak: 1) Euskal Herriko nortasun kolektiboaren garapena. 2) Gaurko marko politiko-juridikoarekiko jotzea. 3) Gatazkaren indarkeri adierazbideak.

1) Euskal nazio nortasuna

Euskal nazio nortasunaren sorrera, Euskal Herriaren subiranotasuna lortzea beren helburuen artean duten elkarte politiko eta sozialen ekintza legitimatuaren ondorioa da; subiranotasun honek Frantzia eta Espainia potentzien artean Euskal Herriaren biziraupena bermatu behar duelako.

Nortasunaren eraikintzak zailtasun handiak izango ditu, gertaera historikoez ez dutelako lan hori erraztu. Sei euskal herrialdeen arteko kili-kolozko batasun historikoa, euskararen atzerapen etengabea edo herrialde desberdinetan eman diren industrializazio eta migrazio neurri desberdinak, helburu hori zaildu duten elementuak dira.

Hala ere, ez legoke nazio izaterik esistituko bera babesten duten oinarri objetiborik gabe. Ta hain egoera bitxirik gertatzen da, izan ere, izaera agonikoa duen euskal nortasun hori sortzen dela, frankismoaren garaia arte gutxienez. Bere historian zehar Euskal Herriari bere izaera konkretua eman dioten ezaugarri konpartituen (Foruak, Euskara, herrialdeen zatiketa, erlijioetasuna, baserritartasun idilikoa) galera edo erdigaleragatik egindako negarra da.

Kohesionatu eta finkorutako Estatu-nazio espainolaren formakuntzaren porrota, bere sabelean ematen den "izate diferentzial edo nazioanitzdunagatik" gertatu da. Azken bi mende hauetako aldirik gatazkatsuenetan, gerra karlistak eta gerra zibila, erreibindikazio hauek indar handiz sortu dira. Kasu honetan desberdintasuna seinalatu behar dugu Iparraldearen kasuan, Borboien dinastian lehenengoz eta Frantziako Iraultzan azkenik, Estatu-nazio frantsesaren garaipenak eragin duelako Iparraldeko euskal nazio nortasunak maila kulturalen irautea, baina plasmazio politikorik gabe apenas.

Paraleluki, Euskal Herrian beste nortasun mota batzuk garatu dira, pasa den mendeko industrializazio prozesutik eratorriak, klase nortasunak. Langileen klaseak, inmigrantea, bere jatorriagatik, eta euskal burgesiaren zati batek merkatu interesengatik, indar politiko batzuetan babesturik, marku espainolaren aldeko nortasuna bultzatu dute.

60etako hamarkadan zehar, Mendebaldeko gazteriak agerian utzi zituen azken Mundu Gerraren ostetik sortutako demokrazia

parlamentariaren miseria, salaketa mugimenduak eratuz: ekologia, antimilitarismoa, Hirugarren Munduarekiko elkarrtasuna, sexu askapena, asanblearismoa, arte konprometitua, salaketa kantagintza, drogen askapena, langile eta ikasle mugimendua...

Euskal gazteriek ere hartu zuen parte ardura hauetan frankismoaren garaian, eta hauek herri mugimendu bezala plasmatu ziren, eta baita ETaren sorreran ere.

Baina transizioaren momentutik, euskal nazio nortasunaren ardatz nagusiek -Euskara bezalako beste batzuk ahaztu gabe-, Espainiako demokraziak herrialdearen eta herri guztien adierazpen askeari inposatutako murrizketan ipiniko dute indarra. Horregatik nortasun desberdinen enfrontamenduak asko polarizatuko dira elkarte edo komunitate politikoetan. Egoera honetan, problematikaren bertsio desberdinak egoten dira, euskal abertzaletasunaren barruan eta kanpoan. Koiuntura politikoak eta ideologiak nahasten dira, gertaera batzuen inguruan: Konstituzioa, monarkia, Estatuoa eta hortik erasortzen den autogobernuaren garapena, indarkeria politikoa, NATO, Europar Batasuna, etab.

2) Oraingo marku politikoaren mugak

Hego Euskal Herrian nazio gatazka bat dago, gizartearen gehiengoak oraingo marku juridiko-politikoarekin bat ez datorren momentutik, horren azpian egitura politiko, territorial eta administratiboa autonomikoa eta fragmentatua dagoelako.

Espainiako Konstituzioa da marku hau mugatzen duen oinarritzeko dokumentua. Bera eratu zeneko prozesuak argi utzi zuen bere edukia. Estatu frankistaren aparatuen sektoreen eta frankismoaren kontrako oposizioaren zati baten kontsentsuaren bilaketa, tradizioz golpista zen ejerzitoaren mehatxuzko begiradapean egin zen. Marku honek ez du onartzen Estatuaren izaera nazioanitzduna ere bere ataletan, eta ejerzitza erabiltzen du Espainiako batasun territoriala bermatzeko; horregatik ez ditu izaera propioa duten herrien zati garrantzitsu baten aspirazioak betetzen.

Espainiako Konstituziotik eratorrita formulatzen dira Amejoramentua eta Autonomi Estatutua, irteera politikoa emateko saiakera bat, baina bere enfoketaren interpretazio desberdinak dituena:

Estatuaren instituzioetatik, eta euskal bilbatze politikoaren sektore espainiar nazionalistak txaloturik, Estatutua Espainia Estatu-nazio bezala legitimatzen duen azken helmuga da, autonomismo horren murrizketa etengabeekin gainera (LOAPA, konpetentzia batzuk transferitzeari uko egitea).

Euskal abertzaletasun moderatuaren iritziz, subiranotasun neurri handiagoak lortzeko mailakako bidea da.

Abertzaletasun erradikalarentzat, Estatutua euskal subiranotasuna ukatzen duen Estatua beste aurpegi batez mantentzeko modua da.

Horren ondorioa, bizitza politikoaren nahaste etengabea da; horregatik subiranotasunaren aldeko borroka, diktaduran zehar ETA agertu arte ezaugarri berezi batzuekin luzatzen dena, Franco hil ondoren beste hogeitertan iraungo du. Kontestu honetan, ETaren borroka armatua konpondu gabeko kontu baten ondorioa da.

3) Gatazkaren indarkeri adierazpideak.

Subiranotasun eta borondateen gatazka, komunikabide batzuetatik nahita sinplifikatu da, parte hartzaileak lehenengo lerroan daudenak baino ez balira bezala: ETA eta Estatuaren segurtasun indar armatuak (autonomikoekin batera).

ETA eta Estatuaren (autonomiaren laguntza) arteko enfrontamendu armatuak ekarri duen polarizazioak, logikoa dena erdian hainbeste hildako eta detenitu egonda, euskal bizitza politikoan urte askotan zehar dinamika politiko desberdinak sortzeko saiakerak deuseztu ditu. ("Demokrata" "biolentoen" kontra). Arazoa nahaspilatuta geratzen da, batez ere kontrako aldeek erabiltzen dituzten baliabideengatik.

Urte askotan zehar gatazka bi bideren erditik ibili da: alternatiba politikoen borroka, eta logika militarra, aurrekoaren ondorioa izan arren, bere dinamika propioa inposatu duena azkenean.

Estatu espainolaren kontrako enfrontamendu armatuak (honek abantaila handiak dituelarik, askoz baliabide gehiago duelako), indarkeriazko espirala sortzen du, ta bertan ETak apostu handiak egin ditu berme inportantedun negoziazioa lortzeko, atentatu askoren arazo etikoei kasu egin gabe, eta ENAM-aren bilbatzearen barruan gero eta kontraesan inportanteagoak sortuz.

Espainiako gobernu desberdinek, marku instituzionala autonomikoan babestuta, errepresio eta beren politikaren legitimazio baliabide guztiak erabili dituzte, oinarri legalaz eta ofizializatzeko lege berriak behar izan dituztelarik ere.

Oraingo legalitatearen barrutik "biolentoiak" isolatzeko neurri politiko eta instituzionalak aplikatzen diren bitartean (adibidez Ajuria Eneko hitzarmena, Corcuera legea bezalako izaera errepresibo gogorra duten lege bereziak, gazteen penalizazioa, Egin egunkariaren itxiera, HB-ko Mahai Nazionalaren atxilotzea, salbuespenezko tribunalak, bideozainketa, preso politikoen dispersioa, kontrol polizial eta soziala), Estatuaren kioaketatik gerra zikina edo ministeritzetako terrorismoa garatzen da, ustelkeria, narkotrafikoa eta pribatizatzen diren fondo erreserbatuetan oinarritzen dena.

Estatuaren aparatoak bere indarkeria deskargatu du, begirunerik gabe, ENAM-eko sektore desberdinen kontra, zigorrak gabeko eta askotan ixildutako jarreraz lagundurik. Funtzionarioek beren legearen kontra egiten dutenean, torturez, telefono entzuketaz, Egin-i dirulaguntza ofizialak ukatuz prentsa askatasunaren kontra atentatuz, bahiketa eta hilketen bidez... erabaki judizialen gehiengoak

zigorrak gabe utzi dituzte, eta beren goikoek kondekoratu dituzte.

Egiaztatu ahal izan den beste ezaugarri bat zera izan da: nahiz eta gobernu desberdinek izugarritzko itxidura erakutsi eta politikoki negoziatzeari uko egin, estrategia errepresiboaren alde (neurri polizialak) eginez, gatazka ez da isildu, ta hau gertatzen da bere izaera politikoagatik, gehiengoaren sentipenagatik eta ENAM-en bilbatu sozial oso indartsuagatik. Horregatik oso arriskutsua da gatazka hau denboran luzatzea, helburu politiko guztien gainera degradazio moral izugarria pairatuz.

Zentzu honetan, ETaren su etena eta Lizarra-Garaziko akordioa euskal panorama politiko antzuan haize freskoa suposatu du.

PERSPEKTIBA POLITIKO BERRIAK

ETaren su etenaren iragarpena ta Lizarra-Garaziko akordioak Hego Euskal Herriko eskenatoki politikoa erruz aldatu dute. Ta ez bakarrik ETaren borroka armatua gelditu delako, ETA eta Estatuaren arteko aurkaketa armatua sortzen zuen lojika militarista, euskal bizitza politikoa "biolento" eta "demokraten" arteko polarizazioa kondentatzen zuena, bukatu delako, antza.

Arazo osoaren irtenbidea ez da ETA eta Gobernuaren arteko negoziazio soilaz helduko, baina neurri barzuek gatazka gizartetzeko balioko lukete: preso guztien hurbilpena, zigorrak murrizketak eta amnistia ere bai, bizitza politiko instituzionalera sartzea, biktimetazko dirulaguntzak...

Gatazka politikoa xehetasun handiagoz agertzen da, erakunde politiko eta sozialen posizionamenduek jadanik ez dutelako bitartekoei buruz hitz egiten, helburuei buruz baizik. Hala ere, Estatuaren aparatuen sektore desberdinetatik egiten den Konstituzioaren defentsa sutsuak, muga berriak sortatzea asko gustatzen ez zaion nazioarteko esparru baten sustenguaz, ETak baino gehiago baldintzatzen du marku politikoaren edozein negoziatio.

Optimismoa gora ta behera, egoera politiko berriak ez du esa nahi euskal arazoaren konponketa hurbil dagoenik, gatazkaren irtenbideak oraindik arazo konponkaitz asko daukalako, aurreko egoeratik etortzen diren mugiezintasunez gain. Lehen komentatu dugunez, Euskal Herria herri plurala da; bere herritartasunaren konfigurazioan arazoak dauzka, herrialde bakoitzean euskal nazio nortasunaren maila desberdinak ditu, bere nortasunaren ezaugarriak inportanteenetatik bat -euskara- ez du biztanlegoaren gehiengoak hitz egiten, eta tradizio zentalista duten bi Estaturi egin behar dio aurre.

Lizarra-Garaziko akordioa, konponketaren lehenengo adreilu da, besterik ez. Baina oso adreilu inportantea, ETaren suetena lagundu duelako (euskal gizartearen esku utzita bere destinua), baina batez ere bake prozesuaren zimentuak izan daitezkeena deskribatu duelako, metodoa eta jarrerak.

Lizarra-Garazik bi aldetako prozesua ezarri du:

1. Aurreko aldea, guztiei zabalik dauden elkarrizketa aldeanitzdunekin, "besteak" bazterketarik gabe ezagutu eta ulertzeko.

2. Konponketaren aldea, gatazkaren kausei aurre egiteko, indarkeri adierazpenik gabea.

Ikuspuntu antimilitaristatik, euskal gatazkarako Lizarra-Garaziko deklarazioa sinatu duten talde politiko eta sozialetatik aplikatu nahi den konponketa bidearen zati handia oso egokia da, hiru ezinbesteko osagai daukalako: elkarrizketa, indarkeria eza eta Euskal Herriarentzako demokrazia gehiago.

1) Aitortzen delako bakarrik elkarrizketa eta negoziatio prozesu ireki eta pluralaren bidez, litiganteen bazterketarik edo tematika mugarik gabe, emango zaiolako irteera gatazkari.

2) Garrantzitsua da negoziatio politikoen norabideak eragile politiko eta sozialek markatzea, ta ez erakunde militarrek. Baieztatzen da berriro desiragarria dela bake prozesuari aurre egitea alde guztietatik indarkeri adierazpenik gabe.

3) Gatazkaren konponketaren gakoa demokrazian sakontzea da, EUSKAL HERRIKO biztanleek beren etorkizunari buruz azken hitza dutela aitortzeko, eta bere erabakia errespetatua izan dadin beharrezkoa dela markatzen da.

Momentu honetan bake prozesua bere hasieran dago, ta itxaron beharko da argitu arte nork deituko duen negoziatio mahaietara eta nortzuk izango diren deituak, geroago, negoziatioaren jokua arauak, helburuak eta mugak ezartzeko.

Lizarra-Garaziko hitzarmenaren aurkako abotsak, zentralismoan karrotatutako indarren interes politikoengatik sortzen dira, eta terrorea erabiltzen dute esperantza iratzarri duen bide politiko berri hau desprestigiatzeko. Mamu intoxikatzaileak sortzen dituzte, hala nola euskaldunak autodeterminazioaren bidetik gosez hilko gara, edo garbiketa etnikoa ipiniko dugula martxan.

Hitzarmenak gehiago planteiatzen du prozesu hori aurrera eramateko akatsik gabeko metodologia bat, definizio ideologikoa baino. Baina aitortu behar da helburua bitartekoetan ere dagoela.

Akordio politikoak amankomunean jartzeko beharrezkoa izango da gizarteak eztabaidan, kontsentsuan eta onespenean presentzia jarraia edukitzea. Gertatu egin da kontsolidatutako negoziatio prozesuak egon arren, Estatuak bere statu quo-ari itsatsita jarraitzen dutela, bakerke prozesua arriskuan ipinita; adibidez Israelen Palestinarako jarreraren ikusi dugu, edo Saharan. Euskal gizarteak prest egon beharko da arazo horiei aurre egiteko eta gatazka birsortzea ebitatzeko.

IKUSPEGI ANTIMILITARISTA

Gatazkak desblokeatzeko negoziazioaren bidearen aldeko apostua, argi ta garbi, oraingo aurkaketa militarra gainditzeko jarraitu beharreko bidea da. Bide hau aukeratzen denean, badakigu luzapen handiko prozesu guztietan zailtasun handiak daudela. Alde guztietatik kalamitate asko erein dira, ta honek euskal komunitatearen errekonziliazioa eragotziko du, egoera mingarri hauetan bizi den subjektibitate logikoak bakearen kontra bultzatzen duelako.

Akats handia da biktimen sufrimendua luebagien mugiezintasuna justifikatzen duen argumento politiko bihurtzea. Haserrea eta horrorearen iturria mantentzeko espantua erabiltzen duen lastimaren meharuari amaiera eman behar zaio.

Hala ere, modu bakarra dago mendeakuzko inertzia hauekin bukatzeko: kontzientek izan behar gara irteera bakarra, gatazka betikotzea ez badugu nahi, elkarrizketa eta negoziazioa direla. Erreferentziei esker dakigu, edozein negoziatio prozesutan keinu humanitarioak borondate onaren erakusbidea suposatzen dutela, gatazka hurbiletik sufritu duten biktimentzako tratamendu zehatzekin.

conflicto.

4 ezaugarri gogoratu nahi dugu, egoera berria finkotzeko lagun dezaketena: 1) Gatazkari irteera demokratikoa ematea 2) Desmilitarizazio soziala. 3) Politikaren gaurko degradazioa gainditzea 4) Desobedientzia zibila eskubide sozial eta politikoen ukazioari aurre egiteko bide bezala erabiltzea.

1) Gatazkari irteera demokratikoa ematea

Antimilitarismotik, Euskal Herriaren subiranotasuna eta sakonketa demokratikoak bortxazko edozein osagairen deuseztapena suposatzen duelakoan gaude, bai legala bai militarra, bere etorkizunari buruzko edozein erabaki Euskal Herriaren eskuetan egotea eragoz ez dadin. Ez da ezer lortuko konponbideak bortxa praktikatzaren duten erakundeetatik etorriko balitz, lehen aipaturako gaitzak ekarriko bailituzke.

Lizarra-Garaziz planteiatzen den autodeterminazio ikuspuntuak, euskal gizartearen pluralismoa modu autoritarioen bidez saihesten duten politika traumatikoen buruketak edota bazterketak suposatzen ez dituzten formulen bilaketa ekartzen du.

Nafarroa ta Iparraldearen kasuetan, bere biztanlegoa izan behar da bere etorkizunari buruz defendatzen duena, baina baita ere, oraingo aldenketa -posiblea bada- gainditzea lortzen duten erlazio edo laguntzarako gune instituzional edo sozialak bilatu behar dira.

Betiko hitzarmen parlamentarien estutasunaren aurrean, Lizarra-Garaziko akordioak Parlamentuaz kanpoko alderdiak, sindikatuak eta beste elkarte batzuk ere dute lekua; laburbilduz, eragile sozio-politiko gehiagori irekitzen zaie parte hartzea. Horregatik interesgarri izan daiteke, gure ustez, instituzionalizazio gune berriak sortzea, adibidez udalen federakuntza, poterea hiritarrarengana hurbiltzen duena, sarbidea eta fiskalizazioa errazten dutelarik.

Baina bazterketa politikari egiten diegun ukazioak, oraingo Estatuetikiko alternatiboak diren balore ta mugimenduei buruz ere hitz egiten du. Indarkeria estrukturalak biktima gehiegi ekarri du; zigortuak, espetxeratuak, gaixoak... orain ari garen gatazka honek baino askoz biktima gehiago; eta insumisook ere errepresaliaturako talde honen kideak gara. Gutxirako balio izango dute hainbeste borroka eta sufrimendu urtek, baketze prozesutik jaiotzen den marku legal berria XIX. mendeko Estatu-nazioaren kopia anakronikoa besterik ez balitz.

Orainxe da injustizi eta biolentzia estrukturalaz etorkizuna baldintzatzen ez duten elkarbizitze proiektu flexibleak eraikitzeko momentua; bake egoera hobe lortuaz. Horregatik ezin dira prozesutik at geratu talde edo mugimendu sozialak, hauek desberdintasun politiko eta ekonomikoen gailentzea bilatzen dutelako, botuaren delegazionismoa baino partehartzailaigoa den ereduak proposatzen dituztelako, zatitu eta hertsinguratzen duten mugak deuseztu nahi dituztelako, eta nazio egituraketa (mugaz gaineko aldea) behetik gora, zuzentzen duten lider "argiturik" gabe, eta obedituz gestionatzen duten komisionatuez eraiki nahi dutelako.

Urguilu abertzalerik handiena, bere gatazkak gainditzeko gai den, justizia sozial eta aberastasunaren banaketa handiagoak bere barrutik lortu dituen, eta baztertutako beste herri batzuei anaitasunez laguntzen dien taldearen zati sentitzea da.

2) Giza desmilitarizazioa

Globalizazio garai honetan, euskal panorama politikoa, herri guztiena bezala, utopia antimilitarista lortzerik urrun dago; oraindik ez da lortu desberdintasun politiko, ekonomiko eta kultural sakonetatik sortzen diren gatazka politiko eta sozialetan logika militarren aplikapenari uko egitea. Hori da antimilitaristen jomuga: arlo soziala arlo militar ta instituzionalaren gaineko supremazia eraginkor bihurtzen duten balore hoieran oinarritutako elkarbizipena lortzea (sakonketa demokratikoa, justizia ekonomiko ta soziala, laguntza eta elkartasuna, etab.).

Bitxia da ikustea zelan sasibakezale batzuen aldetik, ETak armak uztea distensiorako ezinbesteko baldintza den, baina ez da kuestionatzen gaurko Estatuak pilatu duen potentzial militarista izugarria.

Legalitatean babestuta, kontrol sozialerako makinaria politiko militar itzela eraiki da. Pertsonen duintasun ta askatasuna erasorzen dituzten salbuezpeneke legeetatik hasita, eta korpu armatu polizial eta militarren sinistu ezinezko presentzia jarraituz (16.000 osotara,

7.6 puntuko polizi dentsitateaz, Europako neurria, 4.2, baino askoz gehiago). Gero ta handiagoak diren polizi gastuak ditugu gainean, 1998 urtean 228.948 pra. milioioak izan zirenak, hain herri txiki baterako, ta bitartean arma ekoizle eta esportatzaileen lehenengo postuan gaude, Estatuaren dirulaguntzaz finantziaturik gainera.

Salbuezpeneke izaera dutela aprobetxatuz, barne ta defentsa departamendu eta ministeritzen fondo erreserbatuen bidez, terrorismoaren kontrako sekretismoak gutxi batzuk aberasteko balio izan du -eta hauek dira aurkaketa armatua manten dadin interes handienak dituztenak-, aberri eta demokraziaren izenean, lokatz parean uzten dituztelarik.

Ezin ditugu konpartitu ere EUSKAL HERRIAREN etorkizuna herri aberatsen klub-eko kide bezala kokatzen duten proiektuak, NATO edo honen europar zutabea den UEO-ren estrategia militarista iparramerikarrak babestuz edo haietan parte hartuz, edo Mendebaldearen hirugarren munduarekiko desberdintasun ekonomiko eta sozialak FMI, BM, Europar Batasuna edo beste erakunde batzuekin sakontzeari lagunduz, emigrazioaren kontrako hitzarmenez edo etekin sozial edo laboral zailantzarriak dituzten itun merkantilez.

Egoera honetan zaila da ez pentsatzea bortxa adierazpenek euskal bizitza politikoan oraindik eragiten duten baldintzapenez. Euskal Herriko giza desmilitarizaziorako prozesuaren bilaketa, bakerako bidearen ezinbesteko osagaia da. Ingenueak izan gabe, gure ustez borroka armatuaren desagerpenarekin batera borroka antiterroristan babesturik herri honetan urteetan zehar eraiki den makinaria legal, judizial, polizial eta militarren birrinketa ere etorri behar da, baina tamalez oraindik oso urrun gaude handik. Bitartean, gaurko kontrol sozialaren neurri izugarriak ez dira konpatibleak izango Euskal Herriko bakearen bilaketarekin.

3) Politikaren degradazioa

Antimilitarismotik ezin dugu konpartitu gaurko sistema parlamentariak hiritarrari uzten dion eskusartze politikorako alde estua. Gero ta argiagoak diren joerak, alderdi politikoen burokratizazioan oinarritutako teknikarien monopoliora zuzentzen dira, eta gizartearen partehartzea gutxienekoa deneko partitokrazia deia sortzen du.

Alderdiek, oraingo momentuan, karugu publikoa beren militanteak saritzeko erabiltzeaz gain, marketing eta komunikazio baliabide desberdinei buruz erotuta bilatzen dute botuemailearen botua; eta hau lortu eta gero, poterearen benetako gune neuralgikoen babesa eta konsensua lortzea, hauek direlarik sistema mantentzeko interesaturik daudenak.

Horrela, gizartetik hain urrun dagoen orden partitokratikoak konfidantza osoa dauka bortxa mekanismoetan, edo informazioaren manipulazioaren bideetan, legitimitate krisi guztiak geldotzeko koartada bezala.

Egoera honetan, euskal gatazkaren konponbide politikoari deitzea gizartearen partehartze formulak bilatzea da; hau da, subiranotasunaren ihardun zuzenerantz aurreratzea, demokrazia erradikalizatzea, interferentzia burokratikorik gabe. Alderdien interesak Euskal Herriko bakearen bilaketaren erdian sartu ezin daitezkeenean bezala, gatazkaren konponbidea ezin da hauteskunde estrategiaren ez etekin arruntagoen menpean. Tamalez, gure herrian hau guztia gehiegi agertzen da.

4) Desobedientzia zibila

Desobedientzia zibilari buruzko atalean hitz egin dugunean, Euskal Herrian eman diren esperientzia desberdinak eman ditugu. Argitu behar dugu zer ekar diezaiokeen desobedientzia zibilak gaurko euskal gatazkaren gainditzeari, ekintza politikorako bide bezala; eta hau nabariagoa da gaur egun, Lizarra-Garaziko hitzarmenaren ostean ETaren armak ixildu direlarik. Aldeko zirkunstantziak seinaltatu ahal ditugu, eta baita bere aplikaziorako zailtasunak ere, baina balantzan lehenengoetarik askoz gehiago dago bigarrenetatik baino. Aldeko birtuteetatik hasita, Euskal Herrian desobedientzia zibilaren estrategiaren aplikaziorako gatazka politiko aproposa aurkitzen dugu:

- 1) Euskal gizartearen zati inportante baterako marku legal ez zilegia esistitzen delako.
- 2) Desobeditzeko bitarteko pertsonal ta materialak daudelako. Jende askok konpromezu handia asumitzeko prest dago (militantziaren kalitatea) nazio askatasun eta eraikierarako, lehen ere egiaztatu denez. Erresistentzia lagun dezaketena baliabide ekonomikoak, gure komunikabide propioak, autonomi erakundeak... nahikoak dira aurrera egiteko.
- 3) Lizarra-Garaziko hitzarmenetik sortutako egoera politiko berria, autoritarismoari egindako demokrazi ikasbidea da, eta oso kontsentsu politiko inportantea inplikatzan du; kontsentsu honekin posiblea da erakunde politiko eta sozialetatik zentralismo espainol eta frantsesa oraindik itsatsirik dauden erabaki legalen aurkako desobedientzia ekintzak egitea.
- 4) Borroka armatuak eragiten dituen arazoaren aurrean, euskal gatazkari konponbide politikoak emateko Estatuaren mugiezintasunaren kontrako desobedientzia zibil ezbiolentzoko kanpaina batek oso legitimitate handia lortuko luke euskal gizartearen eta nazioarteko iritziz publikoan.
- 5) Euskal Herrian ejerzitoari insumisioa bezalako esperientzia arrakastatsuen ostean, eta beste esperientzia batzuekin ere, estimulo handiagoa dago beste arlo batzuetan garatzeko. Ejerzitoaren kontrako desobedientziak babes sare sozial handia sortu du, autoinkulpazioaz, erreferentzia sozio-politiko bezala berrerabilia izan daitekeena, kohesio handia daukalako.
- 6) Estatu autonomi administrazioaren menpe dago zergak biltzeko eta beste tramite burokratikoetarako, eta beraz, haiek gabe

geratuko balitz, desabantailan geratuko litzateke.

7) Euskal gizarteak, epe laburrean, ez du espero Estatuaren aldetik erantzun odoltsua, eta are gutxiago Europar Batasunean.

Eta lehen aipatu ditugun zailtasunei buruz, batez ere bi seinالاتu ahal dugu:

- 1) Hainbeste urteko aurkaketa biolentoak indarkeriaren eragin positiboen mitifikazioa sortzen du, eta honek eragozpen handiak sortzen ditu desobedientzia zibil ezbiolento ekintzak ulertu eta garatzeko.
- 2) Indar politiko eta sozialen dibersitateak, tradizio eta ideologia oso desberdinak dituztenak, asko eragozten du norbanakoaren eta taldeen konpromezu eta tinkotasunean oinarritutako estrategiak garatzea; are gehiago kreatibitatearen gainean jarraikeria inposatu denean.